

Jakin *eus* **202**
herria kultura hizkuntza maiatza-ekaina
2014



JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

LEHENDAKARIA

Joan Mari Torrealdai

OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

ZUZENDARIA

Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre, Haizea Barcenilla, Harkaitz Cano, Xabier Eizagirre,
Idurre Eskisabel, Patxi Juaristi, Joanmari Larrarte, Maialen Lujanbio,
Imanol Murua, Andoni Olariaga, Olatz Osa, Gexan Sors,
Joan Mari Torrealdai, Eguzki Urteaga

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia

Tel. 943 21 80 92

jakin@jakingunea.com

www.jakingunea.com



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diruz lagundutako aldizkaria

SUMMARY

5

ZUZENDARIAREN HITZAK

7

GAIAK

11 'Harrigintza' berria

Apunteak hazkunde-osteko euskal herrigintzaz

Joseba Azkarraga Etxagibel

Egungo baldintza sozial, psikologiko, politiko, kultural eta ekonomikoetara egokitutako euskal herrigintzaz egiten da gogoeta. Egun bereziki da garrantzitsua garaiari erreparatzea, aro aldaketa bete-betean baikaude: artikulua hasten da garaiari begiratu, eta ondoren ekiten dio indartu beharreko herrigintza berriaz gogoetatzeari.

45 Izena eta izana, euskal izendegia eta

sexuaren araberako bereizketa

Idurre Eskisabel

Euskal izendegia aztertzen da genero ikuspegitik, sexuaren araberako bereizketaren auziari erreparatuz. Izan ere, euskal izendegiaren arautzaile nagusiak, Euskaltzaindiak, izen mistoen aukera baztertu duenez, hautu horren alde eman diren arrazoiak eta bereziki gure jendarteko genero ideologia nagusiak izan duen eragina aztertzen da.

- 75** Euskal Herriko animazio esperimentalaren bidezidorrak: Begoña Vicario, Isabel Herguera eta Izibene Oñederra
Ainhoa Fernandez de Arroyabe • Iñaki Lazkano
Nekane E. Zubiaur

Euskal Herriko animazio esperimentalean nagusi diren bi korronteen ezaugarriak definitu eta horien adierazle diren hiru emakumezko sortzailearen lanak aztertzen dira. Lehen joerak (Begoña Vicario eta Isabel Herguera) asmo narratiboa eta esperimentazio formalaren uztarketa du ardatz. Bigarrenak, berriz (Izibene Oñederra), narrazioa ukatu eta sormen artistiko hutsaren alde egiten du.

- 95** 14ko Gerla, amildegia eta zubi
Eneko Bidegain

Lehen Mundu Gerrak (1914-1918) Ipar Euskal Herriaren nor-tasun kontzientzian izan zuen eragina aztertzen da. Izan ere, gerra hori erabakigarria izan zen Ipar Euskal Herriko herritarrengan frantses naziotasuna txertatu eta indartzeko. Horrenbestez, Ipar Euskal Herriaren eta Hego Euskal Herriaren arteko amildegia zabaldu egin zen.

EGUNEN GURPILEAN

- 115** Kultura
Nagore Amondarain
- 121** Ekonomia
Joseba Barandiaran
- 127** Soziolinguistika
Dabid Anaut
- 134** Telepolis
Gorka Julio

Basque social construction and the growth model crisis

The sociology lecturer Joseba Azkarraga Etxagibel reflects on the need for a new Basque social construction model within the context of current social, psychological, political, cultural and economic conditions. It is now more important than ever to refer to the global context, as we are fully immersed in a period of change. [Joseba Azkarraga Etxagibel](#)

Basque nomenclature and distinguishing between sexes

Idurre Eskisabel, journalist and member of the Jakin Editorial Board, analyses Basque nomenclature from the gender standpoint by focusing on the problems of distinguishing between sexes. The article analyses the arguments that Euskaltzaindia (the Basque Language Academy) –the regulatory body for Basque nomenclature– has maintained against the option of mixed names, and in particular the influence that the prevailing gender ideology has had on that decision. [Idurre Eskisabel](#)

Experimental animation in the Basque Country: Begoña Vicario, Isabel Herguera and Izibene Oñederra

Ainhoa Fernandez de Arroyabe, Iñaki Lazkano and Nekane E. Zubiaur, lecturers in journalism and audiovisual communication, define the features of the main trends in the field of experimental animation in the Basque Country and analyse the work of the three most significant creators. The first trend (Begoña Vicario and Isabel Herguera) is based on the joining of narrative with formal experimentation. In contrast, the second (Izibene Oñederra) avoids narrative and focuses on pure artistic creation. [Ainhoa Fernandez de Arroyabe](#) • [Iñaki Lazkano](#) • [Nekane E. Zubiaur](#)

The 1914 war: bridge and abyss

The journalist and university lecturer Eneko Bidegain analyses the influence of the First World War (1914-1918) on the consequences of identity in the North Basque Country. Indeed, the war proved decisive in establishing and reinforcing French national sentiment among inhabitants of the North Basque Country and, as a result, widened the gulf between the North Basque Country and the South Basque Country. **Eneko Bidegain**

NEWS TODAY

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, economic, sociolinguistic and communication matters. This section draws on various specialists: Nagore Amondarain, Joseba Barandiaran, Dabid Anaut and Gorka Julio. **Various authors**

Lau artikulu mamitsu dakartza Jakinen zenbaki berri honek. Horretan gaude gu, bederen. Honako hau ez da zenbaki monografiko bat, gai jakin eta bakar baten bueltan osatutakoa, baizik eta, oraingoan, lau gai zehatzen bueltako lau artikulu dituzu irakurgai. Itxura batera, elkarrekin loturarik ez badute ere, sakonean, denak azken xede bertsura hurbiltzen dira: alegia, euskal komunitatearen eraikuntzaren eta deseraikuntzaren atzean dauden giltzarriak atzeman eta horien nolakotasuna arakatzera.

Lehenak Joseba Azkarraga Etxagibel soziologoaren hazkunde-osteko eta krisi garaiko euskal herrigintzaren gaineko gogoeta sakona eskaintzen digu, artikulu borobil batean. Gaurko krisiaren markoa maila globalean eta lokalean zehatz identifikatzen du, eta gainera, berariaz Euskal Herriaren neurri ekarritako eta euskal gizartearentzat pentsatutako alternatibak proposatzen ditu. Esate batera, atal batean 'burujabetza askotarikoa' planteatzen du. Hau da, estatugintza-naziogintza binomio osagarri baina tentsiodunari, euskalgintza eta herrigintza eremuak gehitzen dizkio. Borroka gune bakar eta nagusi bat ez dagoelako, haren esanetan. Laurak modu autonomoan landu beharreko eremutat ditu, baina elkarrekotasunez jokatzuz, eta bat bera besteen gainetik jarri gabe. Proposamen berria Azkarragak dakarrena, estatugintza-naziogintza korapiloa askatzeko balio dezakeena, agian.

Bigarren artikuluak Idurre Eskisabel kazetari eta antropologoak euskal izendegia generoaren betaurrekoak jantzita osatu duen ikerketa dakar. Modu errazean esateko, jaioberria, neska edo mutiko izateagatik, desberdin izendatzeak gizartearen antolakuntzaz, eta zehazkiago genero desberdintasunaz, ze arrasto ematen digun aztertu du. Sexuaren arabera desberdin izendatu beharrak gizartean dagoen emakume eta gizonen arteko parekidetasun-eza iraurarazten duela da Eskisabelen hipotesia. Hau da, zer balio erantzen eta erantzten ari garen neskatoari Estitxu deitzen diogunean, eta beste hainbeste mutikoari Harkaitz esaten diogunean.

Hirugarrenak animazio esperimentalak, gurean, azken hamarkadetan, egin duen bide interesgarri eta berritzailearen berri ematen

digu. Hiru film egile nabarmendu dira eremu horretan: Begoña Vicario aitzindaria eta Isabel Herguera, alde batetik, eta ondorengo belaunaldi baten ordezkari izibene Oñederra. Lehen biek asmo narratiboa erantsi izan diote euren lanei, beti ere esperimentazioa oinarri hartuta. Oñederrak, berriz, narrazioa ukatu eta sormen hutsaren alde egin du. Hiru sortzaile horien lana hondotik aztertu dute Ainhoa Fernandez de Arroyabek, Iñaki Lazkanok eta Nekane Zubiaurrek.

Ipar Euskal Herriko herritarren nortasun kontzientzian erabakigarria izan zen Lehen Mundu Gerra, gerra izan baitzen euskalerritarak frantses sentiarazteko prozesuan eragile garrantzitsuena, Eneko Bidegainen aburuz, eta horixe jasotzen du laugarren artikulua. XIX. mendeko bigarren zatian, Frantzian bere lurraldearen baitako herritarren gehiengoak ez zekien frantsesik. Ez zegoen frantses nazio edota aberriarenganako kontzientziarik. 14ko gerrara behartuak izan ziren eta bertan hil zituzten 5.322 euskalerritarren 'loria eta sakrifizioaren' ganean, frantses nortasunaren kontzientzia berriaz landu zuen estatuak. Bidegainen hitzetan, «eskolan teoriak lotu zitzaizkion Frantziari, gerrarekin odolarekin fisikoki sentitu zuten Frantziarekiko lotura».

Hona hemen, beraz, lau aldamio, 'gugintza' eta 'besteratze-gintza' moduak identifikatzeko.

Egunen Gurpilak ere biraka jarraitzen du: Nagore Amondarainek kulturaz idatzi digu, Joseba Barandiaranen ekonomiaz, David Anautek soziolinguistikaz eta Gorka Juliok komunikazioaz.

GAIAK

- 11** 'Harrigintza' berria
Apunteak hazkunde-osteko
euskal herrigintzaz
Joseba Azkarraga Etxagibel
- 45** Izena eta izana, euskal izendegia eta
sexuaren araberako bereizketa
Idurre Eskisabel
- 75** Euskal Herriko animazio
esperimentalaren bidezidorrak:
Begoña Vicario, Isabel Herguera eta
Izibene Oñederra
Ainhoa Fernandez de Arroyabe
Iñaki Lazkano
Nekane E. Zubiaur
- 95** 14ko Gerla, amildegi eta zubi
Eneko Bidegain

‘Harrigintza’ berria

Apunteak hazkunde-osteko euskal herrigintzaz

Joseba Azkarraga Etxagibel

*EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko
irakaslea*

‘Atxarte’ hipotesia

Baliagarria zait Atxarteren metafora bizi dugun aro historikoa ezaugarritzeko.

Anbotoko mendi-katearen magalean dago Atxarte ingurua. Naturak bere buruari eginiko omena, mendi-goizale ugariren pasabidea, eskalatzailen toki kuttuna. Laurogeiko hamarraldian, langileen eta ekologisten arteko liskar gunea.

Lehenbizikoek harrobiko lanpostuen defentsan jardun zuten, Abadiñoko herriaren atal garrantzitsua alde zutela. Harrobien aurka besteek, seguruenera herriaren atal xumeagoa lagun. Garai hartan mutiko ia nerabea zen honentzat, nola-baiteko mugarri izan zen gatazka hura, etxetik bertan aurkitu baitzuen produktibismoaren problematika, goiz ikasiz gauza funtsezkoa: gaitza izan daiteke patrioiarena zein langile eta herriarena.

Atxarte haitz-arte bat da. Abadiñotik aurrez aurre begiratzeko badiozu, ezkerrera begiztatuko duzu Anbotoko mendi-katearen gailurrik xumeena, Astxiki tontorra, eta horren eskuinera Untzillatx mendia, harroagoa. Haitz bien aldamenek elkar topo egitean V formako ontzia osatzen da, eta

ontziaren hondoan korridore estu bat sortu, Abadiñotik Urkiolara eroango zaituena: Atxarte.

Lekuak badu magia berezia. Bertako zenbait bizilagunen barruetan oraindik bizirik da euskal mitologiaren emaria, eta bertako oinarri biofisikoak euskaldunen biziraupen materiala ahalbidetu du historiaurretik hona, Barandiaran, Jesus Altuna eta beste askoren gozamenerako aztarnak utziz kobazuloetan. Gaztetxotan entzun nuen Atxarteren gaineko interpretazio bat, mutiko batek hamaika epopeia fantastiko sortzeko modukoa: euskal primitiboek korridorea erabiliko zuten garaiko piztitzarrak enboskadan akabatzeko, zeregin horretarako toki estrategikoa omen.

Haitz-arte batean bizi ote garen, alegia. Gure aroari aurrez aurre begiratzen badiozu, ezkerrera begiztatuko dituzu harrizko iragan denborak: baserria, auzolana eta solidotasuna. Ondoren, V formako ontzi hutsa, haitz-arte bera, hutsunearen ez-materialtasuna, Baumanen likidotasan hain aipatua: modernitate industrialak –«solidoa den guztia airean desegitako» duen gaitasuna lagun– bere espiritu teknologikoarekin eta oparotasun ekonomikoarekin ekarri digun indibidualismoa eta nortasun likidoa, enplegu likidoa, maitasun likidoa, finantza-sistema likidoa, politika likidoa, komunitate likidoa, instituzio likidoak, beldur likidoa. V formako hutsunearen eskuinera ikusiko dituzu etorkizun zantzuak, haitz esentzia berreskuratuta, herriari berriro harritzeko eskatuz bezala, iradokiz etorkizuneko bidaia likidotik solidorakoa dela.

Krisi ekonomikoak ametsetik zakar esnatu eta ekarri digu berriro harri bihurtzeko exijentziaren hastapena: Europako hainbat herrialdetako administrazio publikoak dagoeneko ez dira heltzen milioika langabeenganaino, eta, abandonuaren aurrean, hazkorra da familia-ehunak trinkotu, elkartasun-molde komunitarioak gogortu eta gizarte-sareak tenkatzeko premia. Gero eta gehiagoren patua isur ez dadin umiliazioaren ubidetik behera.

Zapaburuaren Filosofia

Nola dira posible Europa hiperberatsean huts egindako estatuak?

Jakina da azken hamarkadatan politika neoliberalek zeru-lurrak konkistatu eta mundua zizelkatu dutela. Lanaren prekarizazioa eta eros ahalmenaren jaitsiera ekarri zuten lehenbizi. Sosak gutxituz gero, gutxiago erosi. Eskaeraren jaitsiera horri soluziobide perfektua eman zitzaion gutxienez bi kolperek. Bat, *low cost* unibertsoa, herritar oro bihur zedin kontsumitzaile oparo, zoriontsu eta sistemarekiko adeitsu bezain baketsu. Eta bi, kreditu orgia miraritsua, zorpetze masiboaren bidez herri-

tar orok –desira oro beharrian bihurtuz– gara zezan nornahi noiznahi nonahi izateko mania posmoderno, poltsikoan izan bost edo hamabost. Erantsiz horri OCDEko herrialdeek sistema fiskalari progresibotasuna kendu eta ongizate sistema ziurtatzeko zergak ez, zorra bihurtu zutela finantziario-bide nagusi: merkatuaren eta oligarkia finantzarioaren esku utzi zen politika nola gizartea modelatzeko ahal faktikoa.

Finean, gainzorpetuz joan ziren gobernuak, familiak eta enpresak. Zorpetzean oinarrituriko sistema ekonomikoak ezinbestean behar du hazkunde ekonomikoa (kredituak eta horien interesak ordaindu ahal izateko), baina ekonomia erreala nekez haziko da zorraren abiadura berean (are gutxiago gero eta garestiagoa den petrolioarekin). Gaurko sistema finantzarioak dirua (zorra) sortzen baitu bertigozko erritmoan: bankuetako aktibo finantzarioak bikoiztu egin ohi dira 10-15 urtero. Ezinbestean, gure ekonomietan une jakin bat heltzen da non zirkulatzen ari den diru kopurua (zorra) askoz arinago hazten ari den produktibitatea (ekonomia

Zorpetzean oinarrituriko sistema ekonomikoak ezinbestean behar du hazkunde ekonomikoa, baina ekonomia erreala nekez haziko da zorraren abiadura berean

erreal) baino. Halako sistema finantzarioa duen ekonomiak bere burua suntsitu ohi du ziklikoki. Nazioarteko Diru Funtsaren datuak dira: 1970-2010 urte tartean sortu dira 145 banku krisi, 208 moneta kolapso eta 72 zor subiranoko krisi, 187 herrialderi eraginez. 2008an eztanda finantza-sistemaren erdigunean gertatu zen, horixe aldea. Europako bihotzean huts egindako estatuak sortzeraino.

Eztanda finantzarioak shock egoeran utzi zuen populua eta, Ulrich Beck-ek berriki esan duen moduan, ahalbide-tu zuen konbinazio zinez bitxia: «Estatu sozialismoa banku eta aberatsentzat, neoliberalismoa erdiko klase eta pobreen-tzat». Aski ezagunak dira konbinazioaren ondorio sozial eta ekonomikoak.

Kapitalak posizioak berreskuratu ditu globalizazioarekin, datuek erakusten digute zein puntutaraino salbuespena izan den 'ongizate estatu' deituriko paktua (estatu-nazioaren eta merkatu-nazioaren artekoa): 1900-1940 epean, Europako %10ek pilatzen zuen aberastasunaren %50 baino gehiago; 1945-1975 epean, Europako %10ek aberastasunaren %25 baino gehiago zuen; 1975-2013, Europako %10ek aberastasu-naren %50 baino gehiago zuen. Progresio bikaina. Amaitu zela klase antagonismoa?

Orain arte antzuak izan dira beldurra lekuz aldatzeko saiakerak. Eta pentsabide kritikoak jarraitzen du bere burua hormaren kontra joz, desesperazioan ez erortzeko saiakerak egin eta galdetu bitartean: nola demontre ez dago erantzun duinagorik? Eskubide-lengoaia hain hedatua den Europa sofistikatuan luzatuz doa gorputz kolpatuen zerrenda: zer dela-eta ez dira gehiago hedatzen matxinadaren aldeko baldintza subjektiboak?

R.H. Tawney-ren Zapaburuaren Filosofiak eman lezake ar-gi pixka bat. Tawneyk diosku kapitalismoak beti erabili izan duela estrategia jakin bat altxamendu kolektiboak saihesteko: zenbait norbanakori salbamen indibiduala eskaini. Gainera-koei demostratuko zaie gaitasun indibidualak direla –eta ez injustizia estrukturalak– gizarteko solairu batean ala bestean

kokatzen gaituztenak. Zapaburu kapazenek halako batean lortuko dute igel bihurtzea, jausiko zaie buztana eta gorpuzta sendotuko, miseriaren ur putzuetatik irtengo dira eta lurra konkistatzen ikasiko. Irtenbide indibidualaren mitoa masiboki gailentzen den lurraldean zimeldu egin ohi dira estrategia kolektiboak, bistan da. Aspaldiko krisi sistemikorik latzenez inoizko bizen dago enprendedorearen ideologia.

Ez da soilik mito bat saldu digutela. Gizarte industrialak guztioi josi digu gerri bueltan aurrekoek amestu ere egingo ez zuten gantz kopurua. Sistemaren onuradun aktibo egin gara. Edo bihurtu gaituzte. Gauzak horrela, gehiengo ez dago logika kapitalista gainditzearen alde, bere alderdirik zakarrenak leuntzearen alde baizik. Gehienek nahi lukete duela 10 urteko bizi-mailarekin jarraitu, berdin dio horrek balekar planetako Hegoaldearen ustiatzea, ekosistemen birrintzea edota Luziferren erreinaldia. Atxarte hipotesiak ere bazuen saihets hori: produktibismoa ez da soilik patrioarena.

Hegemonia ez da soilik politikoa eta ekonomikoa, kulturala da, esan zigun Antonio Gramsci-k. Sistemak eraiki ditu bere logikarekiko funtzionalak diren portaerak, desioak, subjektuak. Horregatik, hain zuzen, ez gaitu *lifting* batek aterako hemendik. Ez gaitu hauteskunde lehiak aterako. Kontzientziak sakon eraldatzea behar da, beharbada hauteskundeekin batera. Bataila benetakoa oso tolesdura sakonetan jokatzeko ari da. Hortxe zailtasuna, eta hortxe bere aparteko interesa.

Lurrikararen epizentroa eta hipozentroa

Geologoek bi puntu bereizten dituzte lurrikaretan. Hipozentroa, batetik: lurpeko zein puntutan gertatu den mugimendu sismikoa. Epizentroa, bestetik: hipozentroak lurrazalean duen proiektzioa. Egun, Europa zein Mendebalde osoa krisiaren epizentroari so bizi da, azalari begira bizi da, krisiaren adierazpen ekonomikoari begira. Gutxiagok labaintzen du begiratua Lurreko bihotz-erraietara, hipozentrorra, gure gizarite-ereduaren barrena eta bere krisi askotarikora. Hortxe

daude mugimendu tektoniko oinarritzkoenak eta, azken bu-ruan, azaleko kraskakoaren erantzuleak.

Arazorik handienak azpitik datoz, erdi ezkutuan, isilago, nekezago aurkituko dituzu titularretan. Eta itxura guztien arabera, ate joka datozen koloso horiek eragin handiagoa izango dute gure munduan, ekonomian, biografietan. Hiruk, tartean:

- *Krisi energetikoa*. Ez da ezer ulertzen azken 100 urteotan gertatu denaz erreferentzia zuzenik egin gabe erregai fosilei. Energia iturri fosilak daude aro industrialak ekarri digun oparotasun materialaren oinarrian. XX. mendean lur azalean zulotxoak egin eta egundoko petrolio jariora ateratu zen gorantz: ugari, merke eta oso ona. Petrolio kupel bakar-rra inbertituz 100 kupel lortuko ziren, Energia Itzulkin Tasa itzela zuen operazioak. Gaur putzu konbentzionaletan bat inbertituz 30 lortuko dira, eta ez konbentzionaletan apenas lortu ohi dira 5 (hauxe da *fracking*-aren arazorik handiena, txikizio ekologikotik harago). Dagoeneko ezin dugu handitu denbora unitate batean erauzten den petrolio kantitatea, eskaerak gorantz jarraitzen duen bitartean (gorabidean diren

Erregai fosil
merkeen aroa amaitu
da, eta horrek
eragin dezakeen
estres sistemikoak
txiki utz dezake
krisi finantzarioaren
zartakoa

herrialdeen egarriagatik, nagusi-ki). Erregai fosil merkeen aroa amaitu da (gasa ere heltzen ari da bere produkzioaren gailurre-ra), eta horrek eragin dezakeen stres sistemikoak txiki utz dezake krisi finantzarioaren zartakoa. Giddens soziologo ezagunak gertatzear den aldaketa handia zuen hizpide: «Iraultza handi baten puntu gorenean aurkitzen gara, petrolioaren menpekoa den ekonomiaren desagertze hurbila-rena».

Izan ere, energia berriztagarrien itzulkin tasa baxua da (fotovoltaikoarena, esaterako, 2,4koa da), eta nekez eutsiko zaio gaurko metabolismo sozioekonomikoari, zeresanik ez

bere etengabeko hazkunderari. Ez da gutxiestekoa ordena hegemonikoak duen erresilientzia, baina galdera ezin garrantzitsuagoa du aurretik: nola demontre eutsiko dion ekonomiaren eskala fisikoari, gizartearen konplexutasunari, globalizazioaren muina den mugikortasun eta garraio horizontal erraldoiari, edota eredu agroindustrialaren elikagai ekoizpenari. Eta euskal gizarteak galdetu behar lioke bere buruari zelan eutsiko dion bere buruari, euskal enpresek zelan egingo dioten aurre gero eta handiagoak izango diren kostu energetikoei. Mundu (materialki) aberatsean nekez aurki baitaiteke euskal herritarren hiperdependentsia energetikoaren parekorik.

- *Klimaren aldatzea.* Dagoeneko gertatzen ari da eta zenbait inpaktu saihestezinak izango dira jada, nahiz gaur bertan abiatu egundoko ahalegin koordinatua mundu osoan. Nazioarteko konferentzia guztiek egin dute huts: berotze global moderatuari eusteko hautuak (bi graduko tenperatura igoera batez beste) errenditu dira ekonomiaren epe laburreko interesen aurrean. Azken 12 mila urteotako egonkortasun biofisikoa aldatzen ari gara, deuseztatzen hanka bikoon ongizatearentzat berebizikoa den oinarria. Ondorioak ez dira soilik ekologikoak izango (ekosistema askoren kolapsoa), ekonomikoak izango dira (gizarteek gero eta gehiago inbertitu beharko dute bai arintze nola egokitze politike-tan), eta ondorio soziopolitikoak (desintegrazio sozialeko fenomenoak: migrazio masiboak, gosea, osasun gabeziak, edota eskastuz doazen baliabideak eskuratzeko gatazkak). Karbono aztarna txikiena dutenak dira ondorio larrienak bizi(ko) dituztenak, baina guztiontzako egongo da. 2014ko neguak Kantaurikoa sendo jipoitu zuen 30 itsas enbata baino gehiagorekin, Biarritzetik Bordele bitarteko gune batzuetan itsasertzak atzera egin zuen hogeit metro. Kontua ez da soilik gertatutakoa txikikeria izan daitekeela etorkizunak ekar diezagukeenarekin alderatuta. Kontua da 2008ko ikerketa batek dagoeneko aurreratzen zuela Kantaurikoaren hauskortasuna klima aldaketaren aurrean, bereziki aipatuz Zarautz. Leonardo Boff-ek zioen moduan, Noeren garaiak bizi ditugu:

uholdea bazetorrela sumatuta, Noek ohartarazi zuen bizierak aldatu beharraz, baina inork ez zion entzun nahi izan. Alderantziz egin zuten. Noerenak egiten ari da bi mila zientzialariz osaturiko Klima Aldaketari buruzko Gobernuarteko Adituen Taldea (IPCC).

- *Biodibertsitatearen galera masiboa.* Aurreko mendeko azken 25 urteetan ekonomia halako lau hazi zen bitartean, munduko ekosistemetako ondasun eta zerbitzu garrantzitsuenen %60 degradatu zen. Munduko arrantza poltsen %75 agortuta edo agortze bidean daude (gizakion dietan proteina iturri oparoenetakoa). Kantaurikoaren egoera ez da salbuespena, araua baizik. Azken 65 milioi urteko bizitzaren gain-beherarik handiena eragiten ari gara. Behera doa planetak duen ahalmena gu baliabidez hornitzeko, eta Nazio Batuen Erakundeak diosku egoerak txarrera egingo duela etorkizunean. Kolore gutxiagoko mundu hitsean bizitzea ez da kontu estetikoa, gure ongizatean inpaktu zuzena izango du. Ekosistemen 'zerbitzurik' gabe ez baitago ekonomia posibleirik. Soilik ezjakintasun erraldoiak azal dezake bioaniztasunaren eta biosferaren suntsitzea onartu izana ekonomia kapitalistaren 'albo kalte' gisa, inorena bailitzan zorigaitza.

Hipozentroko gertakarien zerrenda luza daiteke, noski, erantsiz elikagaien krisia, superpopulazioaren arazoa, zaintzaren krisia, edota XXI. mendeak aginduta digun giza aniztasunaren galera masiboa (hizkuntza komunitateen galtzea inoiz ikusi gabeko neurri eta erritmoan).

Ez da zerrendatik baztertzekoa munduan buru osasunak bi-zi duen narriatze harrigarria. Hazkorra da munduan ondoeza psikikoa (ezgaitasunaren lehen kausa da), halaxe berresten du Munduko Osasun Erakundeak ere: antsietatea, estresa, depresioa, adikzioak, suizidioak, nahaste neuropsikiatrikoak... Kontu konplexua da, baina sintoma psikikoek beti dute produktu sozialetik asko. Globalizazioak esan nahi du, besteak beste, guztiok galdu dugula funtsa, galdu dugula gure kulturaren oinarri 'naturala' eta mundu aurremodernoren

segurtasuna. Guztiok murgildu gara zentzu-krisian, anomiaren aterpe hotzean, gertatzen ari dena ulertu zein ez. Gizakien hilezkortasuna defendatu izan duten kontakizun handiek (erlijioek) zailtasun hazkorrak dituzte kontakizunari sinesgarritasunez eusteko, eta baretzeko hilkortasunaren igurtziak sortzen duen antsietate erradikala. Bitartean, hedatuz doa munduan ekinbide frenetiko eta obsesiboa. Handituz doa zentzu egarri aseezina. Zabalduz, nitasunari emanda bizitzeko proiektua, jeneralizatuz egoari halako objektibotasun behin betikoa emateko desio fondorik gabekoa. Biziagotuz doa akumulazio kapitalista neurri eroetara altxarazteko bulkada.

Zalantza sortzen zait non ote dauden gaurko krisi existentsial sakona eta bere sintoma psikikoak, zibilizazio krisiaren ondoan ala hondoan.

Zooma zabalduz gero, krisia zibilizazio patroio oso bati dario, patroio ekonomikotik harago. Krisiaren hedadura benetakoari erreparatuz gero, berori askoz biziagoa da, bizia bera baitago krisian. Gatazkak utzi zion kapitalaren eta lanaren artekoa izateari, kapitalaren eta biziaren artekoa izatera igaro da.

Epik dio lurrikara ekonomikoa egundokoa dela. Hipok, sakonetik, munduaren eztenkadak ugariak direla eta ezinbestean goazela eskasia handiagoko mundura, kolapso finantzarioaz gain bestelakoek astinduko baikaituzte oraindik bortitzago, oraindik sakonago, eta prozesu historikoa hasia dela. Epik dio azaletik: «Hazi ezik, kolapsora goaz». Hipok berriro erregutuz begiak lur azpira lerratzeke: «Hazten jarraituz gero, zulora goaz. Are –erantsiko du Hipok–, hazkundera da kolapsorako biderik laburrena, nahitaez dakarrelako baliabide gehiago kontsumitzea eta hondakin/isurketa gehiago

Globalizazioak esan nahi du, besteak beste, guztiok galdu dugula funtsa, galdu dugula gure kulturaren oinarri 'naturala' eta mundu aurremodernoren segurtasuna

sortzea». Biek dute arrazoi. Zaila zait XXI. mendeari dilema potoloagorik aurkitzea.

Zooma zabalduz gero, kontua ez da beldurra han ala hemen kokatzea, oligarkian ala %99an. Guztiontzako dago sobera. Oligarkiaren garaipena, garapen eredu produktibistaren triunfoa, Titanic-ean mus partida irabaztea bezalako-
xe litzateke.

Eskubidea vs pribilegioa

Atxarteko primitiboek ehiztari-biltzaile jardun zuten. Gizakiok halako testuinguruan eman dugu gure historia biologikoaren %99: 50 mila belaunaldi inguru. Nekazari gizartea etorri zen gero, iraultza neolitikoarekin: 400 belaunaldi. Eta duela soilik 200 urte inguru hasi zen jendarte industrial bere manerak agertzen, irauliz naturarekin erlazionatzeko moldeak, muturreraino biziagotuz ekosistemez jabetzeko moduak (energia fosilek emandako indarrari esker): espezie gisa bizi izan dugun historia guztiaren %0,01.

Funtsean, zer aldatu da Atxartetik hona? Gauza asko, jakina, baina bada funtsezko zerbait: egun, batez beste 2.400 km inguru egiten dituzte elikagaiek ekoizpen-lekutik gurera. Nafarroako zainuriek Norvegiara bidaiatuko dute eta Txilekoak etorriko dira Nafarroara. Gizakiak, gainontzeko bizidunak bezalaxe, beti bizi izan dira fotosintesiak emandako baliabideekin eta euren gertueneko eremuan aurkituriko materialekin, baina den-dena aldatu zen erregai fosilak erabiltzen hasi ginenean: ahalbidetu zen planeta guztitik ondasunak, merkantziak eta hanka bikoak garraiatzea ikusi gabeko neurrian. Halaxe helduko gara primitiboa zur eta lur utziko zukeen efizientziaren kontzeptura: gaur kalabaza bat ekoizteak eskatzen du bertatik eskuratzen dugun energia halako 100.

Kalabazak erakusten du gauza oinarrizkoa: gaurko ekonomia errentagarria da barnebiltzen ez dituelako 'esternalitate' gisa seinatu ohi direnak, kalte sozial eta ekologiko ugariak. Ralph Estes izeneko estatubatuar ekonomialariak aspaldi egin

zuen analisi esanguratsua (*The Public Costs of Private Corporations*): soilik esternalitate 'ukaezinak' kontuan izanik, 1994an AEBetako enpresei utzi zitzaion 2,6 bilioi dolarreko kalte sozial eta ekologikoak eragiten: beren etekin totalak halako bost. Hau da, esternalitate mekanismo horiek dira ziurtatzen dutenak munduko enpresa askoren biziraupen ekonomikoa.

2007ko datuen arabera, bizkaitarron aztarna ekologikoa 4,8 hektareakoa zen pertsonako. Bizkaiaren biogaitasuna pertsonako hektarea batekoa denez, bizkaitarrok daukagun lurraldea halako 3,8 erabiltzen dugu (3,8ko defizit ekologikoa dugu). Gure bizi-estiloen ondorioz beste lurralde batzuetatik baliabideak hartzen ditugu eta hondakinak esportatzen (espazioaren kolonizazioa); eta xahutzen ditugu geroko belaunaldiek izango ez dituzten baliabideak (denboraren kolonizazioa). Horiek dira gure «esternalitateak». Horrexetan datza norbere burua ezin sostengatzearen dilema etiko eta politikoa. Etorkizuneko ezbai politiko-moralik beharbada handiena.

Baumanek gogorarazi zigun, Donostian eman zuen konferentzian, ezbai garrantzitsua bezain beroa zutela bere gaztaroko gizartean. Batetik, tarta banatu behar zela ziotenak. Bestetik, tarta handitu behar zela ziotenak. Historiak ebatzita utzi ote duen auzia: gaur kimera hutsa da lehenbiziko bidea alboratzea (birbanaketa) eta bigarrenaren aldeko apustua egitea (hazkunde mugagabea).

Ameskeria da munduaren mendebaldartzea. Zazpi mila milioi lagunek ezin dute autoa izan, ezin dute astero lautan haragia jan. Ez dago aski baliabide, ez hondakinak xurgatzeko aski gaitasun. Eta Yayo Herrerok ondo dio: orokortzeko modukoa ez dena ez da eskubidea, pribilegioa da.

Keynes berpiztu?

Gaur begiratu epizentrikoa gailentzen da eta nostalgiaz begiratzen zaio *hazkundearen gizarteari*. Gizarteko sektore gehienek egiten dute hasperen galtutako paradisuari so, izan neoliberal, sozialdemokrata, marxista edo demokrata-kristau.

Ongizate estatuak
hanka bat izan
du justizia sozial
nazionalean eta bestea
injustizia globalean

Izan alderdi, izan sindikatu. 'Aurrerakoi' deituriko pentsabidea inoizko kontserbadoreen ageri da: buelta gaitzen printzipio neoliberalak (austeritateak eta murrizketek) zeru-lurrak konkistatu aurreko garaira, berreskura ditzagun logika keynesiarra, ekonomia eta ekoizpena estimulatuz, kreditua haizatuz, handituz erosahalmena, indartuz inbertsio publikoak, sustatuz kontsumoa. Bestela itsatsiko zaitugu atzeraldiaren latza, gaixoari tristura nola.

Proiektua da ongizate estatua defenditzea, berreskuratzea. Proiektua noblea da, baina baditu gutxienez hiru eragozpen:

- Ongizate estatua ez da soilik eraiki langile mugimenduen borroka luze bezain epikoari esker. Lehengaiak eta funtsezko fluxu energetikoak herrialde pobretuetatik aberastetara etorri dira, ez alderantziz (nahiz lauso geratzen zaitgun garapenerako lankidetzak eta gisakoekin). Giza migrazio masiboen norabide hori berori hartu dute, ez da kasualitatea. Luzaroan obraturiko norabide horri esker mamitu da gure ongizatea, eraiki ditugu gaztelu dotore eta handikiak, diseinatu ditugu migratzaileen aurrean harresituriko eden materialak. Ikuspegi honetatik, ongizate estatua hanka bat izan du justizia sozial nazionalean eta bestea injustizia globalean. Ikuspegi honetatik, mendebaldar langilea aldi berean izan da eskubidez hornitu beharreko kate-begi ahulena eta pribilegioz jantzi den jauntxoa. Non jartzen diren begiak, marko nazionalean edo globalean.

- Ikuspegi ekologikotik nekez aurki daiteke aldi historiko hondagarriagorik: XX. mendeko bigarren erdialdeko hazkundeak ekarri du bizitzaren azpiegituran inoiz egin den interferentziarik handiena.

- *New Economics Foundation* (nef) erakunde prestigioetsuak halaxe dio:

Berrogeiko hamarraldian sortu zenetik, ongizate estatua modu esponenzialean hazi da. Hazkunde hori hazkunde ekonomiko etengabearen menpe egon da beti, zergen bidez etekin handiagoak eragin eta ordainduz zerbitzu publiko gehiago eta hobeak. Premisa hori dagoeneko ez da eusten.

Alegia, amaitu da ongizate estatua mantendu eta hedatzeko oinarri materiala (hazkunde ekonomiko etengabea), eta tokatzen da sormen lana: nola sortu ongizatea eta oparotasuna hazkunderik gabe.

Hiru eragozpenek mamia dute, bistan da. Besteak beste, garapen justu eta jasangarria nahi izanez gero, munduko elite globalen desazkundera litzateke lehenbiziko urrats nahitaezkoa, baina nekez amai liteke hor kontua: ez da nahikoa eliteak desjabetzea, behera egin behar luke herrialde aberatsetako klase ertainaren ongizate materialak ere (gora egiten duen bitartean sektorerik kaltetuenak).

Batzuek diseinaturiko beheraldi neoliberalaren aurrean, artikulatu beharra dago birbanaketaren proiektu historikoa («euren desazkundera ala gurea»), horretarako berreskuratuz klase kontzeptua, sustatuz antagonismo soziala eta eraikiz subjektu politiko berria. Aldi berean, oso serio hartu behar da ekonomiaren deskarbonizazioa eta gizartearen trantsizio sozioekologikoa. Ezkertiarrentzat zein herritar suminduentzat halako ohartarazpen deserosoa dakar notiziak, baita sormenerako dei historikoa ere: birbanaketatik harago, proiektu askatzaile berriaren muina ez da gehiago eskatzea, ezpada gutxiago; eliteen kasuan nagusiki, baina oro har kontua da kontsumismo indibidualistatik soiltasun partekatura igarotzea.

Ezinezko agenda politikoa ote den? Ez dirudi beste aterabiderik dagoenik, ez behintzat justizia sozial eta ekologikoaren ikuspegitik. Hazkundearen proiektua da ezinari omenik handiena: 140 kilometro orduko abiadura daramagu deabrukeria den A8 autopistan eta, abiadura mugak erabat gaindituta (planetaren muga biofisikoak aspaldi gainezkatuta), proposamena heldu zaigu: azeleragailua topera zapaldu,

demagun hamar minutuz... Baldintza horietan istripua ez da urrutiko probabilitatea. Ez da aukera bat hainbaten artean. Gertakari segurua da. Eta egunero sartzen gara auto horretan. Motibo indartsuak ditugu horretarako: hortxe ikusten dugu enplegua sortu edo bizibidea ez galtzeko aukera.

Gobernu, mandatari eta herritarrek nahi lukete ekonomiak urtero gora egitea gutxienez %3. Monbiot idazle ingeles eta aktibista politikoak matematika erabili zuen hautu horren ezina adierazteko:

%3ko hazkunde ekonomiko etengabeak esan nahi du jarduera ekonomikoa bikoiztea 23 urtetik behin. 2100 urterako, munduko kontsumoak gora egingo du %1.600... 2115 urterako %3.200, 2138 urterako %6.400. Baliabideak mugatuak direnez, hori ezinezkoa da.

Proiektu neokeynesiarra defentsiboa eta kontserbadorea da, baina oroz gaintetik bideraezina da. Saihestu beharrekoa ez da beheraldia, baizik eta ezberdintasunak areagotuz baztuk prestatzen ari diren beheraldi neoliberala. Dilema ez da keynesianismoa edo neoliberalismoa, bietako nork gidatuko hazkundera. Dilema da hazkunde-oste ordenatua ala desordenatua, agertoki hondagarri eta kaotikoa saihestea. Beheraldi justua, sortzailea eta bizigarria antola daiteke, edo behi puztuek hiltegiara egiten duten bidaia.

Besterik da nolabaiteko hautu keynesiarrari heldzea paradigma aldaketaren alde, justizia sozial eta ekologikoa oinarri hartuta baliabide publikoak erabiliz *trantsizio handirako*, ekonomiaren eta gizartearen birmoldatze ekologiko eta ekitatiborako, alegia.

Barraskiloak badaki

Batek atsekabez eta doluz ondoriozta dezake ezinezkoa dela hazkunde mugagabea, ona bailitzateke gizartearentzat. Bada pentsabide heretikoagorik, aldi berean zientifikoagoa: ezinezkoa bezain kaltegarria zaigu. Espezie honetakook premiak ase ohi ditugulako hiru iturri erabiliz:

- Ekoizpen ekonomikoa –merkatuak edo estatuak zuzendua–: osasun zerbitzuak, automobilak, hezkuntza, etxeko altzairuak, edota dendetan salgai ditugun guztiak. Hau da, diru trukean oinarritutako jarduna (BPGak neurtzen duen hori).
- Diru trukerik gabeko giza harremanak: umeen hazkuntza, zaintza, identitatea, aitortza, afektuak, eta abar. Hau da, tradizionalki emakumeen eskuetan geratu diren funtzio funtsezkoak bai gizarte ordenaren birsortzerako nola gizakion ongizaterako.
- Ekosistemen emana: naturatik datozkigu ura, petrolioia, edota oxigenoa, esaterako.

Ernest García ekosozioologoak ondo dio: lehenbiziko iturria eskasa denean eta hurrengo biak oparoak, orduan bai, orduan hazkunde ekonomikoak ongizatea ematen digu, eskasia oinarritzekoak estali ohi baititu. Horixe da euskal gizarteak Espainiako gerra zibiletik aurrera eginiko ibilbidea, eskasia gorritik abundantziara.

Ordea, Mendebaldearen garapen-ereduak eraman gaitu produkzio ekonomikoaren metastasira. Lehen iturria gaingaratu dugu beste bien kaltetan, eta hortxe Mendebaldeko garapen-ereduaren arazoa: ekoizpen ekonomikoak tamaina itzela hartu du, baina eskastu zaizkigu giza premiak asetzeko beste bi iturri ezinbestekoak. Izan ere, hazkundeak koste sozial eta ingurumenezkoak izan ohi ditu, giza kontaktuek kalitatea galdu ohi dute eta sistema naturalen funtzioak galdu ohi dira. Ondorioz, puntu batetik aurrera garapen ekonomiko gehiagok ez dakar ongizate (bizi kalitate) handiagoa, hamaika ikerketek berretsi dute behin eta berriro. Are, puntu batetik aurrera alderantzizkoa gertatu ohi da. Horretaz *garaiz* ohartzea da beharbada giza inteligentziak duen desafio pedagogiko-politikorik handiena.

Puntu batetik aurrera garapen ekonomiko gehiagok ez dakar ongizate (bizi kalitate) handiagoa

Gehiegi hazteak gizakioi ez digu beldurrik sortzen, bai ordea barraskiloari. Ivan Illich-ek kontatu zuen barraskiloak zelan eraiki ohi duen bere eskola. Samurtasunez eranstu ditu eskolaren espirak, bata bestearen atzetik gehitzen ditu gero eta zabalagoak diren espirok. Bat-batean, eten egingo du lana: irudi luke kiribiltzen hasten dela, txikiagotzen, uzkurtzen, hertzen, ikoltzen. Izan ere, puntu batetik aurrera espira bakar bat gehiago gehituz gero, halako hamasei haziko litzateke. Eta horrek gainkarga eragingo lioke, bizi beharko litzateke soil-soilik eskolaren hazkundeak sorturiko eragozpenei aurre egiteko (espira gehiago erantsiz gero, gainkargaren arazoak progresio geometrikoan haziz joango dira; ostera, progresio aritmetikoan hazten da barraskiloak arazooi erantzuteko duen gaitasun biologikoa).

Hanka bikoon artean momentuz ez dago zantzurik bereiziko direnik ezagutza (inoizko handiena eremu guztietan) eta jakituria. Makinak ez du gelditzeko inongo seinalerik ematen. Ezta abiadura mantsotzeko seinalerik ere, hain da txikia sistemaren plastikotasun zerebrala. 'Aurreranzko ihesa' hautatu da, eta horrek ondorio ikaragarriak izango ditu.

Pilulak arren, introspektorik ez

Kontua ez ote, *bestelako* hazkundea? Espektriko politiko-ideologikoko adar gehienentzat da, baita ezkerrena ere: «Auzitan jarri beharrekoa ez da hazkundea, baizik eta hazkunde *hau*». Erantsiko da ekonomia haz daitekeela armak fabrikatuz edo hezkuntzan inbertituz, espekulazioa indartuz edo ekoiztuz minbizia sendatzeko botikak. Gakoa litzateke teknologia.

«Zientziak salbatuko gaitu», dio Modernia Etorbidean neonezko letrero distiratsuenak. Horixe da sistemaren salbazio planaren goiburua. Teknologiek *ekonomiaren desmaterializatzea* eragingo ei dute, posible egingo baitute konbinatzea hazkunde ekonomiko mugagabea eta baliabide gutxiago kontsumitzea. Ekoefizientzian datza esperantza.

Datuek dakarte ebazpena. EAERI dagokionez, intentsitate energetikoan hobekuntza handiak gertatu dira: 2008an, 1980an baino askoz energia gutxiago behar izan genuen BPGaren kantitate bera ekoizteko (%81 gutxiago). Ordea, errenta per capitaren hazkundeak eta energiaren prezio (erlatiboki) txikiak zera eragin dute 1985etik aurrera: energiaren kontsumoan gorakada nabarmena, batez ere garraioan eta etxean (bi eremuetan bikoiztu egin da energiaren kontsumoa 1980tik 2008ra). 1990-2004 epean euskal ekonomiaren eskala fisikoak gora egin zuen adierazle guztietan: baliabideen kontsumoa, isurketak, hondakinak, materialen *stock* metatua, eta abar. Hau da, efizientzian aurrerapen handiak eginda ere, euskal metabolismo sozioekonomikoak gero eta 'natura kopuru' handiagoa darabil ongizatea sortzeko. Desmaterializatzen urruti, geure ongizateak ingurumenaren degradatze hazkorra dakar.

Talaia globaletik ikusita beste horrenbeste, ez da egia ondoko ekuazioa: «Efizientiaren eraginez, bereizi egin dira aberastasuna (handiagoa) eta inpaktu ekologikoa (txikiagoa)». Hortxe, 80ko hamarraldian zenbait ekonomialarik haizatu zuten paradoxa, *Jevons paradoxa* deiturikoa: uste denaren kontra, efizientzia energetikoan aurrera egiteak energia kontsumoa igotzea ohi dakar.

Beharbada zientziak denbora pixka bat gehiago eman diezaguke, ez da gutxi. Baina teknozientiaren kanpo-munduan zerbait gertatuko dela pentsatzeak koartada itxura du, balio baitezake saihesteko hemen barruan egin beharreko lana, autokontentzioan oinarrituriko kuestionatze kultural errotikoa, alegia. Norbere bizi-mailari eutsi eta norbere arduraz dimititu nahi duen gizaki ereduak proiektatzen ote duen teknozientzian gauzak birnorabidetzeko gaitasuna.

Depresioaren kontrako pilulek aterabide azkar eta magikoa nola proposatzen dioten norbanako hipermodernoari, halaxe proposatzen zaio gizarte hipermodernoari teknologia berrien magia, oztopatuz *insight* kulturala. Proposamena erakargarri bihurtzen da oso, ezer funtsezkorik auzitan jartzen

ez delako –pilulekin plano indibidualean eta zientziarekin plano sozialean–. Heldutasunak, ordea, bestelako ikuspegiak seinalatzen ditu: ez dago aterabide miragarririk ez alor indibidualean ez sozialean.

Zientzia da aterabide gisa behin eta berriz inbokatua, eta zientzia da gaurko garapenaren ezinaz behin eta berriz informatzen gaituena. Kontua ez da zientzia eta teknologia gutxiago eskatzea, ezpada gehiago, baina bestelakoa: gizartearen zerbitzurakoa eta trantsizio ekosozialerako diseinatua, hel-

buru izango ez duena kontsumoa sustatzea, abiadura gehitzea edo iraungitze programatua fintzea.

Ateismo teknologikoak ez du zentzu gehiegirik. Bai, ordea, agnostizismo teknologikoak. Behar dugun trantsizioaren muinean ez baitago teknika, ez baitago zientzia, funtsean arazo kulturala da. Ondokoa da gaur ikerkuntzan, garapenean eta berrikuntzan dugun desafiorik potoloena: zelan probokatu paradigma an-

tropozentrikotik paradigma biozentrikorako eboluzio politiko, ekonomiko eta kultural konplexu bezain arina (modu baketsuan).

Kontua ez da zientzia eta teknologia gutxiago eskatzea, ezpada gehiago, baina bestelakoa: gizartearen zerbitzurakoa, trantsizio ekosozialerako diseinatua

Ekofaxismoa?

Globalizazioa sartu da gure bizitzetan halabehar naturala bailitzan, eta sinetsita gaude doitu behar dugula gizartea etengabe globalizatuz joango den mundurako. Eta horrela ez balitz? Eta desiragarria izateaz gain, halabeharra balitz birtokiratzea? Richard Sennett-ek esan berri du: «Hasi da desglobalizazioa, ez gara bueltatuko erregimen zaharrera».

Aldaketa klimatikoak diosku aldatu *beharko genukeela*, bizitzaren hondatze masiboa ikusi nahi ez badugu. Krisi

energetikoak, aldatu *beharko dugula*. Lehenbizikoak ikusten du birtokiratzea desiragarri, bigarrenak halabehar. Bada motiborik serio hartzeko kontrakzioaren hipotesia energiaren erabileran, produkzioan, mugikortasun geografikoan, kontsumoan, demografian, egolatrian... Energia gutxiagoko munduak ekar lezake ziklo aldaketa handia: auzitan jarriko luke ondasunak eskala handian inportatzeko aukera, eremu lokal/erregionalean ekoiztera behartuz ahal den guztia. Ikusi behar zein erritmo eta intentsitaterekin.

Horrek ez du esan nahi globaltasunaren paradigma desagertuko denik. Esan nahi du bestelakoak izango direla orekak honakoen artean (urruti samar azken urteotako joeretatik): globala eta tokikoa, kontsumoa eta soiltasuna, industria eta nekazaritza, teknologia eta tradizioa. Beharbada ate joka etor liteke lurraldetasunaren (tokikotasunaren) eta mundu birtualaren arteko bizikidetza; mundu globalera konektaturiko komunitate deszentralizatu eta beregainak, nolabait.

Eskasiak haserre soziala eta sistemarekiko urruntze psikikoa sor dezake. Belar goxoko larrea izan daiteke populismoa, autoritarismoa edo militarismoa hazteko. Auzi sozioekologikoak badu deriba soziopolitikoa: jendarte frustratuaren ateraldi erreakzionarioak gida dezake eskasia garaia. Beldurraren erabilera politikoa oraindik oparagoa izan liteke: umeari nola kontatzen zaizkion munstroen gaineko istorioak beldurraren esperientzia desegin dadin helduaren papar seguruan, halaxe seinalatuko dizkigute turko-buruak salbatzaile bokaziodunek. European dagoeneko biak dira erreallitate: polarizazio soziala (ezberdintasunen areagotzea) eta polarizazio politikoa (mugimendu eraldatzaileen esnatzea eta aukera faxistaren indartzea).

Zer egingo dugu hipermodernook, energiaren eta errekurtsuen kreditua agortu dela nabarmentzen zaigunean: elkartasunez jokatu gure erosotasunak mugatuz, ala munduaren gaineko dominazioa perfektionatu, gero eta eskasagoak diren baliabideak eskuratze aldera? Geure bizi-maila errebisatzeko prestu egongo al gara, ala hortzak zorrotzuta defendatuko

dugu biosferan ustez nahi-behar-merezi dugun tokia? Zaila zait galdera garrantzitsuagorik formulatzea XXI. menderako. Biharko gizartean guztiak ez baitira biziko, ezin biziko baitira, burges txikien gisan.

Erantzun ale batzuk dagoeneko eman ditugu: Kantaurikoa arnasestuka daukagun honetan, euskal atun-ontziek segurtasun pribatua kontratatu eta, 2009az geroztik, Somaliako kosta urrunetan helmen luzeko fusilekin bermatzen hasi ginen atuna eta arrantza industrialia.

Jekyll eta Hyde asmatuz Stevenson-ek esan zigun lerro mehe batek bereizten dituela zibilizazioa eta basakeria. Auschwitz, SSko soldaduak leporaino bete ohi ziren alkoholaz eta jatekoaz, heriotzak eta goseak agintzen zuten barrakoietatik metro gutxi batzuetara. Gizakiak modu masiboan akabatzeke inoizko zentrorik handienetakoan baziren tokiak plazera, konforta eta dibertimendua esperimentatzeko. Kulpa arrasto barik soldaduen barrualdeko txoko ilunetan. Inongo minik gabe bihotz inguruan.

Zein proiekturen alde egin nahi dugun serio pentsatzeko garaia da. Berdez jantzi baikaitzke eta, aldi berean, eskas diren baliabideak modu autoritario eta bortxazkoan banatu.

Estatuez

Orriotako pronostikoak betez gero, hobeto ibiliko dira baliabide gutxiagoko munduan bizitzeko ondo prestatzen diren herrialdeak, birtokiratzen hasten direnak, euren sistema immunologikoa indartuz (jakinik autarkia ez dela posible ez desiragarri). Etorkizun horretan ziurtatu beharko da bizi-kalitate garaia txikia den aztarna ekologikoarekin, eta horretan ez dakitenak desabantailan izango dira. Edo helmen luzeko fusil asko beharko dute.

Likidotik solidorako bidaia da. Etorkizun harritu(ago)an egitura autoantolatuak beharko dira, autosufizientziarako gaituak, beregaintasuna ardatz izango dutenak, eta *erresilientzia* komunitarioa oinarri. Zenbaitzuek galdetzen dute nola

etsiko ote zaion Europari eta gisako makroestruturaz ekonomiko eta politikoei. Askorentzat, estatu-nazioek eurek ere lanak izango dituzte euren buruari eusteko, euretako askok dute huts egindako estatu bihurtzeko probabilitatea (menpekotasun energetiko handikoek, nagusiki).

Izan ere, estatu-nazioek, gizarte industrialaren aktore funtsezko gisa, beren jarduna oinarritu dute energia iturri merkeak, ugariak eta kalitate onekoak lortzeko gaitasunean. Oparotasun energetikoak ahalbidetu du estatuaren konplexutasun hazkorra, bere egituren eta erabakien zentralizatzea, lurraldea kontrolatzeko gaitasuna, eta populazioaren sektore garrantzitsuak dedikatu izana funtzionamendu politiko-administratiboa

bermatzera (armada, burokrazia, klase buruzagia, e.a.), sektore horiek 'askatuz' energiaren eta elikagaien ekoizpenetik. Energiaren kontsumo intentsiboari esker eraiki dira zerbitzu sozial aurreratuak eta lortu da legitimazioa. Yves Cochet-ek -energian aditua, Jospin-en gobernuko ingurumen ministroa eta europarlamentaria- nabarmentzen du gaurko estatuen koste entropikoa handiegia dela eta txikiagotu behar dela azalera estatala. Bere iritzian, saihestezina da gizarte industrialaren kolapsoa, eta proposatzen du trantsizioa egitea gaurko estatuetatik 'estatu simple lokal' berrietara. Beste batzuen iritzian, tartean Víctor M. Toledo mexikarra, komunitate autogestionatuek ordeztu behar lukete estatua.

Marcellesi-k dioten moduan, gerta daiteke estatuek *konplexutasuna galtzea*, beren egiturak elikatze baliabide energetiko gutxiago izatearen ondorioz. Edo *deszentralizazioa*: zerbitzu publikoen «ekoizpen-kontsumorako zirkuitu laburragoak» sortu eta tokiko eskalara gerturatu erabakimena. Edo, muturrera eroanda, gerta daitezke *desestatalizazio*

Yves Cochet-en iritzian, saihestezina da gizarte industrialaren kolapsoa, eta proposatzen du trantsizioa egitea gaurko estatuetatik 'estatu simple lokal' berrietara

prozesuak: komunitateei boterea bueltatzea, indartuz behetik gorako gizartegintza. Erantsiko diogu desestatalizazio prozesuak izan litezkeela bizigarriak (are, gurea bezalako herrientzat), edota anarkistek ere biolentziaren monopolioa faltan botatzerainoko infernuak (mafiek eta talde armatu pribatuek eskuratu bailezakete ahalmen askoz handiagoa).

Hitz batean, ikusteko dago zein forma hartuko duten etorkizuneko administrazio publiko moldeek, beroriek egokitzean baliabide natural mugatuetara. Litekeena da lurralde unitate txikiagoek autonomia handiagoa eskuratzea. Espainiari dagokionez, erantsi beharko litzateke aldaketa klimatikoaren aurreikuspenak ezin dramatikoagoak direla Mediterraneo alderako. Espero dira eragin ezegonkortzaile handiko inpaktu ekologiko, sozial eta ekonomikoak.

Funtsean, burujabetzaz ari gara...

Hein handi batean, desafioa da botere soziala berreskuratzea, indartzea herritarrok prozesu ekonomiko eta politikoak kontrolatzeko ahalmena. Lurraldeek burujabetzan aurrera egitea, hitz batean. Hori gogoan, garapen alternatiboak eta garapenari alternatibak sustatzen, bieran ari dira hainbat eragile mundu zabalean, globalizazioaren porrotaren aurrean.

Toledo mexikarrak dioen moduan, kontua datza, enpresa monopoliko erraldoien lekuan, kooperatibak, mikroenpresak eta familia eskalako enpresak sortzean. Banku handien lekuan, aurrezki kutzak, herri bankuak eta kreditu kooperatibak. Kate komertzial handien lekuan, bidezko merkataritza, tokiko nekazaritza ekologikoa, ekoizle eta kontsumitzaileen arteko komertzio zuzena. Energia fosilen ekoizpen eta kudeaketa pribatuaren lekuan, eguzki energiaren eta berriztagarrien ekoizpen deszentralizatua edo komunitarioa... Mundu hori eraikitzean datza desafioa, gainontzeko guztia desertuaren aliatua baita.

Hondamendia saihesteko gaur badakigu zer egin behar den eskala ezberdinetan (tokikoan, nazionalen, transnazionalen)

eta eremu ezberdinetan (industrian, fiskalitatean, hezkuntzan, lurralde garapenean, eta abar). Ez da ezagutza falta, borondate falta baizik, sektore faktiko ugari baitago ibilbide hondagarriari atxikita, bide batez guztiok atxikiaraziz, eta sinetsaraziz merezi duela berak irabaziko duen mus partida jokatzea Titanic-ean. Arlo praktikora jota, hamaika dira enplegua eta ekologia eskutik joan daitezkeela dioten lanak: Lanaren Nazioarteko Erakundearen esanetan, ekonomia iraunkor batek 60 milioi lanpostu sortuko lituzke munduan (euskal lurralderako ere eginak ditugu antzeko kalkuluak, 100 mila lanpostutik gora sortuko genituzke Hego Euskal Herrian).

Jakin badakigu zer egin, ibilbide hori urratzeko hegemonia eraikitzean datza kontua. Eta prozesua hasia da tokiko eskalan, Euskal Herrian nola mundu zabalean. Gurean, azken urteotan hazkunde harrigarria izan dute kontsumo taldeek, banka etikoak sortu dira (Fiare eta Coop57), energia kooperatibak (Goienere eta Energia Gara), Bizi! mugimendua Iparraldean, elikadura burujabetzaren aldeko mugimendua (Etxalde), eskoletako jatetxe ekologikoak, REAS (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioko Sarea), Zero Zabor mugimendua, tokiko txanponak, asistentzia sozialari loturiko herri ekimenak, Auzolan mugimendua, Otxandion Herri-Ola egitasmo eredugarria, Bagara prozesua Debagoienan, Iruñean biltzen dira Landare elkarte beterano indartsua eta Katakarak elkarte jaio berria, Trantsizio mugimenduaren taupada Gasteizen, desazkundera nagusiki Bilbon, Zerainen erakutsitako pulsu historiko aurrelaria, eta beste hamaika prozesu. Esperientzia horiek guztiek eraikuntza dute ardatz, erresistentzia hutsetik harago.

Gaur nekez esan daiteke ez dagoela alternatibarik, dagoneko aktibatuta baitago alternatiba txiki ugariz sorturiko konstelazioa. Gaur herritar batek erabaki dezake hau ala bestea erostea, energia kooperatiban bazkide egin eta nabarmen leun dezake handiarekiko menpekotasuna. Gure esku dago erabakia hainbat arlotan. Gizartegintza kontrahegemonikoa elika daiteke orain eta hemen. Etorkizuna eraikiko da neurri

handi batean dagoeneko bertan ditugun osagaiekin. Konstelazio hori modu antolatuan indartzean eta biderkatzean datza desafioa.

Metamorfosi erradikal baten adibide klasikoa da harra nola bihurtzen den tximeleta. Biologoek diote harraren barne-metabolismoan badirela zelula berezi eta ezberdin batzuk. Hain dira ezberdinak, harrak uste baitu etsaiak direla, eta beroriek suntsitzen saiatuko da. Baina zelulak haziz joango dira harraren ehunduran, eta immunitate-sistemak ezingo ditu suntsitu behar den arintasanarekin. Gero eta indartsuagoak egingo dira ondorioz, euren artean konektatzen hasiko dira, harik eta dentsitate egokia lortu arte euren misioa identifikatzeko: tximeleta bihurtu. Sinestezina da, den-dena aldatzen baita izaki batetik bestera: itxura, funtzioak, aldagaien antolakuntza... Har likatsua hegoak itxi-zabalka arituko den izaki xarmant bihurtu da. Biologiaren miraria. Zer sakon batek biziaren alde jardun nahi duelako seinale bizia.

Gizarte aberatsetako ehunduran, munduan oro har, badira metamorfosiaren alde lan egiten diharduten zelula ebolutiboak. Inteligentzia kultural bereziko aleak dira. Trantsizio sozioekologiko ordenatu eta baketsuaren aldeko aktoreak dira. Ordena hegemonikoaren sistema immunologikoak, ordea, etsai gisa identifikatu zituen lehen estadioan. Bigarren estadioan nago barneratzen ari dela zelula berrien logika zenbait, oraindik har izaeran gotortuta, hori bai. Eraldatze zelularra ametitu behar luke hirugarrenean, bere heriotza bizi, tximeleta bihurtuko bada behinik behin. Eta zelulok biltzean datza desafioa, euren artean konektatu, elkar identifikatu, aitortu, taldekatu, handitu beharko dira, dentsitate egokia lortu eta euren misioa gauzatzeko: polis burujabea.

Aipaturiko esperientzien konstelazioak eraikuntzaren logika du ardatz. Horrek ez du esan nahi beharrezkoak ez direnik disidentzian, konfrontazioan eta gatazka irekian oinarrituriko estrategiak. Tanuro-k, ohi duen gisan, ikuspegi baliotsua eman digu: klimaren aldatze hondagarria ekidin nahi bada, erregai fosilen erreserben %80 lur azpian geratu beharko

litzateke, baina erreserba horien jabe estatuak eta enpresa erraldoiak dira (Shell, Exxon Mobil edo BP). Zinez litzateke xaloa pentsatzea uko egingo diotela aktibo hori ustiatzeari. Lortuko al dugu hondamendia saihestea erraldoi horiek desjabetu barik eta, beraz, auzitan jarri barik guztionak diren ondasunen jabetza pribatua (sistemaren oinarriak, alegia)? Gauza bat da eraikitzaile izatea eta beste bat aingerutarra. Beck-ek zolitasunez zioen moduan, ez dirudi gure garaia denik politika txikirako garaia, arauak txintxo betetzekoa, alegia, politika handirako garaia baizik, arauak aldatzekoa.

Beck-ek zolitasunez zioen moduan, ez dirudi gure garaia denik politika txikirako garaia, arauak txintxo betetzekoa, alegia, politika handirako garaia baizik, arauak aldatzekoa

Aipaturiko praktiken konstelazioak, bere forma anitz eta ugariekin, haustura txikiak eragiten ditu sistemaren zirrikituetan, eta sarritan sistemaren ertz zorrotzenak leundu ohi ditu, sistemaren erregulazio funtzioak eginez. Arriskua da praktika komunitario berriak bihurtzea sistemaren aringarri, gertakari episodiko, biziraupen hutserako ekonomia, eragin txikiegiko ahalegin, edota marjinazioaren altzoan identitatea entretenitzeko sasilan. Izan ere, praxi komunitarioa tokiko eskalan gertatu ohi da, eraldaketa mikroak eraginez, eta Elinor Ostrom ekonomia nobelak ere ez zuen konpondu eskalaren auzia *commons* famatuak aztertzean (praktika komunitarioak). Praxi komunitarioa ez da erantzun osoa, partziala eta mugatua da, baina aukera ematen digu nahiko genukeen mundua eraikitzen hasteko orain eta hemen. Muga muga, desafioa da haustura txiki horiek handituz joatea eta bere burua proiektu politiko zabalagoan kokatzea, helburu duena pertsonen, herrien eta lurraldeen autodeterminatzeko ahala handitzea.

Hortik ikusita, burujabetzaren gaineko gogoeta kokatzen da oso plano ukigarrian. Kontzeptuak utzi dio entelekia izateari,

eta bere praxiak utzi dio arerioaren borondatearen menpe egoteari. Edukiz bete da, funtsean garapen-ereduaren galdera behingoz ekarriz debate politikoaren arteria zentralera. Eta protestaren, akusazioaren edo erresistentziaren logikak uztar daitezke eraikuntzaren logika bizigarriarekin.

Bat. Bide horretatik, burujabetza *constructo* konplexu gisa nabarmentzen zaigu, anitza da, ez dagokio soilik alderdi politiko-instituzionalaren eraikuntzari. Burujabetza norabide guztietan indar berarekin aldarrikatzean datza kontua, baita elikagaietan eta energian ere, eta horretarako estrukturak eta estrategiak sortzen gaur bertan has gaitezke. Hasiak gara.

Bi. Burujabetza *continuum* bat da, nahiz euskal lurraldean sarri planteatzen den haurdunaldia bailitzan: edo estatua daukazu (hauxe litzateke burujabetzaren adierazle azkena), edo ez daukazu. Ez da haurdunaldia, graduala da eta, inoiz baino gehiago, ez dago soberania absoluturik inongo eremutan.

Hiru. Gehiegixotan herritar independentista zain dago noiz iritsiko egun seinalatua, Itaka bailitzan; baina burujabetza inoiz amaitzen ez den botere-eraikuntza prozesua da (mugarriak egon badaitezke ere). Gaur estatu direnek ere etengabeko botere eraikuntzan jardun behar dute, demagun etengabe birsortzen herritarren artean nazioarekiko fidelotasuna (hedabideak, hezkuntza edo futbol selekzioa erabiliz).

... burujabetza askotarikoaz ari gara

Energia aditu handia den Pedro Prietok bota zuen galdera, Bergaran, duela pare bat urteko hitzaldian: «Ni neu aldeko nauzue autodeterminazio eskubidearen defentsan..., baina, zertarako nahi duzue burujabetza edo independentzia, daukazuen dependentzia energetiko ia erabatekoarekin?».

Madrildarra izanik, estimatzekoa gogoetaren lehen parte. Ondorengo galdera zintzilik geratu zen airean, halako atmosfera pisutsua ezarriz. Esan dakiok Pedro estimatuari estatua izanik edozeinek lukeela erreminta gehiago hiperdependentziaren efektuei aurre egiteko. Baina, purrustadatxoa

baino zerbait gehiago merezi du interpelazio nazional hark. Esan nahi baitzuen gauza funtsezkoa: ez da gutxiestekoa estatua eskuratzeak euskal herritarron bizitzan izan lezakeen eragina, baina energiaren krisi global geologikoak ahala du animaliaiko eragina izateko euskal herritarrongan. Are, dependentzia politikoak dakartzan ezintasunak ez ote dira txiki geratzen dependentzia energetikoak arlo guztietan ekar dezakeenarekin alderatuta: ekonomian, bizi kalitatean, pentsioetan, enpleguan, ongizatean, hezkuntzan?

Burujabetzaz ari garela, bereiz daitezke gutxienez lau kontzeptu:

- Estaturik gabe (aitaren etxea): aginte politiko-instituzionalaren sendotzea euskal lurraldeetan, prozesu sozial eta ekonomikoen gaineko kontrola eskuratze aldera, besteak beste.
- Euskalgintza (amaren sua): euskararen herriaren trinkotzea, kulturazko identitatearen jarraidura.
- Naziogintza: nazio sentimendua eta horri loturiko eduki identitarioaren errotzea euskal jendartearen.
- Herrigintza: gizarte antolatuaren logika, kapital sozial eta komunitarioaren eraikuntza, herri-ekimena, euskal gizarte zibil demokratikoaren antolatze prozesua.

Era askotako elkarreaginak daude guztien artean, bista-koa da. Sinergiak, tentsio-guneak eta kontraesanak, tartean. Horietako zenbait aipatuko ditut zertzelada eran.

(*Sinergiak*) Estatua eskuratzeak efektu positiboak izango lituzke gainerakoetan. Estaturik gabe zail daukagu hiztun komunitate gisa, hizkuntza komunitate orok behar du gaur daukaguna baino segurtasun juridiko-politiko handiagoa biziraungo badu. Estatu izateak hornitu ohi du naziogintza munizio sinboliko indartsuagoz (euskal selekzioak, demagun). Gainera, estatu izateak ekarriko luke tresna politiko-instituzional gehiago neurri ekonomiko-sozialak hartzeko eta ziurtatzeko garapen orekatua.

(*Tentsio-guneak*) Baina estatuak ez du bermatzen ez hizkuntza komunitatea ez garapen eredu sozial-ekologiko-demokratikoa.

Ez da errealista pentsatzea euskal estatua eskuratu eta hurrengo egunean irauliko dela herri honen soziologia, sozio-linguistika eta sozioekonomia. Estatuak izan dira produktibismoaren eta mega-azpiegituren sustatzaile nagusietakoak, merkatu-eragileekin aliantza bizian. Egun estatu direnak ere desjabeturik daude, behar dute botere politikoa berreskuratu lurralderako, oligarkia finantzarioak hankapean baitauzka. Gaur dagoeneko estatua ez da gainontzeko instituzio guztiak bere baitan hartzen dituen metainstituzioa. Estatuaren mugak lotsagabeki zeharkatzen dituzten euroeskualdeak sortzeko prozesuak abian dira, eta ba omen dira tresna juridikoak zazpi euskal lurraldeak batuko lituzkeen euroeskualdea sortzeko (edo gutxienez lurralde garapena eta kohesioa indartzeko); borondate politikoa da eraiki beharrekoa.

(*Kontraesanak*) Kontraesanen adibide soil gisa, estatugin-tzaren eta herrigintzaren arteko tentsioa: gizarte modernoari han-hemen gertatu zaio ongizate estatua sortu den abiadura berean ahuldu dela gizartean besteekiko ardura pertsonala. Are, ezinbestekoa izan da elkartasuna erakundetzea –hots, bestearekiko ardura kanporatzea norbere eremu kognitibotik, emozionaletik eta ekintzazkotik–, ziztu bizian heda dadin kultura hiperindibidualista. Erakunde publikoetan delegaturiko elkartasunak komunitatea higatu du, herri-botere

mehetu, gizarte zibila argaldu eta indibidualizatu egin gaitu. Likidotu eta hein batean likidatu gaitu. Besteen ukimenaz libratu gara. Eta, horrenbestez, galdu ditugu elkarrekikotasunak dituen exijentziak, dakartzan penak eta nekeak, baita sortzen dituen zentzu efektuak ere. Ongizate estatuak eta hiperindibidualismoak, elkarren kontrakoak izatetik

Ongizate estatuak eta hiperindibidualismoak, elkarren kontrakoak izatetik urruti, elkar elikatzen dute, elkarrekin harrotzen dira, elkar behar dute

urruti, elkar elikatzen dute, elkarrekin harrotzen dira, elkar behar dute.

Beraz, elkarreragin konplexuak eremuon artean. Gai funtsezkoa bezain konplexua da boterea (norbere existentziari forma emateko ahala), eta berori ez da berdin mamitzen garai, une eta arlo guztietan. Oroz gainetik, nago garrantzitsua dela aitortzea eremu bakoitzari (estaturagintza, euskalagintza, naziogintza eta herrigintza) bere autonomia erlatiboa. Gurean, ezker kulturak hierarkizazioa proposatu du: estaturagintza lehenetsi eta gainontzekoei esleitu zaie halako posizio estruktural menpekoa, berdin garaian garaiko desafioak, premiak, indar korrelazioak, urgentziak, eta abar.

Burujabetza askotarikoaren perspektibak babesten gaitu partzialtasun horretatik. Burujabetzaren aldeko politika bezain garrantzitsua bihurtzen baita polis burujabea. Herri gisa aurrera egin beharko dugu txapel juridiko-politikoarekin hau ala bestea gertatu, eta berorren aldeko lan politikoan jarraitu bitartean. Aitortuz –mitologian erori gabe– herri honek historian zehar agertu duen gaitasuna egitura funtsezkoak sortzeko herri ekimenaren eskutik, edozein gizarterentzat berebizikoak diren alorretan: hizkuntza, ekonomia edota hezkuntza. Munduan gogoeta burutsuak idatzi dira, nekezago aurkituko da praxi komunitario hain aberats eta eraginkorrik. Harri-arro berrirako, estrategia eta tresna berriak prestatu beharko ditugu autoeraketaren bidetik. Eta zeregin hori ezin da utzi subordinazioaren logikapean. Gogoetok ez dute euskal estatuaren egitasmoa leundu nahi, osatu baizik. Besteak beste, estatuak nekez konponduko duelako ezer herrigintza eraginkor barik.

Euskalherrigintza sarri joan da lotuta beste kontzeptu batzuekin. Erljioarekin, esaterako ('euskaldun fededun'). Duela ez horrenbeste integratu zuen gizarte moderno industrialaren kalapita nagusia, uztarri berean jarriz 'nazioa' eta 'klasea'. Gaur, tamainako operazio ideologiko, politiko eta praktikoa behar genuke, integratuz aro berriaren funtsezko taupada: trantsizio ekosozialak (behartua izan ala borondatez moldatua) egundoko eragina izango du herritar oren bidez eta gizarteko arlo guztietan. Ez dago auzi politiko

garrantzitsuagorik XXI. mendean. Osotasuna berriro pentsatzera eroango gaitu, eroan behar gintuzke. Eta burujabetzaren aldeko aldarriak globala den krisi sozioekologiko hazkorraren soluziobideak pentsatu behar ditu, proposatuz nola garatu euskal trantsiziorako bide propioa.

Mario Zubiagak gogoratzen digu burujabetza prozesuak sarri eraiki ohi direla 'gertaera katalizatzaile' bati esker. Orriotan galdetzen duguna da hazkorra izango den estres sistemikoa –kolapso itxura har dezakeena– bihurtuko ote den gertaera katalizatzaile aurrera egiteko burujabetza askotarikoan (jauzi handiak emateko herrigintzan, naziogintzan, euskalgintzan nola estatugintzan). Esaten ari baikara bizitzaren administrazioa gutxiago kokatuko dela eskala globalean, gehiago eskala gertukoagoetan. Euskal Herria bezalako lurraldea eraikitzeko egitasmoa ez dabil urruti iraunkortasunari ganoraz erantzuteko indartu beharreko lurralde-eskalatik.

Instituzionalizazio berrirantz

ELAko militante kualifikatu batek gogoeta mamitsua egin zidan duela pare bat urte:

ELA sindikatua baino askoz gehiago izan zen II. Errepublika garaian. Kooperatibak zituen, ekonomatoak, mutualitateak, txanpon propioa eta lurrak (afiliatuak hornitu ahal izateko eskasia garaietan). Autoantolaketa handiko errealitatea zen. Gerora, bereziki frankismo osteko erakundetzearekin eta instituzio publikoen sorrerarekin, ekinbide sindikalera lerratu zen. Orain berriro ikusten ari gara nolabaiteko deserakundetzea, babes publikoa desagiten ari dela, administrazio publikoa heltzen ez dela hainbat tokitara eta joera hori seguruenara harrotuko dela etorkizunean. Nork beteko du hutsunea? Indar filofaxistek ala *bolibarisismoak* [...] Noski, badakigu gaur eragile bakar batek ezingo duela garai bateko integraltasunik garatu, baina geure burua koka dezakegu alternatiba txiki ugariz eginiko konstelazio kontrahegemonikoan.

Ez dago euskal lurraldean kide gehiago duen eragilerik, pentsatu nuen. Noski, aniztasunak jotako errealitate konplexua da, baina imajina al dezakegu ehun mila laguneko errealitate

soziologikoa konbentzimenduz eta estrategikoki mugituz aurrezki etikora, tokiko kontsumora edota energia burujabetzara? Eta eragile horri erantsiz gero egitasmo horrekin erabat lerratzen diren beste sindikatuena, alderdien, eragile sozialen, instituzioen eta udalerrien konbentzimendua? Herrigintzan aro berria ireki da agenda sozioekologikoaren bueltan (*herrigintza ekosoziala*), eta gurean zume onak ditugu jauzi eredugarria emateko, jarraidura emanez aspalditxoko bulkada historiko komunitarioari, tokiko praktikak altzaraziz eskualde eta bailara eskalara, handituz horrela eragin ahalmena.

Instantzia ofizialek eta indar hegemonikoek ere franko hitz egin dute harrialdi berrirako prestatu beharraz. Erresuma Batuko alderdi kontserbadoreak *Big Society* deitu dio gogoeta-ildoari: berraktiba dezagun gizarte zibila, herritarrek bere gain har dezatela protagonismoa, saihestu dezagun dependentsiaren kultura. Askoz lehenago, Tony Blair-ek ederki laburtu zuen neoliberalismoaren agindua agintedun zela: norbanako bakoitza gehiago arduratu beharko da bere buruaz ama-estatuaren titia horrenbeste zupatu beharrean. Herbeheretako erregearen 2013ko diskurtsoa esanguratsua izan zen oso: «Amaitu da ongizate estatua» esan zien herbeheretarrei, «hasi da gizarte parte-hartzailearen garaia». Amerikarren «Do it yourself!», kontsigna politiko-kultural bihurturik.

Politika neoliberalak beti izan dute helburu ardua indibiduala sustatzea, birrindu ostean elkartasunerako gizarte-sareak, tradizionalak zein modernoak. Neoliberalismoak langile eta herritar autogidatuak nahi ditu, nor bere bizitzaren erantzule ia bakar bilakatzea. Subjektuak gobernatzeko modu hori errentagarri zaio, noski: txiroak euren buruaren biktima dira; euren ezegokitasunaren, kompetentzia ezaren eta

Herrigintzan aro berria ireki da agenda sozioekologikoarekin ('herrigintza ekosoziala'), eta gurean zume onak ditugu jauzi eredugarria emateko

autoporrotaren biktima baino ez. Kontraesan sistemikoak arazo biografiko bihurtu eta pertsonen barrualdean kokatu-ko dira, ez eremu publiko-politikoan.

Gaur, espiritu enprendedorea behar dugu eta Gizarte Berrikuntza da *mantra* berria. OCDEk halaxe definitzen du Gizarte Berrikuntza: merkatuak eta estatuak konpontzen ez dituzten arazoentzako erantzun berriak behar ditugu, ez soilik enpresa-berrikuntzari loturikoak, oro har jendartean sustatu behar da arazoak konpontzeko gaitasuna. Berez notizia ona da jendartearen ahalduntzea, baina erraz nabarmentzen da muinean zer egon daitekeen: botere publikoen hauskortasun hazkorra, eta merkantilizazioa/pribatizazioa tonaka.

Joan Subirats politologo katalanari entzun nion adibidea. Kataluniako eskola txiki batek konponketak behar ditu, baina Generalitat-ak sosik ez gastuetarako. Gurasoek beraiek egin dituzte konponketok, baina deseroso geratu dira, ezarri baitute aurrekari arriskutsua. Galdera da, Subiratsen iritzian: eskolako hormak margotu dituzten gurasoak ez al daude ahaldunduta demagun informatikako gela erabiltzeko, patioari bestelako erabilera komunitarioak emateko, eskolako sukaldeari bestelako funtzioak eransteko? Bestela esanda: «Ondo da, gu ahaldunduko gara, baina zuek segituko al duzue aginpide guztiarekin?».

Botere harremanetan datza gakoa: funtzioen bueltatzea gertatzen bada (botere publikoen ahultzea komunitatearen mesedetan), zergatik ez da gertatuko boterearen birjabetzea? Ardura norbere gain hartzen duenak ez al du aginpidea hartzeko zilegitasunik? Hondoan ezagun zaharra dago, publikotasunaren gaineko ezbaia, alegia: zer da publikoa, eremu instituzionala soilik? Ala guztionak diren arazoei herritar antolatu gisa aurre egiteko gaitasuna? Bigarrena baldin bada, alda ditzagun botere estrukturak. Logika berbera aplika daiteke administrazioak ez, merkatuak huts egindako leku hartantxe antolatzen direnean herritarrak.

Gizarte antolatua ez da soilik eraso neoliberalen aurrean publikotasunak behar duen defentsa lerro sendoa. Entitate

eta autonomia propioa du publiko-pribatu-komun hirukoan. 'Komunak' (*commons*) ez dira soilik desmerkantilizazioarako abiapuntuak, bizitzaren desestatalizazioaren aldeko jorak ere badira. Hori bai, ofentsiba neoliberalari aurre egiteko beharko da publikoaren eta komunaren artean ulermen handia, konfiantza, elkarlana, aliantza. Abiatuz bakoitzaren autonomiarekiko begirunetik. Konstelazio komunitarioak erakundeekiko autonomia izan behar baitu (zer esanik ez alderdi politikoezikiko); autonomo bezain lankide, lankide bezain autonomo.

Esan dugu praktika komunitario berrien arriskua dela bihurtzea sistemaren aringarri, edo gertakari episodiko, edo eragin txikiegiko ahalegin. Arriskuak gutxietsi gabe, bada aukera berririk: izan daitezke erakundetze berri baten ernamuina, botere harremanetan eraginez eraldatze estruktural eta iraunkorrak. Are, kontrakzio mugimenduak garrantzitsuak izan daitezkeen aro historiko berrian. 🍷

Izena eta izana, euskal izendegia eta sexuaren araberrako bereizketa

Idurre Eskisabel

Kazetaria, EHUKo Kazetaritza II Saileko irakaslea eta Jakin Taldeko kidea

Euskal izendegi moderno¹ apailatzen hasi zirenetik, izenen sexuaren araberrako bereizketa egitea eta hartarako irizpideak jartzea izan da behin eta berriz sortu den arazoetako bat. Izan ere, toponimiatik eta hitz arruntetatik abiatuta sortu dira euskarazko izen berri asko, eta euskarak genero gramatikalik ez duenez, ez da sinplea izen zehatz batek gizonena edo emakumeena izan behar duen erabakitzea. Areago, bereizketa horrek derrigorrezkoa behar duen ebaztea.

Izan ere, izen berriak sortu diren eran, eta normatibizatzea izen horien sorrera baino motelagoa izan den neurrian, anbiguoak edo mistoak izan dira hainbat izen; hau da, gizon zein emakumeei jarri izan zaizkie, sexu biek partekatu dituzte².

Baina euskal izendegiaren eratzaille eta arautzaille nagusiak, Euskaltzaindiak, aukera horren kontra egin du lege, eta, batik batik, hizkuntza irizpideak argudiatuz. Hain justu, hautu hori aztertuko dut, teoria feministatik abiatuta, ikusteko Euskaltzaindiaren hautuan berak ematen dituen lege eta, batik batik, hizkuntza arloko arrazoiez gain gure jendarteko genero ideologia nagusiak eraginik izan ote duen³.

Egungo genero ideologia nagusia diodanean, ikerketa eta teorizazio feministen emaitzak egiten ditut neure, hau da, honako ardatz hauek: indarrean den genero sistemak pertsonen arteko bereizketa nagusia sexu bikotasunean ezartzen duela; alegia, ustez aratza eta zehatza den sexu binarismo biologikotik abiatuta⁴ bereizten dituela arrak eta emeak. Eta pertsona arrei atxikitzen diela ezaugarri sorta bat, eta eraikuntza sozial horren ondorio dela maskulinitatea (eta gizonaek). Era berean, pertsona emeei atxikitzen die beste ezaugarri sorta bat, eta eraikuntza sozial horren ondorio da feminitatea (eta emakumeak). Alegia, generoak. Gainera, maskulinitateari eta feminitateari ezartzen zaizkien ezaugarriak kontrajarriak eta bateraezinak dira; are, elkarren baztertzailak. Halaber, ezaugarri horiek berezkozat aurkezten dira, naturazkotzat; naturalizatzea baita eraikuntza sozial horrek iraun dezan ezinbesteko estrategia. Era berean, gizonen zein emakumeen atxiki zaizkien ezaugarrien arabeko rol zehatz eta mugikaitzak emango zaizkie jendarte egitura eta botere harremanetan, eta rol horien arabera emakumeek gizonaen menpe daude antolaketa orokorrean.

Beste era batera esanda, ideologia horren uste nagusia litzateke naturak geneen, hormonien edo burmuinaren egituraren bidez hala erabaki duelako direla emakuek goxoak eta sentiberak, eta, ondorioz, zaintza lanetarako berezko joera eta egokitasuna dutela. Arrazoi berengatik direla gizonak ekintzaileak eta oldakorrak, eta arlo publikoaren guda (edo futbol) zelaian aritzeko aproposak.

Sexu bikotasuna eta haren arabeko bereizketa dira, beraz, egungo genero ideologiaren zutoin ezinbestekoak.

Irizpideak

Sabino Aranek *Ixendegi bizkattarra*-ren bidez euskal izendegi modernoa eratzeko lehen harria ezarri zuenetik, izenen sexuaren arabeko bereizketa eta hura gauzatzeko irizpideak eztabaidagai izan dira. Santutegia euskaratu zuten Aranek eta

Elizaldek, erlijio katolikoak onetsitakoak hartzen baitzituzten pertsona izen zilegizat⁵. Bi zerrendatan banatuta eman zuten izendegia: *Gixonena* batetik, eta *Emerena* bestetik. Izenak itzultzeko egin zuen bezala, gizonenak eta emakumeenak bereizteko irizpide berria erabili zuen, euskara beste hizkuntzen eraginetik libratu, eta ustez euskararen berezkotasunean oinarritutako sistema indarrean jartzeko. Hala, Pablo Pedro Astarloa XIX. mende hasierako euskararen apologistak *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva o gramática y análisis razonada de la euskara o bascuence* liburuan plazaratu zuen teoriari jarraitu zion, eta erabaki emakume izenek *-e* amaitu behar zutela, eta mutilenek, ahal dela *-arekin*, eta, halakorik ezin denean, *-e* ez den beste edozein letrarekin.

Izan ere, Astarloak garaiko pentsamendu korronteen barruan hizkuntza naturalaren kontzeptuan sinesten zuen, hots, hizkuntzak lehen une batean Jainkoak sorturikoak zirela, eta, ondorioz, pertsonen izaerarekin eta jokabide egokiekin zerikusi zuzena zutela. Horrela, neskato jaio berrien lehen negarra *‘é’* izaten dela frogatutzat eman zuen Astarloak –Durangoko bi medikurekin nolabaiteko azterketa enpirikoa egin ostean–, eta, aldiz, *‘á’* izaten dela mutikoen lehen negarra. Horren ildotik, *‘é’* emakumeen letratatzat jo zuen eta *‘á’* gizonezkoentzat. Aranek horretan oinarrituta erabaki zuen gizon izenek *-a* amaitu behar zutela eta *-e* emakumezkoenak.

Arazo handiagoa sortu zitzaion 1972an Jose Maria Satrustegiri Euskaltzaindiaren ekimeneko lehen izendegia egiteko lanari heldu zionean⁶. Izan ere, antzinako agiriei erreparatuta, gizon zein emakumeentzako izen berak erabili izan direla ondorioztatu zuen, baina *‘legeak’* ez duela onartzen eta *‘herriak’* aukera hori ez duela gogoko argudiatuta, bereizketaren alde egin zuen. Gerora indarra hartuko zuen eredia proposatu zuen lehen gogoeta haietan: *-a* bukaera erantsitako aldaera emakumeentzako izatea; hau da, agiri zaharretan bi formetan eta bere ustez sexu bereizketarik gabe ageri ziren Eder/Ederra, Urdin/Urdina edo Nabar/Nabarraren kasuan, erroa gizonezkoentzako gordetzea (Eder, Urdin eta Nabar) eta *-a*

ezarrita eratorritakoa emakumeei ematea (Ederra, Urdina, Nabarra). «-a hizkiarekin bukatzen den hitza gizonari itsastea herriak» (Satrustegi, 1973: 213. or.) ez duela gustuko, agertu zuen erabaki hura oinarritzeko.

Euskal izendegiaren erabilerak aurrera egin eta izen berriak sortu ahala korapilatuz joan zen kontua

Horrez gain, gerora euskal izendegi modernoaren sexuaren araberako bereizketa guztiz baldintzatu duen beste erabaki bat ere hartu zuen Satrustegik –ziur aski, generoaren auziari dagokionez, nahiko modu inkontzientean–: frankismo garaiko legedi zorrotzari iskin egiteko asmoz, toponimian oinarritutako izen ugari andre mariaren adbokazio gisa aurkeztu zituen –baita hala ez ziren hainbat ere–, eta, ondorioz, toponimo asko eta asko emakume izen direla finkatu zuen.

Satrustegirena hasiera besterik ez zen izan. Euskal izendegiaren erabilerak aurrera egin eta izen berriak sortu ahala, korapilatuz joan zen kontua. Gero eta gehiago ziren sortzen ziren izen berriak, gero eta ugariagoa haien hautua egiten zuen jendea, eta izan ziren, halaber, Euskaltzainditik kanpo euskal izendegirako izendegi proposamenak egin zituzten beste autore batzuk. Egoera horretan izan zen garai bat gerora Euskaltzainditik «nahas-mahasarena» esan izan zaiona, normatibizatu gabeko izen forma eta praktikak zabaldu zirena, eta garai horretan neskentzako zein mutilentzako erabili ziren hainbat izen. Areago, garai hartan argitaratutako hiru izendegik –Mikel Hoyos, Urtzi Ihitza eta Xarles Bidegainak– espresuki azpimarratu zuten euskarazko izenen artean badirela batzuk mistoak direnak.

Ez da hori, ordea, Euskaltzaindiaren ikuspegia, eta Onomastika batzordeak landuta 2001ean plazaratu zuen izendegiaren ildotik zorrotz arautu du sexuaren araberako bereizketa: anbiguotasun guztiak ezabatu ditu, eta izendegian jasotzen den izen bakoitza gizonezkoentzakoa edo emakumezkoentzakoa

den finkatu. Bi arrazoi ematen ditu hain estu jokatzeko: alde batetik, legeak (Espainiakoak) hartara behartzen duela⁷; bestetik, euskararen berezko sisteman beti bereizi direla gizon eta emakume izenak, ez dela mistorik izan.

Bereizketa egiteko honako irizpideak ezarri ditu, hizkuntza argudioetan bermatuta:

- a) *-a* eta *-e* amaitzen diren toponimo eta hitz arruntak emakumezkoen izentzat hartzen dira; *-i*, *-o*, *-u* eta kontsonantez bukatzen direnak gizonezkoentzat.
- b) Gizon izen bati *-a* eransteak emakumezko izen bihurtzen du. Beraz, *-i*, *-o*, *-u* eta kontsonantez amaitzen diren izen arruntei *-a* amaiera erantsita emakume izenak sortzen dira (Haritz/Haritzza, Amets/Ametsa...). Horrez gain, beste bi bide ere proposatzen dira gizon izenetatik abiatuta femeninoak osatzeko: aurretik Andre edo Mari jartzea (Andregoto edo Marimartin, adibidez).
- c) Badira *-a* amaitzen diren gizon izen historikoak. Horiek bere horretan uzten dira.
- d) Toponimoen kasuan, leku horretan andre mariaren santutegiren bat egonez gero, horri ematen zaio lehentasuna, eta gainerako arauak bertan behera utzita emakume izen gisa hartzen da.
- e) Sabino Aranaren izendegiko izenak bere horretan uzten dira, bereizketa irizpidea euskararen senaren kontrakoa dela uste den arren, onarpen zabala izan dutela argudiatuta.

Euskaltzaindia: diskurtso oso bat sexu anbiguitatearen kontra

Baina galdera da zerk bultzatu duen Euskaltzaindia bereizketa hain irmo ezartzera; alegia, aztertzea hautu horren oinarrian zein pentsaera eta balio gordetzen diren.

Horretarako, euskararen akademiak auzi honen gainean egin duen diskurtsoa aztertuko dut. Hau da, Euskaltzaindiak izendegiaz –haren egiteko eta gaitasunez, eratzekeo prozesuaz

eta irizpideez– egin dituen gogoetak, ikerketak eta emandako azalpenak. Diskurtsoa, berriz, ikuspegi foucaultiarretik ulertuko dut: hots, aintzat harturik arlo honetan erakunde botereduna dela Euskaltzaindia, bere ikuspegia nagusiarazi nahi duela, eta helburu hori lortze aldera darabilen jakintza eta sinesmenen antolaketa dela, funtsean, diskurtsoa.

Alabaina, Euskaltzaindiaren izenen sexu bereizketari buruzko diskurtsoa ez da beti bera izan; kontrara aldaketa handi bat izan du: hastapeneko ahaleginetan, Satrustegik, antzinako dokumentazioan onarrituta, ondorioztatu zuen euskarak bazituela izen mistoak, gizon eta emakumeek partekatu zituztenak. Egungo diskurtsoaren habea da, aldiz, euskarak ez duela bere sisteman izen mistorik onartzen. Ikus dezagun bilakaera.

Satrustegi, Najwa Nimri eta zentzu komunaren legea

Giza emakumeentzako berdin balio izan duten hitzak ere ba genituen. Legez, bata bestearengandik berextera behartuak gaude ta, konponketa txikiren bat egin behar. Zuri eta Zuria Erdi-arloan gizezkoena da (Satrustegi, 1973: 213. or.).

Beraz, euskarak antzina izen mistoak baimentzen zituela uste zuen Satrustegik, baina ez zen inola ere eredu horrekin segitzearen aldekoa, eta legeak ezarritako obligazioari helitzen dio sexu bereizketa finkatzeko –gogoratu: «Legez, bata bestearengandik berextera behartuak gaude ta, konponketa txikiren bat egin behar»–. Ia 30 urte beranduago, 1999ko otsailaren 26an, Euskaltzaindiak Baionan egin zituen barne jardunaldietan arrazoiketa bera berretsi zuen:

Hainbeste borrokaren ondoren lortutako emaitzak legezko bi baldintza bazter-ezinak daramatza berarekin: pertsonentzat hartzen den hitzaren duintasuna, eta sexu berezitasuna adieraz beharra. Horiek dira jokoaren arauak (Satrustegi, 1999: 595. or.).

Paradoxikoa gertatzen da Satrustegik legediari hainbesteko garrantzia aitortzea, hain zuzen ere, euskal izendegia egiteko

prozesuan legediari iskin egin zionean sarri. Hain justu, legediari men egin behar zaiola defendatzen duen esaldi berean, 'borroka' gisa definitzen du izendegia aurrera ateratzeko prozesua; halaber, atal oso bat eskaini zien eginkizun hura burutzeko jasan eta gainditu behar izan zituen lege oztopoei.

Nolanahi ere, esplizituki Espainiako legediak ezarritako obligazioari heldu zion Satrustegik izendegian sexu bereizketa finkatzeko, baina sen onari ere egiten dio aipu. Ildo horretatik, argigarria gertatzen da 1972ko otsailaren 25ean Euskaltzaindian izendegiko lanei buruz aurkeztu zuen txosteneko pasarte hau:

Kenya edo jopardar batek bere jatorrizko izena eman nahi badio seme alabari itzulpenik ez duela aitortzea aski du. Aste hontan bertan Iruñen sortutako haur baten izena dut begien aurrean: Najsua Nimri Urriticoetxea [sic], Karam eta Magdalenarena. Egunkariak ez du agertzen neskatala ala mutila den, eta ez da gure artean inor hori asma lezakeenik (Satrustegi, 1973: 208. or.).

Bai, Najwa Nimri Urrutikoetxea aktore eta musikari (emakume) ezagunaren jaiotze albisteari buruz ari da Satrustegi, eta adibide horrekin agerian utzi nahi zuen garai hartako Euskal Herrian errazagoa zela munduko edozein hizkuntzatant zegoen izena jartzea euskarazkoa baino. Alde horretatik, ulergarria izan daiteke izen arrotzaren aurrean nabari zaion errezeloa, baina aski argigarria da sumin hori adierazteko aukeratzen duen jomuga zein den: sexu bereizketa ez dela argia. Alegia, ez dakigula lehen kolpetik Najsua (Najwa) txikia neskatoa edo mutikoa den. Hori da Satrustegik izen horri jartzen dion eragozpen handiena –bidenabar, baita ustez mistoak liratekeen euskal izenei jartzen diena ere.

Ondorioz, legezkoa, egokia eta zuzena sexuak bereiztea da, gizon eta emakumeen arteko marra zehatz ezartzea,

Esplizituki Espainiako legediak ezarritako obligazioari heldu zion Satrustegik izendegian sexu bereizketa finkatzeko, baina sen onari ere egiten dio aipu

baita izenetan ere. Gogora dezagun non finkatzen dituen Satrustegik muga garbiak: «Hainbeste borrokaren ondoren lortutako emaitzak legezko bi baldintza bazter-ezinak daramatza berarekin: pertsonentzat hartzen den hitzaren duintasuna, eta sexu berezitasuna adieraz beharra. Horiek dira jokoaren arauak». Hau da, pertsonen duintasuna bermatzea eta sexu bereizketa egitea. Eta esango nuke txanpon beraren bi aldeak direla beretzat: hots, pertsonen duintasuna bermatzeko ezinbestekoa dela gizon edo emakume den zehatz adieraztea, edo, alderantziz, nahasmena sortzeak duintasun hori urratuko lukeela.

Funtsean, ikerketa feministaren ildoko genero teoriaren oinarrietara garamatza azalpen horrek. Hau da, ustez biologikoak, eta, ondorioz, naturalak, berezkoak, diren diferentzietatik abiatuta emakumeak eta gizonak ezaugarri elkar baztertzailleekin eraiki, eta emakumeak gizonen mende jartzen dituen harreman sarea eratzeko prozesuaren muinera: berezko gisa aurkeztutako oinarritzko bereizketa horretan bermatzen baita gainerako jendarte egitura guztia. Ondorioz, diferentzia horiek ezabatzea da izen mistoak onartzea –alegia, sexu bereizketan nahasmena sortzea–, denik eta transgresio handienetako bat: naturaren legea auzitan jartzea. Horregatik dago Satrustegi hain larri Najwa Nimri jaioberri hura neska edo mutila den ez dakielako.

Beraz, Espainiako legediaren aitzakiagatik baino, egiaz, *zentzu komunaren* ildotik da Satrustegientzat problematikoa sexu bereizketa ez egitea, zentzu komuna Paul Bakerren (2008) definizioaren arabera ulertuta: hau da, jendarteko babilio, ohitura eta tabuek zedarritutako diskurtso eta praktika gisa. Ez dezagun ahaztu legearen derrigortasunarekin batera «herriaren joera» aipatzen duela Satrustegik sexu bereizketaren ezinbestekotasunaren alde idatzi horietan guztietan.

«Baina nola zalantzan jar daiteke gaurregun herriak egina duen bide garbia? Izan gaitezen serioak eta har ditzagun gauzak diren bezala» (Satrustegi, 1999: 596. or.), dio emakume izenatarako *-a* amaiera defendatzeko.

Funtsean dioskuna da izenen sexu bereizketari dagokionez antzina beste joerarik izan bazen ere, zentzuz beteriko hau-tu egokia nagusitu dela herriaren senari esker, edo Bakerren erara esanda, zentzu komunaren estalki erosoaren azpian ezkututzen diren jendarteko balio, ohitura eta tabuei esker.

Hain zuzen ere, zentzu komuna edo tradizioa dei genie-zaiokeen hori da, Bakerren iduriko, generoaren eta sexua-litatearen arloan –baita ere gizarte klasearen eta etnizita-tearen kasuetan– mendekotasun harremanetan oinarritzen den *status quo*-a iraurarazteko tresna indartsuenetako bat. Sinesmen, balio, ohitura eta tabu multzo hori joango litza-teke harilkatuz zein arau eta jokabide diren egokiak gizon eta emakumeentzat, alegia, genero diskurtso edo ideologia nagusia josiz. Ondorioz, herriaren zentzu komunaren legeari jarraiki egin bazuen Satrustegik sexu bereizketaren alde, in-darrean zegoen genero ideologiarekin bat eginda aritu zen.

Baina ez da Satrustegi izan arlo horretan joera hori adierazi duen bakarra; aitzitik, lerro bereko pentsamendua ageri dute Henrike Knörr urte askoan Euskaltzaindiko Onomastika bat-zordeburu izan zenak eta Andres Iñigo batzordeko kideak, zehazki, Xarles Bidegain hizkuntzalari eta egun euskaltzainak 1999an plazaratutako izendegiari egindako kritikan.

3.000 sarrera inguru dituela dioen izendegian, Bidegain jaunak, gure ustez, hutsune eta eskasia bete eta aro berri bati erantzuna eman beharrean, gauzak zeuden baino askoz ere okerrago eta nahasiago utzi dizkigu.

1. Gizon eta emakume izenen arteko sexu bereizketaren oina-rrizko printzipioa¹ hausten du.

1. Konbentzionala bada ere Hegoaldeko erroldak argi adierazten dutenez erabat geureganatu duguna (Knörr&Iñigo, 1999: 1.201. or.).

Pasarte horretan ikusten denez, sexu bereizketa ez egi-tea da Bidegainen lana gaitzesteko erabiltzen duten arra-zoi nagusietakoa: sexu bereizketaren «oinarrizko printzi-pioa» haustea leporatzen diote, legeetan legeena. Baina, era berean, arau konbentzionala dela onartzen dute, hau da,

hizkuntzarengandik beragandik eratorria baino, jendarteko adostasun eta ohiturek moldatua. Eta, noski, hala izanez gero, jendarteko adostasun eta ohitura berriek alda dezaketena.

Diskurtso aldaketa: euskararen DNAn dago sexu bereizketa

Jendeak pentsatzen du izen arrunten kasuan euskaraz sexu markarik ez dagoenez, sexu markarik gabeko pertsona izenak daudela, eta hori euskarazko sistemaren kontrako ustea da. Euskarazko izenak, ezagutzen ditugun neurrian, beti izan dira neska edo mutil izenak, ez dago izen mistorik.

Mikel Gorrotxategi Euskaltzaindiko Onomastika batzordeko idazkari eta euskal izendegiaren egileetako baten adierazpen hori jaso zuen Mikel Garcia kazetariak *Argia* aldizkarian,

Bi pasarte horietan hiru ideia funtsezko azpimarratzen ditu Gorrotxategik: euskararen sistema, betikotasuna eta ezagutza

2007ko urrian, euskal izendegiarri buruz egindako erreportajearen. Urte batzuk lehenago gai berari buruz Satrustegik, Knörrek edo Iñigok azaldutakoaren eta Gorrotxategiren artean bada alde-rik: sexu bereizketa ezinbestekoa da ez legeak hala behartzen duelako eta herritarren ohiturek konbentzio bat eratu dutelako; edo ez, behintzat, horregatik ba-

karrik, baizik eta, bereziki, euskarak berezkoa duelako bereizketa hori egitea.

Hemen, Hegoaldean, argi dago legeak agintzen duela hori [izenen sexuaren arabeko bereizketa], baina, horrez gain, guk ikertu genuen neurrian ikusi genuen euskarazko sistema hori izan dela, ezagutzen den neurrian, betidanik existitu den bereizketa bat (SE Gorrotxategi⁸).

Bi pasarte horietan hiru ideia funtsezko azpimarratzen ditu Gorrotxategik: euskararen sistema, betikotasuna eta ezagutza. Iruditzen zait hiru gako horietan daudela aztertzen ari

naizen auzian Euskaltzaindiak duen jarreraren giltzarriak. Xeheki begiratuko ditugu.

Gorrotxategi, euskararen sistemaz ari denean, hizkuntzaren berezkotasunaz ari da, euskara besteetatik aparteko hizkuntza bakar eta zehatz gisa ezaugarritzen duen horretaz. Euskararen izaeraz, barneko eta berezko egituraz, DNAz. Eta, ondorioz, dio izenen sexu bereizketa egitea berezkoa duela euskarak, DNAn dakarrela. Beraz, izen mistoak onartuko bagenitu, euskarazkoa ez den zerbait txertatuko genuke euskararen. Kutsatu egingo genuke, kalte egingo genioke; kontratura litzateke. Betikotasunaren ideia ere horrekin lotuta dago: euskararen sorreratik hizkuntzaren sisteman inskribatuta dago izen mistorik ez dagoela –eta ez dezagun ahantz euskararen gaineko diskurtsoan zenbaterainoko garrantzia duen antzinatasunak; ia balio sakratu bat da–. Berezkotasunaren berme betikotasuna.

[Mitologiatik hartutako izenak erabiltzeak edo hitz arruntak] nik uste dut sistema zahar batean txertatzen diren berrikuntzak direla. Berrikuntza horiek ez dute sistema hankaz gora ipintzen. Berrikuntzak hartzen dira, baina sexu bereizketa segitzen da mantentzen (SE Gorrotxategi).

Jendeak onartu zuen Harri, Enbor edo Kizkitza deitzea, baina ez zuen onartu, salbuespenak salbu izen zehatz batzuekin, sexu nahasketa eragin dezaketen izenak erabiltzea. Esan nahi dut hori gure tradizioa edo sistema dela. Frantzian edo herrialde anglosaxoietan... beste funtzionamendu bat izan dezakete (SE Gorrotxategi, 1. eranskina).

Alegia, izenen sexu bereizketa ezabatzeak hankaz gora ipiniko luke euskararen sistema, berezkotasuna, sistema zahar eta betiko horren izaera bera. Hor dago berrikuntzen muga. Funtsean, lehenago Satrustegik jarritako muga bera da, eta lehen generoaren teoriar oinarrituta eman dugun azalpenak balioko luke. Baina Gorrotxategiren diskurtsoan, badago jauzi kualitatibo bat: jada ez da Espainiako legea, edo zentzu komunaren legea, edo gizarte konbentzioena sexu bereizketa egiteko agintzen duena, baizik eta euskararen legea bera.

Zeren eta Espainiako legediak agindutako obligazio bat babiliz, posible litzateke momentu batean intsumiso egitea. Eta zentzu komunaren eta konbentzioen ondorio bada, haiek aldatu ahala, izendegian ere aldaketa gertatuko da.

Hain justu, euskararen erabilera sexistari buruzko ikerketa, gogoeta eta jarrerak zabaltzen eta ugaritzen hasten diren garaian egin zuen Euskaltzaindiak diskurtso aldaketa, jauzi kualit<tibo hori. Hau da, hizkuntzari berari buruzko diskurtso bat egiten hasi zen generoaren auziari dagokionez, hizkuntzaren izaerari buruzko irudikapen batzuk sortzen, Deborah Cameronek (2003: 447-449. or.) jarraituz, arlo horretan hizkuntz ideologia bat eratzen. Hizkuntzari berari buruzko diskurtsoa baitago hizkuntz ideologiaren oinarrian; hain zuzen ere, erabiltzaile den komunitate horrentzako hizkuntzak esanahi kulturala hartzen duen irudikapen multzoa litzateke, taldearen eta norbanakoen irudikapenen interakziotik munduaren ulermen zehatzak eratuko dituen.

Beraz, Euskaltzaindiak arlo horretan hizkuntzaren gainean egiten duen irudikapena bat dator gure jendarte nagusi den genero ideologiarekin, aurreko atalean ikusi dugun bezala, ideologia horren oinarria baita gizonak eta emakumeak diferenteak direla nabarmentzea, eta desberdintasun dikotomiko hori naturatik eratorria dela finkatzea: jendeon izaeraren ezaugarri berezko eta betikoa dela, gure espeziearen DNAn dagoen zerbait.

Gainera, Cameronek ohartarazten duenez, hizkuntz ideologiak badu beste ezaugarri bat aztertzen ari garen honetan garrantzi handikoa: diskurtso bikoiztasunaren ezaugarria, alegia. Izan ere, lan ideologikoa hein handi batean hizkuntz irudikapenen bidez egiten da, eta irudikapen horietako asko diskurtso bikoitz baten ondorio dira, zeinetan hizkuntza hizkuntza bera den, eta, aldi berean, beste zerbaiten ordeko sinbolikoa. Alegia, hizkuntzaren erabilera zuzenaren gaineko adierazpenek agertzen dute hizkuntzaren ordena gordetzeko gogoia, baina, aldi berean, beste arlo batzuk ordenatu eta kontrolatzeko. Kasu honetara aplikatuta, Euskaltzaindia

esaten ari zaigunean euskararen sisteman beti egin dela sexu bereizketa, berezkoa dela, eta hori dela zuzena, esaten ari da, halaber, euskararen jendartean beti egin dela sexu bereizketa, berezkoa dela, eta hori dela zuzena.

Arestian esan dugu diskurtso aldaketa eta jauzi kualitati-boa euskararen erabilera sexistari buruzko gogoeta hedatzen den sasoiari egin zuela Euskaltzaindiak. Esango nuke ez dela kasualitate edo kointzidentzia hutsa, baizik eta, nolabait, generoaren eta hizkuntzaren arteko harremanen inguruan sortutako eztabaida horrek bultzatu zuela diskurtso aldaketa hori. Euskaltzaindia ez baita erakunde itxi eta gotorra; aitzitik, jendartearekin harremanetan bizi da, eta plaza zabal horretan dabilena iristen zaio, generoaren inguruko eztabaida barne.

[Izendegiak genero harremanekin izan dezakeen zerikusiar buruzko eztabaida] ere egon da. Eta batzordekide guztiek ez dute berdin ikusten... (SE Gorrotxategi, 1. eranskina).

Oro har, euskal izendegiaren azken bertsioa egiterakoan Onomastika batzordeko kideek izandako jarrerak bitan banatzen ditu Gorrotxategik.

Batzuek ikuspegi, esan dezakegu, populistagoa zeukaten. Beste batzuek historizistagoa. Eta hor pixka bat oreka lortu behar zen (SE Gorrotxategi, 1. eranskina).

Eta oreka lortzeko, batetik, aztertu zuten zein izan den jendartearen praktika, eta, bestetik, egin zuten ikerketa hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik sexu bereizketa nola egin den argitzeko.

Orduan, aztertu genituen zeuden izenak, eta, gero, azken zereendak egiteko aztertu genuen Franco hil zenetik aurrera zein bilakaera egon zen euskal izenen barruan, zeintzuk erabiltzen ziren eta zeintzuk ez ziren erabiltzen, pixka bat erabaki batzuk hartzeko. Eta aztertu zen, eta hori inportantea da, 'Euskaraz femenoak egiteko izan diren bideez', finkatzeko zein izan zen sexu bereizketa egiteko bidea. *Eusker*a-n argitaratuta dago (SE Gorrotxategi, 1. eranskina).

Beraz, ikerketa eta zientziaren bidetik eman dio Euskaltzaindiak irtenbidea eztabaidari. Eta, horrenbestez, lehen aipatu ditugun hiru ideia giltzarrietatik hirugarren eta azkenera iritsi gara. Ezagutza edo jakintzara.

Izan ere, Gorrotxategik dioskunean euskarak berezko duela sexu bereizketa egitea, «ikertu dugun neurrian», «ezagutzen dugun nerrian», zehazten du. Alegia, esaten duen horrek oinarri sendoa duela adierazten du, ez dela asmakuntzetan ari, baizik eta ikerketaren eta zientziaren objektibotasunean bermatzen dela. Hain justu, azken izendegi hori egiteko motiboetako bat aurrekoetan ezagutza eskasagatik egindako akatsak zuzentzea dela dio. Azken urteetan, beraz, asko aurreratu da euskal onomastikaren ikerketa eta ezagutzan, eta horrek aukera eman du Satrustegiren baliabide eskaseko garaietako akatsak zuzentzeko, eta akats horietako bat izan liteke euskaraz izen mistoak izan zirela pentsatzea. Zalantzarik txikiena ere ez dut hala izan dela, eta sinesten dut Onomastika batzordeak egokitasun eta profesionaltasun handienez egindako ikerketek erakusten dutela antzinako dokumentuetan ez dagoela izen mistorik.

Ezagutza eta jakintza
ez dira aratzak:
badituzte zelai
ideologiko bat, eta
motibazio eta helburu
zehatzak, eta horiek
guztiek ikerketa
eta haren emaitzak
baldintzatzen dituzte

Horren gainean eraikitako diskurtsoa da, ordea, zalantzarik lehenago aipatutako teoria feministaren ikuspuntutik. Alegia, berrikuspen ildo horrek frogatu du sarritan ikerketa, zientzia eta ezagutza baliatu direla konstruktio sozialak direnak naturalizatzeke. Ezagutza eta jakintza ez direla aratzak: badituztela zelai ideologiko bat, eta motibazio eta helburu zehatzak, eta horiek guztiek ikerketa eta haren emaitzak baldintzatzen dituztela. Foucault jara

rraiki, jakintza antolatzeke moldea jendartearen eta garaiaren mende dagoela, eta botere harremanek baldintzatzen dutela.

Zientzia ez da aratza. Femeninoak egiteko bideez edo joera androzentrikoa

Euskaltzaindiak Iñigo eta Salaberriren ‘Euskaraz femeninoak egiteko izan diren bideez’ aipatzen du euskarak sexu bereizketa berezko duela eta gauzatzeko erabaki dituen irizpideen berme objektibo gisa. Hori dela eta, lan horren motibazio, helburu eta abiaburuak zein diren aztertzeak genero auziaren inguruan darabiltzaten uste eta ideien berri eman diezaguke.

Has gaitezen motibazio eta helburuekin. Sarreran argi eta garbi adierazten dute bata eta bestea zeintzuk diren:

Egungo egunean izen toponimikoak umeei jartzeko dagoen joera bizi samarra dela erran daiteke. Honek arazo franko sortzen ditu izen horiek andronimo edo ginekonimotzat hartu beharrak diren erabakitzeko garaian, toki izenek, berez, generorik ez dutelako. Gai honi irtenbide bat emateko modua, gure ustean, euskaldunok historian zehar ibili izan ditugun eskuarteaz baliatzea dateke, era honetara lasterketak saihesten baitira, nork lehenago bere umeari izena paratuko, izen hori maskulinoa edo femeninoa izan dadin (Iñigo&Salaberri, 1997: 257. or.).

Ikerketaren motibazioa, beraz, euskaraz genero gramatikalik ez denez izen berriak sortzerakoan sexuaren araberako bereizketa egiteak eragiten duen arazoa litzateke; hots, izen horiek andromino edo ginekonimo diren erabakitzea. Helburua, berriz, arazo horri irtenbide arautu bat proposatzea, zehazki, historian –edo beste era batera esanda, tradizioan– oinarrituta.

Badakigu, dena den, garai batean ibiltzen ziren gauza asko egun ez direla ibiltzen, hainbat bide eta prozedura modaz pasatu eta zaharkiturik daudela, eta euskaldun askorendako harrigarri gerta daitezkeela. Zernahi gisaz, beharrak eragiten, eta beste biderik ez denean dugunari edo genuenari lotu beharko, deus zentzuzkorik ginen badugu (Iñigo&Salaberri, 1997: 257. or.).

Berriro ere zentzuaren aipamena. Zentzuzkoa da, hasteko, genero gramatikalik ez egon arren andronimoak eta ginekonimoak bereiztea, eta bereizketa hori historian eta tradiziotik

hartutako arau batzuetan oinarrituta egitea –nahiz eta, aitortzen dutenez, gaur egunerako zaharkiturik egon daitezkeen–. Historia eta tradizioaren bidez ordena jartzea da, beraz, beste helburu bat.

Deigarria gertatzen da, ordea, ikerketaren motibazio eta helburuak horiek izanda, lanari jarri dioten izenburua –are eta gehiago, ikerketa egitasmoetan titulua muinaren adierazle izaten dela aintzat hartuta–: ‘Euskaraz femeninoak egiteko izan diren bidez’. Alegia, ez dute jarri ‘Euskaraz femenino eta maskulinoak egiteko izan diren bidez’, edo ‘Euskaraz izenak sexuaren arabera bereizteko izan diren bidez’. Planteamendu horretatik, uler daiteke arazoa emakume izenak nola egin dela. Hots, generoaren auzia sortzen denean, sistemaren ardatza litzatekeen gizon izenari emakumezkoentzako ordaina ematea dela kontua. Beraz, androzentrismotik abiatzen dira.

Femeninoa izan da gure artean genero markatua, ‘berezia’ bestela erran (Iñigo&Salaberri, 1997: 257. or.).

Hau da, maskulinoa, gizon izena, izan da eredu eta arau, eta hartatik abiatuta eratorri dira femeninoak –dela amaieran -a bukaera itsatsita genero mozioaren bidez, Mari edo Andre aurrizkiekin, edota -i(t)za, -(t)za zein -sa, -xa amaierekin–. Gizonezkoa, beraz, generiko komun bihurtzen da, pertsonaren ordezkari, eta emakumea da eredutik aldentzen dena, genero berezi edo markatua, patroitik eratorritako azpisaila.

Iñigo eta Salaberri Erdi Aroko dokumentazioan oinarritzen dira euskaraz, izenak egiterakoan bederen, genero markatua femeninoa izan dela esateko. Alegia, Erdi Aroko dokumentazioan agertzen diren izenetan ikusten da gizon izenak direla izendapen sistemaren oinarri, eta haietatik abiatuta lehen aipatutako aurrizki eta atzizkien bidez emakumezkoen izenak sortzen direla. Eta Erdi Aroko dokumentazioak, dudarik gabe, hori hala dela erakusten du.

Arazoa ez da hori, baizik eta joera hori, gizona ardatz hartzekoa, hizkuntzaren beraren ezaugarri gisa aurkezten zai-gula, euskararen hizkuntz sistemari dagokion zerbait, eta ez

garai zehatzak baldintzatutako eta eragindako ondorio gisa. Izan ere, Erdi Aroan emakumezkoa gizonezkoaren azpisailtzat –gizon akastun edo osatu gabeko legez– hartzen zen garaian bestelakorik gertatzea litzateke harrigarria. Hau da, ez da kontuan hartu hizkuntza jendarteek eta historiak sortzen eta eraldatzen dutela; edo, behintzat, ikerketan ez da baldintzagarri horien berri ematen. Beharbada, emango balitz gaur egun izenen sexuaren arabera bereizketa egiteko irizpide horiek oso zalantzarriak gertatuko liratekeelako, eta hizkuntzaren berezkotasunean utzita askoz ere onargarriagoak direlako jendarte zehatz baten konstruktore direla adieraziz baino.

Ez dezagun ahantz Marcela Lagarde antropologoak generiko maskulino horretaz dioskuna:

El hombre universal no es una construcción lingüística sino filosófica y política, con la que se subsume la categoría mujer en la categoría hombre, y desaparecen todos sus contenidos de especialidad humana. Se construye en la historia, en las mitologías, las religiones, a través de las políticas de dominio y sus ideologías cotidianas.

Generoari dagokionez, zer ispilatzen du euskal izendegiak?

Orain arte ikusi dugu Euskaltzaindiak euskal izendegiaren ardura hartzen duenetik argi izan duela nola edo hala izenen sexu bereizketa bermatu behar duela, eta diskurtso oso bat eratu duela horren inguruan. Baina sexu bereizketa bera modu sistematiko eta arrazoitu batean egitea izan da askatu behar izan duen korapilo handia, ia 40 urteko prozesuan gauzatu joan, eta 2001eko izendegiarekin gutxi-asko finkatu zuena.

Ez da kontuan hartu hizkuntza jendarteek eta historiak sortzen eta eraldatzen dutela; edo, behintzat, ikerketan ez da baldintzagarri horien berri eman

Agertu ditugu lehenago zeintzuk diren ezarritako irizpideak. Orain, irizpide horien arabera nolako gizon izenak eta emakume izenak sortzen diren aztertuko dugu. Izan ere, izendegiak identitatearen, eta, zehazki, genero identitatearen eraikuntzan eragina du. Kenneth Burke semiologoaren arabera, metaforaren funtzioa izendatzea da, eta baieztapen horretan berमतुता esaten du Mikel Azurmendi antropologoak (1993: 38. or.) izendatze sistema eratzerakoan giza taldea bere buruaren definizioa egiten ari dela, pertsona zehatzak izendatuz gizakia zer den adierazten, nortasun indibidual zein kolektiboak eraikitzen, eta bere mundu ikuskeraren berri ematen. Eta hori guztia metaforaren bidez egiten duela, Burkeri jarraituz izenen oinarrian metafora baitago, izendatzen duten hori zer den adierazten duen irudia.

Beraz, Euskaltzaindiak gizon izenak eta emakume izenak zeintzuk diren erabakitzen duenean, berarentzako gizona zer den eta emakumea zer den esaten ari da. Izan ere, jaiotze beretik haur sortu berriari ezarriko diogun lehen ikurra da izena, eta ziurrenera, lehendabizi barneratzen duen hizkuntz elementua. Beraz, norbere buruaren ulermen eta eraikuntzan oinarritzako rola jokatzeko du izenaren bidez adierazten den diskurtso sozial zabalak, eta izenek islatzen dituzten irudiak diskurtso horren parte dira.

Discourses are pervasive –they help to position or construct us even before we are old enough to understand language (Baker, 2008: 96. or.).

Adamen saihetsetik

Ikusi dugunez, ia hasieratik ezarri eta orain arte iraun duen irizpideetako bat da emakume izenak *-a* amaierarekin egitea. Proposamen horrek bi aldaera lituzke, biak ere logika berean elkarlotuak: batetik, *-az* amaituriko toponimo eta hitz arruntak emakume izentzat hartzea. Bestetik, kontsonantez zein *-i*, *-o*, *-u* bokalez amaitutako toponimo, eta batik bat, hitz arruntetan oinarritutako gizon izenei amaieran *-a* erantsi eta

emakume izen bihurtzea. Hau da, genero moziotik abiatuta (Martin/Martina), izen pare berriak sortzea: Haritz/Haritza, Amets/Ametsa, Eguzki/Eguzkia.

Irudi bat etortzen zait burura: Adamen saihestetik sortzen den Eba; Amets izen erro maskulinoaren saihestetik erortzen den Ametsa neska izen femeninoa. Metafora garbia. Gizonezkoaren luzagarri edo eranskin den emakumezkoa. Halatsu dio Bidegainek ere bere izendegiaren sarreran: «Erorri deitzen dugu bi osagai ez egindako izena, bi osagaiarik bat izen bat da eta izen ez den atzizki bat badarama; adibidez, Gotzone izena Gotzon izenaren erorria da» (Bidegain, 1999: 10. or.).

Jar dezagun baieztapen hori Cameronek formulatutako hizkuntz ideologiaren diskurtso bikoitzaren argitan. Hau da, ordezkari dezagun zentzu zurrunean hizkuntzari buruz dioena arautu nahi den horrekin, eta horrelako zerbait irakurriko dugu: «Gotzone emakumea Gotzon gizonaren erorria da».

Ildo horretatik, interesgarria Eulàlia Lledó Cunillek *Guía del lenguaje para el ámbito del deporte* Emakundek plazaratutako gidaliburuan dioskuna:

La presentación de las mujeres como apéndices de los hombres se concreta en la lengua con los usos androcéntricos de la misma, especialmente a partir del uso del masculino como pretendido genérico (Lledó Cunill, 2009: 75. or.).

Baina behin eta berriz esaten ari gara euskarak ez duela genero gramatikalik. Hizkuntza eta sexismoaren arteko harremana ikertu duten zenbait adituren arabera, genero gramatikalik ez izatea abantaila da hizkuntzetan joera sexistak saihesteko. Esaterako, Álvaro García Meseguer arlo horretako ikertzailearen arabera, euskararen zama sexista %5ekoa da, ingelesarena %15ekoa, frantsesarena %40koa eta gaztelearena %80koa. Zama sexista neurtzeko, honako faktoreak hartzen ditu kontuan: genero gramatikalaren eta sexuen arteko lotura, maskulinoa genero komunaren pare erabiltzea, aditzaren eta izenordeen sexualizazioa eta orokortasuna adierazten duten hitzak erro maskulinoetik abiatuta egitea.

Funtsean, genero gramatikalik ez izatea da euskarari zama sexista arinduko liokeena, guztiz generizatuak diren beste hizkuntza batzuen aldean zailagoa gertatzen baita maskulino generikoaren bidez emakumea ikustezin egitea. Baina pertsona izenekin jazotako horrek erakusten du genero gramatikalik gabeko hizkuntza izateak ez duela ziurtatzen maskulino generikorik ez dela sortuko, eta are eta gutxiago sexismoan ez dela eroriko.

Ildo horretatik, hizkuntzaren eta sexismoaren arteko harremanari buruzko eztabaidan, euskal izendegia osatzeko genero mozioa erabiltzeko, eta, oro har, emakume izenak *-a* amaieraren bidez sortzeko hautuak frogatuko luke sexismoa

Genero gramatikalik gabeko hizkuntza izateak ez du ziurtatzen maskulino generikorik ez dela sortuko, eta are gutxiago sexismoan ez dela eroriko

edo hizkuntzek genero mendekotasuna transmititzea ez dagoela hizkuntzaren baitan. Hau da, ez dagoela hizkuntza sexista edo ez-sexistarik, baizik eta erabilerak direla sexistak. Edo beste era batera esanda, jendarteko genero harremanak mendekotasunezkoak badira, horrek ezinbestean isla duela hizkuntzan, eta hiztun eta erabiltzaileen esku dagoela sexismoa saihesteko aukerak egi-

tea. Hautu bat baita egun izen berriak sortzeko Erdi Aroko dokumentazioa aintzat hartu eta garaiko genero harremanek baldintzatutako izen maskulinoen generiko orokor izae-ra irauaraztea, eta emakume izenak haietatik eratorzea eranskin edo luzakin gisa. Lagarderi jarraiki, hautu bat, ez hizkuntzak berak behartutako bide bat.

Adamen saihestaren kontu honek badu, gainera, beste alde bat: gizon izenetatik emakume izenak sortzeko sistema oso bat proposatzen bada ere, kontrako noranzkoan ez da bide hori egiten. Hau da, ez dago emakume izenetatik abiatuta gizonenak egiteko modu sistematikorik –Jaun aurizkiarena anekdotikoa gertatzen da, eta Aranaren ildotik

sortutako zenbait izenen presentzia ere bai-. Dударik gabe, gizon izenak generiko komuntzat hartzearen ondorio zuzena da. Baina, horrez gain, oro har, zilegitzat jotzen diren genero identitate eta harremanen isla.

Bakerrek (2008) proposatutako adibide baten bidez ikus dezakegu argiago: Mendebaldeko gizarteetan, prakak jantzia genero identitate maskulinoarekin zegoen lotuta eta gizonetzkoentzako soilik zen zilegi. Iragan mendean, ordea, egokitzen jotzen zen genero jokabide horri buruzko iritzi eta kontsentsu soziala aldatu egin zen, eta prakak jantzi onargarri bihurtu emakumeentzat. Beraz, jokabide femenino zilegiari buruzko arauak aldatu egin dira. Kontrako noranzkoan, ordea, gonak edo soinekoak jantzen dituen gizonetza oraindik ez da onargarri; ez da genero jokabide zilegitzat hartzen. Ondorioz, Bakerren iduriko, horrek erakutsiko luke jokabide maskulino eta femeninoak ez direla elkarren kontrako zehatzak. Derridari jarraiki, erantsiko dugu elkarren kontrako exaktotzat jotzen diren arren, identitate horien arteko botere harremanean, maskulinoak indar handiagoa duela eta horregatik dela posible emakumeek prakak jantzea, eta gizonak soineko eta gonekin ibiltzea ez. Funtsean, emakumeak maskulinizatzea –beti ere neurri batean, nahasmen osora iritsi gabe– onuragarria da, beren identitateari zerbait positiboa eransteke modua. Aldiz, gizonetzkoentzat galbidea da ezaugarri femeninoak hartzea, berdin gonak jantziz edo emakume kutsua duen izen bat hartuz.

Horren guztiaren eraginez, aurrerago adierazi dugun bezala, euskal izendegian gizon izenak gutxiago dira emakumeenak baino –eta, ematen duenez, Mendebaldeko gizarteetan joera bera errepikatzen da-. Baina, murriztago izate hori nonbait bat dator jendearen premiekin, mutikoentzako izenak aukeratzekoan, oro har, fantasia gutxiagoz jokatzeko baita neskekin baino.

Nik egin nuen ikerketatxo bat eta ondorioetako bat zen gizonetzkoen izenak gehiago errepikatzen zirela emakumezkoenak baino. Ez du inporta klasean denak izatea Mikel, baina neskekin ematen

du jendea gehiago saiatzen dela bere alabatxoa bakarra izan dadin, izen berezi bat jartzen (SE Gorrotxategi, 1. eranskina).

Jokabide hori azaltzeko, baliagarria izan daiteke berriro gizon eta emakumeei jantziekin ezartzen zaien harremanaren adibidea. Alegia, gure gizarte eta kulturaren gizona-koentzako jantzeko eta apaintzeko eredu askoz ere zurrun eta murritzagoa da emakumezkoentzako baino. Askoz ere edergarri gehiago eta ugariagoak erabil ditzake –eta erabili behar ditu– emakumezkoak bere genero rolari egoki atxikitzeko. Emakumeak eder eta apain izatea garrantzitsua da, baita beren identitatea eratzeko ere. Nago, emakumeen kasuan, izenari askotan funtzio hori ematen zaiola, hau da, pertsona izendatzeaz gain haren edergarri izatekoa.

Gizona-koentzat, aldiz, beste balio batzuk hobesten dira, zurrun, barnekoago eta sendoagotzat jotzen direnak: pentsatzeko eta ekiteko gaitasuna, eta, oro har, jendarteko eragile eta ardatz izatekoa. Izen sendo eta zurrunak behar dira, beraz, jendartean ondo errotutakoak, eta hortik gutxiago izatea eta gehiago errepikatzea.

Era berean, orain gutxira arte gizonena izan da abizenaren jabetzaren eskusiba, hots, izenen barruan filiazioaren, familia eta jatorriaren berri ematen duen atalarena. Nolabait, pertsona zehatza iraganarekin eta etorkizunarekin lotzen duen elementu bat litzateke, giza taldearen iraupenerako ezinbesteko katebegi bihurtzen duena. Egun, pixkanaka, amaren abizena jasotzen duten umeak gero eta gehiago badira ere, oraintsu arte gizona-koena zen ahalmen hori. Areago, Ipar Euskal Herrian, Frantzia bezala, ezkontzean galdu egiten baitzuten han –eta oraindik sarritan dute– andreak jatorrizko deitura, eta senarrarena hartzen.

Ondorioz, izenaz eta abizenaz osaturiko izen osoa aintzat hartuz gero, gizona-engan emakumezkoengan baino askoz ere pisu handiagoa hartzen du abizenak. Etxeko esparru intimoenetik kanpo, ohikoa izaten da egunerokoan izendatzeko ere mutikoenzako abizena erabiltzea, oraindik eta gehiago inguru berean –dela klasean, kirol taldean...– izen bereko bat

baino gehiago elkartu badira. Pentsa daiteke hori gertatzen dela gizonak familia zein jendarte baten iraupenerako ardatzat hartzen direlako, eta hori abizenaren bidez bermatzen delako. Paradoxa handia, era berean, genero roletan emakume izateari lotzen zaion ezaugarririk handiena umeak edukitzeko gaitasuna dela kontuan hartzen bada, alegia, familia eta gizartea irauarazteko gaitasun fisikoa. Hor dago banaketa: giza taldeari segida emate horretan emakumeei alderdi fisiko/naturazkoa atxikitzean, eta gizonei intelektual/kulturala.

Metaforen jokoak, edo izendegiaren arabera gizonak eta emakumeak zer diren

Azken lerro horietan, nolabait, metaforen jokoan sartu gara. Alegia, emakumea naturarekin eta gizona kulturarekin parekatzea bataren zein bestearen izaera idealaren (eta irrealaren) metaforak dira. Horretan saiaturako gara atal honetan, euskal izendegiko izenen oinarrian zein metafora dauden ikusten, uste baitut ariketa horren bidez izendegiaren sorburuan dagoen komunitatearen mundu ikuskera atzeman dezakegula, kasu honetan genero identitateei dagokienez –arestian aipatutako Burkek eta Azurmendik marraztutako ildotik–. Dagoeneko urratu dugu bide bat, aztertu dugu genero moztioaren bidez gizon izenetatik emakume izenak sortzeko hautuaren oinarrian zein genero irudi dauden: funtsean, gizona guztiaren ardatz gisa hartzea, eta, ondorioz, emakumea haren eratorri.

Baina genero moztioaren proposamenaz gaindi, izendegian egin dira beste zenbait

hautu metaforaren bidetik maskulino egokia eta femenino egokia zer den marrazten dutenak. Gogora dezagun Euskaltzaindiak emakume izenak eta gizon izenak bereizteko

Emakumea naturarekin eta gizona kulturarekin parekatzea bataren zein bestearen izaera idealaren (eta irrealaren) metaforak dira

jarritako irizpide esplizituak hitzen amaiera hizkietan oinarritutako arau fonetikoek osatzen dituztela. Hau da, *-a* eta *-e* amaiera duten hitzak emakume izentzat hartzen direla, eta *-i*, *-o*, *-u* edo kontsonantez amaitzen direnak gizon izentzat. Baina izendegiaren edukia aztertuz gero, ikusiko dugu arau horiek salbuespenez josita daudela, eta hitz arruntetik abiatutako izen asko beren esanahiaren arabera sailkatzen direla, esanahi horiek balio femenino edo maskulinoekin lotzen diren heinean.

Esate baterako, Lur/Lurra biak emakumezkoentzako ematen dira, nahiz eta Elur bezala Lur ere *-rz* amaitu, eta irizpide fonetikoaren arabera, gizon izena beharko lukeen. Gauza bera gertatzen da Itsaso, Izadi eta Lilirekin, amaierari erreparatuta gizonaenak beharko lukete; emakumeentzakoak dira, ordea. Izendegiak izen horiei buruz ematen duen azalpenak jartzen gaitu arrastoan: lauen kasuan esplikatzen da Europako tradizioan kontzeptualki femeninoak diren balioekin lotzen direla, hots, naturarekin eta bizia sortzeko ahalmenarekin. Gainera, Liliren kasuan erantzen da kristautasunean loreak eta udaberria ama birjinarekin erlazionatzen direla. Azken batean, indarrean den genero ideologiaren arabera, feminitateari atxikitzen zaizkion ezaugarri nagusien bilduma osatzen dute: dohain nagusia du bizi iturri, ama, izatea, baina andre mariak iruditeria katolikoan islatzen duen bezala, modu hartzaile, pasibo eta jasankor batean.

Bestalde, emakume izen berrien artean andre marietatik hartutakoak dira gehienak, frankismoari iskin egiteko Sastrustegik aurkitu zuen tranpatxoaren ildotik. Ikusi dugunez, toponimo asko andre mari izenpean sartu dira izendegian, eta garai hark bide hori behartu bazuen ere, harrezkero ez da zalantza jarri. Ondorioz, andre mariaren erreferentia da emakume asko eta askori izenaren bidez ematen zaiona. Gizonen izen berrien oinarrian, berriz, hitz arruntak, mitologikoak, euskal kultura eta historiako gizon handienak eta lanbide izenak dira gailentzen direnak. Beraz, neska eta mutikoei ematen zaizkien erreferenteak guztiz desberdinak

dira, eta lehen ikusi dugun eredia betetzen da gutxi-asko: funtsean, edertasunarekin, amatasunarekin, pasibo, hartzaile eta jasankor izatearekin lotutako irudiak lantzen dira femeni-no gisa. Harri, Ibai, Ekaitz, Haritz, Unai, Arotz, Lauaxeta edo Xalbadorrek, ostera, sendotasuna eta eragiletza transmititzen dute. Ildo horretatik, paradigmaticoa da Iraultza izenarena: *-az* amaitutako hitz arrunta izan arren, gizonezkoentzako hautatzen da, esanahi eta kontzeptuari helduta. Maskulinoa da gizartearen ardatz izateko gaitasuna, eta, beraz, baita hura uzkaile ere.

Esaten ari gara izenak metaforak direla, garen horren irudikapenak, eta, ondorioz, identitatea eratzerakoan eragina dutela. Are eta gehiago, Judith Butler filosofoaren ildotik hizkuntzaren botere performatiboari erreparatzen badiogu. Funtsean Butlerrek dioskuna da hizkuntzak, hainbatetan errealitatea deskribatzeko gaitasuna ez ezik, errealitatea moldatzeko eta sortzeko gaitasuna duela. Nago pertsona izenek, edo, bederen, euskal izendegiko hainbat izenek ez ote duten botere performatibo hori, desberdina baita norbaitek jaiotzen denetik Ekaitz, Haritz edo Harri dela entzutea edo Estitxu, Lorea edo Maitane dela aditzea. Izen batzuek edo besteek oso desberdina egiten dute gure autoerrealitatea.

Ondorioak

Euskaltzaindiak euskal izendegia normatibizatzerakoan hartutako erabaki eta eraturako diskurtsoa aztertuta, ez da gauzak bere onetik ateratzea –feministoi eta teoria feministari usuen egiten zaigun kritika estereotipatua exajerazioaren hori izan arren– gure jendardean indarrean den genero ideologia nagusiarekin bat eginda ibili dela esatea. Ikusi dugunez, sexuaren araberrako bereizketa egitea finkatu du izendegia antolatzeke oinarritzeko lege, eta, gainera, lege naturalaren kategoria eman dio; bereizketa egiteke, gizon izenak hartzen ditu izenaren eredu, patroiz, generiko unibertsal, eta haizetatik eratortzen emakumeenak, femeniinoa maskulinoaren luzapen

edo azpisail dela irudikatuz; hitz arruntetan oinarritzen diren izenak bereizketarako irizpide fonetikoaren arabera barik esanahien arabera erabakitzen ditu, indarrean diren balio maskulino edo femeninoen arabera; emakume izenetatik abiatuta ez da ia gizon izenik sortzen, alderantzizko bidea zilegi izan arren egun oraindik gizonak balio femeninoekin kutsatzea ez baita onargarri, botere harremanetan feminitatea maskulinitatearen menpe dagoelako ispilu.

Eta aurreko hori guztia justifikatzeko, hizkuntzalaritzan, ikerketan, zientzian, objektibotasunean, oinarritutako diskurtsoa garatu du Euskaltzaindiak. Alde horretatik, beste zenbait arlotan hartu den estrategia bera hautatu du: gogoeta feministatik genero sistema hori auzitan jarri denean, naturalizazioaren diskurtsoa indartu egin da –hau da, gizon eta emakumeen arteko harreman desigualak batzuen eta besteen berezko ezaugarrietan oinarritzea–, eta horretarako zientzia eta ikerketaren –bereziki biologia eta osasun zientziak– diskurtsoa baliatu da. Euskaltzaindiak izenen sexuaren arabera bereizketa ikerketa linguistikoen bidez euskararen berezkotasunean oinarritzea bat dator denboran euskararen erabilera sexista kuestionatzen duten diskurtsoak ugaritzearekin. Funtsean, hizkuntza ideologia bat eratu du Euskaltzaindiak joera horri erantzuteko, hizkuntzari buruzko irudikapen bat, zeinaren arabera, euskararen senean baitago egungo genero ideologiaren garraiatzaile izatea.

Nolanahi ere, horrek ez du esanahi Euskaltzaindia bereziki erakunde kontserbadorea denik genero auzietan⁹, baizik eta jendartean nagusi diren ideia eta balioen ispilu dela, baita auzi honetan ere, gainerako erakunde gehienak bezala. Euskaltzaindia jendartearekin elkarrekintzan aritzen da, eta, adibidez, izendegia egiterakoan gizon eta emakume izenak bereizteko ibilitako irizpideetako bat izan da zalantzazko kasuetan aztertzea izen hori dutenen artean gizonak edo emakumeak diren gehiago. Beraz, praktika soziala ere aintzat hartu du Euskaltzaindiak, eta, ondorioz, hein batean, praktika sozial nagusia islatzen du. Halaber, praktika sozialean

joera nagusi-nagusia da umearentzako izena erabakitzerakoan sexuaren araberako bereizketa egitea, hau da, izen bat erabakitzea mutila izango bada, beste bat neska badator.

Hala ere, egungo genero ideologia gero eta gehiago auzitan jartzen den heinean, gero eta gehiago dira jendartean praktika disidenteak, esaterako, bereizketaren kuestionamendua eta izen mistoen aldeko jarrera. Iruditzen zait Euskaltzaindiak irekitasunez hartu eta aztertu beharko lituzkeela proposamen horiek, eta bereziki aintzat hartu beharko lukeela hizkuntza ekintza eta gertakari soziala dela, garaiak, azturek eta pentsamenduek zedarritua. Era berean, kontuan izan beharko lukeela pertsona izenen hau jendarte parekideago baterako bidean auzi garrantzitsua dela, hizkuntza –eta haren baitan izendegia– ideia, balio eta identitateak –besteak beste, genero nortasun ereduak– garraiatzeko tresna nagusietakoa baita. Are, indar performatiboa aintzat harturik, garraiatzeko ez ezik, baita balio eta identitate berri –eta parekideagoak– sortzekoa ere. 🍷

Euskaltzaindiak kontuan izan beharko luke pertsona izenen auzia garrantzitsua dela jendarte parekideago baterako bidean

Oharrak

1. Dokumentatuta dago euskararen komunitateak bazituela antzina pertsona izen propioak –I.-III. mendeetako Akitaniako idazkuntan edo Erdi Aroko monastegietako dokumentuetan agertu dira–. Baina Trentoko Kontzilioan hartutako erabakiek –funtsean, izen katolikoak inposatzea– eta euskara boteretik kanpo baztertutako hizkuntza iza-teak desagerrarazi zituzten. XIX. mende amaieran sortzen da, Sabi-no Aranak abian jarritako abertzaletasun modernoaren proiektuaren baitan, euskaratik eta euskalduntasunaren garaiko iruditeriatik izen-degi propioa sortzeko ekimena. Hain justu, Arana bera da egilea, eta bere gain hartzen duen aurreneko zereginetako bat da. Hasieratik izan zen debekuen jomuga, baina jazarpenak frankismoan jo zuen goia. Joan den mendeko 60ko hamarkadako euskal pizkundean, izen-degia da berriro lehenetsutako lanetako bat. Bigarren saio horretan Euskaltzaindiak hartu zuen bere gain apailatzeko ardura nagusia. Galarazpen eta oztopoak asko izan ziren aldi horretan ere. Egun euskal izendegiko izenak dira Euskal Herrian erabilienak, Ipar Euskal Herrian joera hori Hegoaldean baino dezente txikiagoa bada ere.
2. Hala nola, Izaro, Iraitz, Amets, Amaiur, Aratz...
3. Artikulu honetan jaso dudana tesina eta tesi proiektu zabalago baten zati bat da. Egitasmo horren helburua da euskal izendegiaren bidez nolako harremana duten gurean nazio eta genero identitateek; edo euskal abertzaletasunak nolako genero nortasun eta ereduak proposatzen dituen. Halaber, euskal izendegiak antroponimian eragin duen ‘iraultza’ jendarteko balio aldaketa sakonagoen ispilu ote den.
4. Hainbat ikertzaile lanak proposatu du generoa bera ez ezik sexua, gaur egun hain ebidentea zaigun sexu binarismoa, gertakari naturala baino eraikuntza soziala dela. Thomas W. Laqueur estatubatuar historialariaren lana oso interesgarria da, hala nola hain boladan den queer teoriaren ekarpena.
5. 1897an argitaratu zuen Aranak *Ixendegi bizkattarra*. EAJk, berriz, 1910ean plazaratu zuen Aranak Koldobika Elizalderen laguntzaz apailatutako *Deun-ixendegi euzkotarra* –beraz, Arana hil eta gerora–. Izendegi katolikoan finkatzen da erabat Arana-Elizalderen proposamena, haien pentsaerarekin bat eginez.
6. Jose Maria Satrustegi (Arruatzu, 1930 - Iruñea, 2003) antropologo eta euskaltzaina izan zen euskal izendegiaren apailatzailea 70eko hamarkadan, Euskaltzandiaren enkarguz. Lan eskerga egin zuen, eta zabaltasun eta intuizio handiz, mitologiatik, literaturatik, agiri historikoetatik zein toponimiatik jasotako izenekin eta haiei kontzeptu onuragarriak islatzen zituzten hitz arruntak erantsiz osatu zuen izen-

- degi proposamena. Aurreko santutegi katolikoan oinarritutakoarekin alderatuta, erabat iraultzailea.
7. Espainiako legedian jasota dago derrigorrezkoa dela pertsona izenek sexuaren araberako bereizketa egitea. Hain zuzen, hori eta umearentzat iraingarri ez izatea da izenari jartzen zaion muga. Frantzian, aldiz, sexu bereizketa ez da behartzen, lasagoa da legedia zentzu horretan. Nolanahi ere, izenari buruzko azken erabakia epailearena da; baina, euskal izenei dagokiela, Euskaltzaindiari aholkulari eta autoritate izatea aitortzen dio Espainiako Justiziak.
 8. Tesina osatzeko, Mikel Gorrotxategi Euskaltzaindiko Onomastika batzordeko idazkariari sakoneko elkarrizketa egin nion 2009ko abenduaren 12an, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. Elkarrizketa hartako pasarteak dira aurrerantzean SE Gorrotxategi markarekin agertuko ditudanak.
 9. Uste dut badagoela iritzi ildo bat Euskaltzaindia oraindik ere sotane-kin eta jarrera atzerakoienekin lotzen duena. Ez nago batere ados horrekin. Iruditzen zait gainerako jendarte erakundeen paretsukoa dela arlo horretan. Sumatzen dut Euskaltzaindiari buruzko irudikapen horren oinarrian badagoela, gainera, euskarari berari buruzko irudikapen bat: euskara modernitaterik ezarekin lotzeko asmoa. Berriro ere Deborah Cameronengan oinarrituz, euskara gutxiesteko hizkuntza ideologia bat finkatzen dela uste horietan.

Bibliografia

- Alvarez Uria, Amaia: 'Euskara hizkuntza sexista al da?' Erabili.com, 2004.
- Arana Goiri, Sabin: *Egutegi bizkattarra*. Bilbo, 1897.
- Arana Goiri, Sabin; Elizalde, Koldobika: *Deun-ixendegi euzkotarra edo deunen ixenak euzkeratuta ta ixentzat ezarten diran jayetako ixenan euzkerazko ikurpenak*. Bilbo, 1910.
- Azurmendi, Mikel: *Nombrar, embrujar. Para una historia del sometimiento de la cultura oral en el País Vasco*. Alberdania, 1993.
- Baker, Paul: *Sexed Texts. Language, Gender and Sexuality*. Equinox, 2008.
- Barquin, Amelia: *Euskararen erabilera ez sexista*. Gidaliburua. Emakunde, 2008.
- Bidegain, Xarles: *Izendegia*. Elkarlanean, 1999.
- Cameron, Deborah: 'Gender and Language Ideologies'. In Janet Holmes, Miriam Meyerhoff (arg.): *The Handbook of Language and Gender*. Blackwell Publishing, 2003.
- Eckert, Penelope; McConnell-Ginet, Sally: *Language and Gender*. Cambridge University Press, 2003.

- Euskaltzaindia: *Euskal izendegia. Ponte izendegia*. Testuen egileak: Mikel Gorrotxategi eta Patxi Salaberri. Eusko Jaurlaritza, 2001.
- García, Mikel: 'Alabak ezin Amets izan eta semea ezin Izar deitu'. *Argia*, 2010-10-28.
- Gorrotxategi Nieto, Mikel: 'Evolución del nombre de pila en el País Vasco peninsular'. *Fontes Linguae Vasconum* 83, 2000, 151-168.
- Gorrotxategi Nieto, Mikel: 'Euskal izendegia gauzatzera erabilitako irizpideak'. In Euskaltzaindia 2001.
- Gorrotxategi Nieto, Mikel: 'Errepublikara garaiko izenak eta 1939ko dekretua'. *Fontes Linguae Vasconum* 102, 2006, 321-352.
- Hoyos, Mikel: *Euskal izenak*. Xepelar Kulturdenda, 1998.
- Ihitzia Sainz, Urtzi: *Euskal izendegi bateratua*. ENA elkarte. 1999.
- Iñigo, Andres; Salaberri, Patxi: 'Euskaraz femeninoak egiteko izan diren bideez'. *Euskera* 42, 1997, 257-270.
- Juanena, Agurtzane: 'Hizkuntza seximoa eta euskara'. *Jakin* 65, 1991, 97-110.
- Knörr, Henrike: 'Hitzaurrea'. In Euskaltzaindia 2001.
- Knörr, Henrike; Iñigo, Andres: 'Izendegia. Diccionario de nombres vascos. Dictionnaire de prénoms basques'. *Euskera* 44, 1999, 1.207-1.210.
- Lagarde, Marcela: 'El castellano, una lengua de caballeros'. In *Mujeres en red* (www.nodo50.org/mujeresred/marcela_lagarde-elcastellano.html).
- Leroy, Sarah: 'Les prénoms ont été changés. Pseudonymisation médiatique et production de sens des prénoms'. In *Noms propres, dynamiques identitaires et sociolinguistiques*. Cahiers de sociolinguistique 11. Presses Universitaires de Rennes, 2006.
- Levi-Strauss, Claude: *Pentsaera basatia*. Gaiak, 2005. Jatorrizkoa: 1967.
- Lledó Cunill, Eulàlia: *Guía del lenguaje para el ámbito del deporte*. Ema-kunde, 2009.
- Lopez Anton, Jose Javier: 'El debate sobre el izendegi sabiniano. Una visión retrospectiva de la cultura vasca en 1907'. *Sancho el Sabio. Revista de cultura e investigación vasca* 6, 1996, 137-154.
- Satruestegi, Jose Maria: 'Giza emakumeen izendegia'. *Euskera* 18, 1973, 210-214.
- Satruestegi, Jose Maria: "Euskal izendegiak" egindako bidea. *Euskera* 44, 1999, 591-598.
- Satruestegi, Jose Maria: 'Pertsona izenen historia'. In Euskaltzaindia 2001.
- Uriarte Astarloa, Jose Mari: *Pablo Pedro Astarloa (1752-1806)*. Biografia. Durangoko Arte eta Historia Museoa, 2002.

Euskal Herriko animazio esperimentalaren bidezidorrak: Begoña Vicario, Isabel Herguera eta Izibene Oñederra

Ainhoa Fernandez de Arroyabe

*EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate
Saileko irakaslea*

Iñaki Lazkano

EHUko Kazetaritza II Saileko irakaslea

Nekane E. Zubiaur

*EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate
Saileko irakaslea*

Animazio esperimentalak, sormen artistikoa den heinean, ikus-entzunezko ekoizpen prozesuaren logika, helburu eta baldintzapenetatik at dago¹. Lan esperimentalek ez dute etekin ekonomikorik lortu behar edota publiko jakin baten desioei zertan erantzun.

Are gehiago, ikus-entzunezko lengoaiaren arau eta kodeak askatasun osoz eraldatu ditzakete egilearen barne-eragin eta adierazteko grina abiapuntutzat hartuta. Lanen iraupea laburra den arren, esperimentazioaren testuak formalki gainontzeko animazio generoenak baino aberatsagoak dira. Izan ere, bilaketa artistikoan ohiko animazio teknikak eta teknika berriztatzaileak uztartzen dituztelako: marrazki bizidunak, hareaz egindako animazioa, argazki animazioa, marraztutako pelikula, beiran egindako ilustrazioak,

ehundura ezberdinekin osatutako formen muntaketak edota ebakigarriekin sortutako animazioak, besteak beste. Era berean, ezin dugu ahanzi animazio esperimentalara garatu ahal izateko ezinbestean hiru baldintza egon behar direla: erreferentziatzko artista bisualen presentzia, sormena suspertzen duten eskolak edota lanak nazioartean zein tokiko zirkuituetan zabaltzeko bitartekoak izatea.

Euskal Herrian animazio genero honen bilakaerak 90eko hamarkadan Begoña Vicario eta Isabel Herguera artista aitzindarien ibilbide profesionalarekin bat egiten du. Biek ala biek, Arte Ederretako lizentziatura amaitu ondoren, animazioa ikasteko goi mailako eskoletara jo zuten. Moskuko PIOT ekoiztetxean aritu zen Vicario, eta Herguerak *Fulbright* bekari esker CALARTSen (*California Institute of the Arts*) animazio masterra egin zuen. Eskarmentu eta izen on handiko ikusizko artistak dira biak.

Geroztik ere (1993), *Hara-Hona* (1994) eta *Zureganako grina* (1996) film laburrak Gasteizko Diseinu Zentroaren bidez bideratu ondoren, ekoiztetxe propioa sortu eta *Pregunta por mí* (1996) zuzendu zuen Begoña Vicariok. Pelikulak Animaziozko Film Labur Onenaren Goya Saria irabazi zuen 1997. urtean. *Haragia* (1999) da bere azken lana; artistak, arrazoi pertsonalak direla medio, sortzaile profesionalaren bidea uztea erabaki zuen. *Pregunta por mí* eta *Haragia* Euskadiko Filmatagia Fundazioak kudeatzen duen Kimuak egitasmoaren katalogoetan aukeratu zituzten, eta horri esker munduko zinema zein ikus-entzunezko jaialdi esanguratsuenetan izan dira ikusgai eta bidean hainbat sari ere eskuratu dituzte.

Isabel Herguerak, bere aldetik, Los Angelesko animazio estudioetan lan egin eta 1994. urtean Satinder Singhekin batera Loko Pictures ekoiztetxea sortu zuen. Aldaberatasun handiko artista oparoa da: *Baquine* (1992) hareaz egindako animazioa da; *Spain loves you* (1988) eta *Los muertitos* (1994) ebakigarriak erabilia egin zituen; *Safari* (1988) eta *Cante de ida y vuelta* (1989) beira gainean pintatutako animazioak dira; *Ámár* (2010) eta *La gallina ciega* (2005) marrazki bizidunak

dira; eta *Bajo la almohada* (2012) azken lanean animazioa eta *haurren marrazkien* ebakigarrien collagea uztartzen da. Azken hiru film labur horiek Kimuak egitasmoaren parte dira, eta *La gallina ciega* 2006. urtean Animaziozko Film Labur Onenaren Goya sarirako izendatu zuten.

Bi emakumezko artista horiek, eskarmentu handia erdietsi ondoren, gurera bueltatu eta animazio esperimentalaren garatzeko ezinbestekoak izan diren bi erakundetan lan egiten dute: animazio irakaslea da Vicario Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatean, eta Isabel Herguerak, 2005. urtetik, Ahmedabad-eko (India) National Institute of Design-eko irakasle lana Donostiako Artelekuko Mugimenduzko Irudien Laborategiaren koordinazioarekin uztartzen du. Horrezaz gain, 2002tik 2011ra *Animac* –Kataluniako Animazio Zinemaren Nazioarteko Erakusketa– zuzendu zuen. Nazioarteko eskola zein profesionalen sare nagusiarekin harremanetan dagoen sortzailea da. Hori guztia kontuan hartuta, egun ukalezina da animazio esperimentalaren erroak indartsuak direla Euskal Herrian: Vicarioren tailerra animazio esperimentaleko artista gazteen harrobi da, eta Herguerak zuzendutako ikastaroetan sortzaile hasiberrien urratsak sendotzen dira. Horrekin batera, Kimuak egitasmoa, Artelekuk antolatutako mintegiak eta bekak edota Euskal Herriko museo eta galeriak sortzaile gazteen lanak bertan zein munduan barna zabaltzeko bideak dira.

Bi joera arras ezberdinei eman die bidea generoak: borondate narratiboa duen ildoak eta muturreko adierazpen artistikoa aldarrikatzen duen bidea

Animazio esperimentalaren korranteak

90eko hamarkadan jaio arren, epe laburrean elkarren artean arras ezberdinak diren bi joerei bidea eman die generoak:

borondate narratiboa duen ildo eta muturreko adierazpen artistikoa aldarrikatzen duen bidea, hain zuzen ere. Vicariok eta Herguerak lehenengoaren oinarriak finkatu zituzten: esperimentazioak, sormen artistikoaren askatasun eta grinari erantzunez, formalki apurtzailea eta iradokitzailea den testua garatzeko aukera ematen duen heinean, istorio bat kontatu behar du, hots, narratiboa izan behar du. Helburu hori lortzeko, narratzaile orojakileaz baliatzen dira bi artistak. Ikuslea kontakizunean gidatuz, figura horren *off* ahotsak formalki ulergaitza den testuaren nondik norakoak azaltzen ditu. Baliabide horri esker, soegileak ez du piezaren esanahiaren gaineko hausnarketarik egin behar, eta artelanarekin atsegin hartzeko aske da bestelako ardurarik gabe.

Animazio korronte horretan narrazioa formaren mesedetan dago, baina horrek ez du esan nahi film labur horien edukia pasadizo hutsa denik. Are gutxiago, bi artista horien lanek eguneroko errealitatearekin zuzenki lotutako gai gordinak plazaratzen dituzte. Vicario talde-arazoez arduratzen da: *Pregunta por mí*-k norbaitek gorputz organoak kenduko dizkiolako beldur den legez kanpoko etorkin baten istorio gordina kontatzen du; eta *Haragia*-k, berriz, hobi komun batean lurperatutako hilotzen etsimenduaren berri ematen du. Herguerak, aldiz, gizakion ezintasun edota gaixotasun fisiko zein mentalei buruzko gaiak hobesten ditu. *La gallina ciega* laburrean txakurra galdu duen itsuaren abenturak kontatzen dira; *Ámár*-en, berriz, protagonista eskizofrenikoa da; eta *Bajo la almohada*-k, azkenik, hies gaitzak jota dauden haurren bizitzari erreparatzen dio. Jorratutako gaiak eta garatutako estilo bisualak ezberdinak izan arren, ezin da ukatu animazio experimentalaren adar hau Euskal Herriko zinema sozialaren parte dela.

Muturreko adierazpena edo sormen hutsezko animazioa, bestalde, abangoardiako arte garaikidearen esparruan sustraituta dago; arte kontzeptualaren eremuan, alegia. Korronte horrek piezaren balio artistiko soila aldarrikatzen du, ez dago argitu edota igorri behar den inolako kontakizun edo mezurik.

Artistaren barne-grina eta esperientzia estetikoaren ondorioz sortutako ehundurak ikuslearen baitan emozioak eragitea biltzen du. Ildo honen jarraitzaileak Vicario eta Hergueraren magalean hezitako artista gazteak dira. Mudantza aberasgarri horrek bi aitzindariak hurrengo belaunaldiari egin dioten ezagutzaren transferentziaren bikaina erakusten du: lanabes tekniko zein estetikoak eskaini dizkiete, baina batez ere euren kabuz animazioaz hausnartu eta sortzeko askatasun osoa.

Lotura horren lekuko Izibene Oñederra korronte abangoardistaren ordezkariaren *Hezurbeltzak, una fosa común* (2008) eta *Berbaoc* (2008) film laburrak dira. Lehenengoa Vicarioren eskoletan jaio zen, eta bigarrena Artelekuko Laborategitik eratorritako talde lana da: Jose Belmonte, Izibene Oñederra, Mercedes Sanchez-Agustino, Gustavo Diez eta Irati Fernandez artista gazteena. Xabier Erkiziak Santiago Irigoyen musikariari egindako elkarrizketaren konposaketan oinarritzen da *Berbaoc*. Konposizioa erabat abstraktua da, inongo zentzurik ez duten soinuek kolpe emozional gisa funtzionatzen dute. Artista bakoitzaren pieza laburrak soinu bandan txertatzen diren estilo eta izaera formal ezberdina duten atalburuak dira. Surrealisten erara eraikitako *cadavre exquis* honetan ez dago narraziorik. Aitzitik, animazioaren helburuak zirrara sortu eta gozamen estetikoa eragitea dira.

Dударик gabe, Begoña Vicario, Isabel Herguera eta Izibene Oñederraren arteko harremana animazio esperimentalak Euskal Herrian izan duen bilakaera ulertzeko giltzarri da. Baina horrezaz gain, badago elkarren artean partekatzen duten beste ezaugarri azpimarragarri bat: hirurak emakumezkoak dira. Ezin dugu ahortzi zineman emakumezko zuzendariak %3ra heltzen ez badira ere, animazio esperimentalean zuzendarien ia gehiengoa emakumezkoak direla. Begoña Vicarioren ustez, fenomeno animazioari datxekion hiru arrazoigatik gertatzen da: adierazpide horrek bakardadean lan egiteko aukera ematen dio emakumezkoari, ez du ikus-entzunezko ekoizpenetan gizonezkoen osatutako talde-lanen dinamika edo presiorik jasan behar; sormenerako

beharrizan teknikoak ez dira konplexuak eta lan denbora antolatzeko askatasun osoa ematen diote emakumezko sortzaileari; eta, azkenik, sormen prozesuaren jaun eta jabe den emakumeak interesgarri zaizkion gaiei buruzko kontakizunei bidea emateko askatasuna du.

Begoña Vicario, maisua eta erreferentea

Artistak azaltzen duen moduan, bere pelikulak esperientzia pertsonaletatik sortzen dira.

Prozesua beti berdina da, bizipen bat dut eta horrek barnekoa astintzen dit eta telebista edota egunkarietan niri gertatutakoa-rekin lotura duten estimuluak aurkitzen ditut... Horrek gaiaren unibertsaltasuna ikusteko aukera ematen dit, ez da soilik niri gertatu zaidan zerbait, besteekin partekatu daitekeen zerbait da, orokorra, unibertzala. Bi atal horiek, bata oso subjektiboa eta bestea objektiboa, gaia gogotsu lantzera naramate. Azken emaitzan gai orokor bati buruz ari naizela ematen du, baina errealtatean niri buruz ari naiz. Nire pelikulek kutsu soziala dutela ematen du, baina inoiz ez dut ezer salatzeko asmorik izan, ez baitut uste ezertarako balio duenik. Nire bizipenei buruz hitz egitea da asmoa.

Baina, inkontzienteki bada ere, artistak oso gogorrak diren bidegabekeria sozialak zuzen eta gordin aurkezten ditu bere lanetan. Horren erakusle dira *Pregunta por mí* eta *Haragia*, organo-trafikoari eta hobi komunei buruz hitz egiten duten film laburrak. Batean zein bestean, emakume baten *off* ahotsak bizi izandako istorio izugarria lehen pertsonan kontatzen du. Narratzaile orojakilea bidegabekeria baten biktima eta lekukoa izan da. «Off ahotsak enpatia lortzeko aukera ematen du, sufritzen duen pertsonaren lekuan kokatzen zaitu. Filma ulergarria izateko baliabidea da, besterik ez», dio Vicariok. Horren harira, ukaezina da barne fokalizazioari esker esperimentazio formal iraultzailearen indar dramatikoa areagotzen dela nabarmenki. Izan ere, begiralearen arreta istorio ilunaren forma iraultzaile eta doinu artegatuetan ardatzen da. Hala, artistaren sormen prozesuak berezkoa duen egoneza bera eragin nahi du obrak ikusleengan.

Pregunta por mí hondarrez egindako animazioak legez kanpoko emakume etorkin baten amesgaizto estugarria kontaktzen du:

Europako Ekialdetik zetozen pertsonekin harreman ugari nituen garaian jaio zen filma. Lotura estuak sortu eta organoen trafikoa bezalako arazo gordina dutela ohartzen zara. Garai hartan ere organoen trafikoa ikertzen ari zen kazetari bat hil zuten Mallorcan.

Emakumearen mahumetan behin eta berriro errepikatzen den obsesioa aditzera ematen dute irudiek: norbaitek erritu ilun batean bihotza kentzen dio beste norbaiti. Biktima bera izan daitekeela da protagonistaren susmo lazgarria. Etxetik urrun eta inori laguntza eskatzeko aukerarik gabe, sorterrian bizi den lagun bati sorospen mezu itogarria helarazten ahalegintzen da. Tamalez, ez dago eskutitza hartzailearengana helduko den bermerik. Hartara, ikuslea kontakizunean esekita geratzen da, inoiz helduko ez den erantzunaren esperoan harrapatuta dago bere arreta.

'Pregunta por mí' hondarrez egindako animazioak legez kanpoko emakume etorkin baten amesgaizto estugarria kontaktzen du

Egitura narratiboak emakumearen bi lokamutsak elkarren segidan jartzen ditu, eta bietan errepikatzen diren beldur obsesiboak adierazten dituzten lau motiboak agertzen dira: gorputza, orbaina, erraiak ateratzen dituen eskua eta bihotza. Beraien arteko harremana metonimikoa da. Hondarrezko gorputzak organoaren falta adierazten duen hutsune zuria du beti, eta, beraz, bortizki erauzi den bihotzaren ideia azpimarratzen da. Ebakia edo orbaina, bestetik, gorputzean edota harean barrena zabaltzen den zerrenda zuria da; tarteak atzapar harraparria helduko den bidea erakusten du.

Nolanahi ere, orbainaren motiboak bestelako balio simbolikoa du animazio honetan: munduko iparraldean eta hegoaldean bizi diren pertsonen arteko muga odoltsuaren

metafora sortuz, filmaren amaieran ebakiondoa arantzadun alanbre bihurtzen da. Azkenik, eskuaren motiboa irudikapen positibo eta negatiboarekin azaltzen da behin eta berriro. Batzuetan, harearen gainean irrist egiten duen ingerada zuri eta fin baten forma du; orduan planoan sartu eta hareaz osatutako borobila, bihotza, ziztu bizian irensten du. Beste batzuetan, hareazko mihi zurrupatzailea da. Azkeneko elementua, bihotza, bi forma ezberdinez irudikatzen da: kasu batean, hareak organoaren soslaia hondo zuriaren gainean marrazten du, eta, bestean, hondarrezko gorputzaren barranean dagoen zirkulu zuriak bihotzak hartzen zuen lekua erakusten du. Hori bai, bietan taupaden soinu metalikoaren arabera tamainaz aldatzen ari den forma du bihotzak. Baina filmaren hasieratik txoriaren motiboarekin lotuta dago: bizitzaren hotsa adierazten duen organoak bezala, hegoak bortizki mugitzen ditu hegaztiak. Bi irudi horien arteko harreman sinbolikoak protagonista asasinatua izateko beldurra adierazten du. Taupada eta hegoen mugimenduek estutasuna plazaratzen duten heinean, ihes egiteko beharra eta laguntza eske darabilen oihu isilaren proiektzioa ere dira.

Animazio honen hotsak soinuaren irudikapen naturalistatik zeharo urruntzen dira; aitzineko erritualak laguntzen duen atzerantz erreproduzitutako musika, bihotzaren mugimenduarekin batera entzuten den metalezko burrunba edota leundutako txoriaren hegazkada zoroaren oihartzuna horren adibide argiak dira. Soinu horiekin batera metatzen diren hondarrezko imajina aldakorrek artegatasun eta egoenezin sentimendua eragiten dute ikuslearengan.

Orokorrean, animazioaren imajinak gorputz atalak edota objektuak erakusten dituzten xehetasun planoak dira. Are gehiago, istorioari amaiera ematen dion alanbre-hesiaren irudiaren salbuespena alde batera utzita, ez dago plano orokorrik film laburrean. Baina, dudarik gabe, testuaren ezaugarri nabarmenena bere formen etengabeko mugimendua eta izaera aldakorra da. Aipatu motiboak elkarren artean nahastu eta itxuraz aldatzen dira hasieratik amaierara arte

metamorfosia nagusi den animazio honetan. Horrekin lotuta, itxura bera positiboan edota negatiboan irudikatzeak, muntaketaren erritmo biziak eta irudien arteko iraganbide arinak testuaren dinamikotasuna areagotzen dute.

Bestetik, *Haragia*-n hobi komun ezezagunetan lurperatutako pertsona desagertuen gorpuen samina adierazten du Vicariok. Oraingoan ere narratzaile orojakile protagonista emakumezkoa da, hobiratutako hilotz bat; bere *off* ahotsak urtetako sufrimenduaren testigantza ematen du lehen pertsonan eta euskaraz. Heriotza bortitza eta bidegabea pairatzeaz gain, bakarrik utzita izatearen betikotasunaren kondena erantsia jasan behar dute lurperatuek. Hilotzik gabe ez dago heriotzarik, ez dago familiarekin agurtzeko aukerarik. Artistak, gaia lantzeko tenorean, oso gogoan izan zuen film laburra sortu zueneko testuingurua:

Nire aita bat-batean hil zen. Garai hartan Argentinako hobi komunei buruzko dokumentalak ikusi nituen, memoria historiakoari buruzko ikerketak bultzatzen hasi ziren herrialde hartan. Lasa eta Zabalaren hezurak ekarri zituzten eta familia hilerrian jipoitu zuten sasoia zen hura. Agur esateko aukerarik izan ez duten sufrimendua ulertu eta baloratzea zen nire kezka.

Biraderaren soinu mekanikoaren erritmoan proiektatzen diren Super 8 formatuko familia-pelikulen irudiek hasiera ematen diote filmari: uraz gozatzen ari den jaioberriaren bainuaren ondoren azaltzen diren eszena igarokorretan, neska eta mutikoak urarekin pozik jolasean dabilta; azkenik, proiektorearen triki-trakarekin batera bizkarretik helduta paseatzen ari den bikotearen irudiarekin amaitzen da filma. Gizonak begirada kamerarantz zuzendu, agurtu, irri egin eta bere bidea jarraitzeko buelta ematen du.

Hasierako film zati horrek André Bazinek definitutako argazkiaren eta oro har zinemaren imajina filmikoaren izaera ontologikoari erreparatzen dio: irudi horiek zinemaren metafora dira; pelikulak bizidunen mamu-itzalak betiereko bihurtzen ditu. Oroitzapenen antzera, errealitatetik eratorritako irudiak heriotzatik at dagoen unibertso magikoan

harrapatuta daude pelikulan. Zinemak denbora menderatu du, eta, beraz, proiektatzen diren irudien denbora oraina da beti. Sarrerako etxeko filmak hil edo desagertu direnen hilezintasuna agerian uzten du, euren oroitzapena betiko gorde baitu zintak; ahazten ez dutenen betiko sufrimenduaren metafora dira. Atalburu horretan bizirik dirauten mamuak aurkezten zaizkigu, baina hortik aurrera heriotzak animazioa gorpuzten du.

Hilotzek hainbat urtean hobietatik ateratzeko dituzten desio frustratuek eragindako barne asaldura bisualki iradokitzeke, bi baliabide aldizkatzen ditu filmak: argazki animazioa eta *travelling* bertikala. Biluzik dauden gorpuen argazkiak beira baten atzetik atera dira, lurraren zapalkuntza erakusteko haragia azal gardenaren kontra zanpatuta dago. Hartara, hildakoen aurpegiak, ileak eta genitalak azpimarrazten dira. Argiztapenak soilik itxuren atal jakinak erakusten ditu, gainontzekoak iluntasunean dauden bitartean. Eskuak edo oinak elkarrekin korapilatuta edota soka batekin lotuta daude eta pairatutako torturen seinale dira. Sexu zein adin ezberdineko hilotzak daude hobian, hiltzaileek ez dute inolako gupidarik izan.

Gorpuen xehetasunak erakusten dituzten elkarren ondoan jarritako argazkien artean dauden jauziek mugimenduaren antzeko efektua sortzen dute. Zenbait eszenatan, hilotzek euren gorpuren ardatzaren gainean bira egingo balute bezala muntatzen dira imajinak. Irudi horiekin batera, musika eta *off* ahotsaren ondoan arnasaren doinua entzuten da, eta oraindik ere bizirik dauden inpresioa ematen du. Bestetik, *travelling* bertikalari dagokionez, kamerak lur azpitik gainerako ibilbidea erakusten du eta lur azalera heltzen den momentuan fokua istant batez zuzendu eta paisaia argi ikusteko aukera ematen du. Ondoren, lur geruzak zeharkatuz bortizki mugitzen da beherantz hilotzak ehortzita dauden lekura. Gorpuen inpotenziaren metafora da *travelling*-aren joan-etorria. Lur azaletik, sendiarengandik eta lagunengandik gertu dauden arren, ezin dira beraiekin elkartu. Lur

azalean igarotako uneak, berriz, hilotzak aurkituak izateko itxaropen frustratua eta igarotako denboraren pisua erakusten du: instant horietan, landaretzaren aldaketak edota entzun daitezkeen txorien txioak denboraren joanaren lekuko dira. Animazioak aurrera egin ahala, *travelling* bertikala gero eta bizkorragoa den arren, narratzaile orojakilearen hitzek etsipenak dakarren sosegua adierazten dute:

Nire ibilbide honetan jirabiraka beti topatzen ditut ni bezalako asko. Haiek ere, neuk legez, ez dute inork euren hilobia aurkituko duenik espero jada. Aspaldi galdu zuten itxaropena. Gaineko lur birrindua berehala gelditu baitzen belarrez estalita.

Nolanahi ere, animazio honetan gorpuen samina adierazteko baliabiderik indartsuena Gheorghe Motatuk jotzen duen Albert Sardáren *Khana per a violoncele* konposizioaren musika da: biolontxeloaren doinu kirrinkariek hilotzen negarra islatzen dute. Vicariok aitortzen duenez, musikak animazioaren antolamendua baldintzatzen du.

Isabel Herguera, nazioarteko joeren arragoa

Katu apetatsu eta nagusi ezatseginaren erruz, txakurra galtzen duen itsuaren abenturak kontatzen ditu *La gallina ciega*-k. Telefono dei batek hasiera eta amaiera ematen dio istorio zirkular honi. Aparatuaren txirrinak futbol partida ikusten ari den gizonaren pazientzia agortu du. Amorrubiz, telefonoa leihotik botata eta kalean dagoen itsuak hartzen du. Txakurraren laguntzarekin egindako ahalegin ugarietarako, gizonaren etxeraino heltzen da itsua aparatua bueltatzeko asmoz. Baina aztoratuta dagoen pertsonaiak gogo txarrez kalera botatzen du. Txakurra gizon

Katu apetatsu eta nagusi ezatseginaren erruz, txakurra galtzen duen itsuaren abenturak kontatzen ditu 'La gallina ciega'-k

ezatseginaren katuaren atzetik abiatzen da eta itsua abandonatzen du. Zorionez, protagonistak iluntasunaren oztopoei aurre egin eta bere eskuetara erori den makil magikoa aurkituko du: telebistaren antena. Bat-batean makilak eragindako deskarga elektrikoak ikusteko aukera ematen dio. Protagonistaren betaurrekoek telebistaren bidez ematen ari diren partida erakusten dute eta txakurra bertan dago. Itsuak makila astindu eta txakurrarentzat unibertso berri bat sortzen du, katu eta gizonak telebistan ikusten ari diren imajina bera, alegia. Bat-batean telefonoaren txirrinak jo egiten du.

Rhoda Kelloggen ikerketetan definitutako haurren marrazteko eredu eskematikoarekin parekatzen da film labur honen ikusizko estilo minimalista. Are gehiago, Hergueraren diseinuak umeen marrazkiak baino sinpleagoak dira, objektuak ordezkatzeko gutxieneko trazuak erabiltzen baititu. Hiru kolore nagusitzen dira animazio honetan: itsuaren iluntasuna gogorarazten duen hondo beltza eta pertsonaien ingerada definitzen duen trazu urdina edo zuria. Katuaren lerromakurrak salbu, gainontzeko pertsonaien gorpuak angelu zuzenekin irudikatzen dira. Joera minimalista jarraituz, pertsonaia bakoitza harekin lotutako elementu baten bidez definitzen da: itsuaren kasuan betaurrekoak, eta txakur eta katuari dagokienez, irudikatutako begi esanguratsuak. Kolore gorria eta horia puntualki erabiltzen dira: gorriak gizon ezatseginaren amorrua erakusten du eta horiak futbol estadioaren argitasuna. Era berean, eszenatokien diseinuak haurren eskematismoaren bi ezaugarri nagusi ditu: gardentasuna eta ikuspuntu ezberdinen uztarketa. Gardentasunari esker, pareta edota azal baten atzean dagoena erakustea zilegi da: eraikinaren barruko apartamentuan katuarekin batera telebistari begira dagoen gizona ikusten da. Hiriak ikuspuntu ezberdinak batzen ditu: kaleak angelu zenitaletik marraztuta daude eta errepideetatik dabiltzan kotxeak edota polizia soslaiez agertzen dira. Bestetik, ez dago istorioaren jariora azaltzen duen *off* ahotsik, eta pertsonaien arteko elkarrizketak, oso urriak izateaz gain, ulertezinak dira.

Xabier Erkiziak sortutako soinu banda minimalistaren hotsen funtzioa galdu den itsuari bidea erakustea da. Orotara, animazioaren irudi eta soinuen konbinaketaren helburua itsuak sumatzen duen mundua irudikatzea da. Errealitateko objektuak ukimena dela medio ezagutzen dituen formak dira protagonistarentzat, eta soinuaren oihartzunaren bidez euren jatorria ondoriozta dezake. Herguerak egoera hori ikusgai egiteko bi elementu metatzen ditu: objektuen ingeradaren betekara eta lerro zinetikoak. Horrela, itsua iluntasunean galduta dagoenean kolore beltzak imajina osoa hartzen du, eta han-hemenka agertu eta desagertzen diren trazu urdinek pertsonaiak bidean ukitzen dituen objektuen oihartzuna erakusten dute. Era berean, txakurra iluntasunean kokatzeko, irudi beltzaren gainean kliska egiten duten lerro zinetikoaz adierazten du zaunka.

Ámár marrazki bizidunez egindako animazioak Ines artista gaztearen barne eraldaketa dakarren zoroetxean dagoen laguna bisitatzeko hirira egiten duen bueltako bidaia kontatzen du. Kidearen eskizofreniari aurre egin ondoren, metropoliaren gaineko iraganeko begirada itaungarri eta bizia berreskuratzen du. Ekonomia narratiboa eta formala dira animazio honen ezaugarri nagusiak: barne fokalizazioa dela medio, Inesek istorioaren aurrekariak bideratzen ditu eta hasieran zein amaieran bere hitzek narrazioa elikatzen dute. Marrazkien estiloari dagokionez, protagonistaren *flashback*-aren tarteak salbuetsiz, haurren eskematismoaren antzekoa da nagusiki: forma sinpleak, erraz atzematen diren ingeradak, gardentasuna eta ikuspuntu ezberdinen batuera erabiltzen ditu. Alabaina, kolore erabilera eta soinu bandaren antolamendua erabat ezberdinak dira laburraren bi une kontatzeko orduan: Inesen etorrera eta zoroetxean *Ámár*rekin izandako esperientzia.

Hasieran, aipatu protagonistaren saminaren erakusle diren tonu motelak eta soinu banda minimalistak hiriaren ekialdeko unibertso exotikoa estaltzen dute; kamiseta gorriak unibertso tristearen erdigune bihurtzen du neska. Horrela, autoek, motorrek eta bizikletek Ines inguratu eta ziztu

bizian abiatzen diren eszenan, esaterako, mugimenduaren agerpena oso nabaria den arren, Xabier Erkiziak sortutako soinu bandan ez dago hiriaren aktibitatearen erakusle den onomatopeia multzorik. Baina paranoian murgiltzen den bidaia hasi bezain laster, zoroaren ikuspuntu okerra erakus-

Hergueraren azken
lana 'Bajo la almohada'
da, Indiako klinika
batean gaixo dauden
neska-mutikoen
marrazkiekin
egindako animazio
esperimental

teko, errealtatea islatzen duten marrazkien forma eskematikoak desitxuratzen dira. Imajina berean Ines eta eskizofrenia irudikatzen duen emakume baten silueta azaltzen dira. Bat-batean, Ámárren begi gorriek aldaketa bortitza dakarte: zoramenaren figura dantzari limurtzaile bihurtu eta gaixoa erakartzen du. Une horretatik aurrera errealtatea amesgaizto da Inesentzat. Eski-

zofreniaren pasartean, gizonaren irudimena tormentatzen duten izakiak soinu bandaren akorde disonanteen arabera hondo zuriaren gainean eraldatzen diren ingerada eta kolore orban zirriborro biziak dira. Errepikatzen diren motiboak Kali jainkosa, eromena zamalkatzen duen sugea, eskailera eta elefantea dira, gaixoak estazioan Inesekin batera iraganean marrazten zituen objektuen desitxurapenak. Elementu horiek emakumearen bidaia laguntzen presente daude.

Halaber, Inesen oroitzapen zoriotsuak gorpuzten duen *flashback*-aren marrazki estiloak irudikapen naturalistaren ezaugarrietara gerturatzen diren forma landuak ditu, eta soinu banda *sakontasunean* eraikita dago: zarata bakoitzaren indarra dagokion objektuaren edo pertsonaiaren kokapenarekin bat dator. Horren erakusle hasiera batean urrun dauden musikariak erakusten dituen atala da, baina kamera gerturatu eta lehen planora pasatzen diren heinean, danborren hotsek ere soinu bandaren lehen plano hartzen dute. *Travelling* horizontal geldoek Ámárrek koadernoan egindako marrazkien itxura estatikoei mugimendua ematen diete, eta

sarien gorri biziak, behien tonu horiak edota dantzariaren azal urdinak paisaiaren intentsitatea azpimarratzen dute.

Hergueraren azken lana *Bajo la almohada* da, Goako Tivim (India) hiriko Astro-Caritaseko klinikan gaixo dauden hogeitazazpi neska-mutikoen marrazkiekin egindako animazio esperimentalak. Lanak dokumentalaren tankera du, kontakizunaren ildo narratiboa marrazketa saioetan grabatutako haurren testigantzak eta abestiak dira; era berean, gaixoen diseinuak oinarri, ebakigarrien eta *collage*-aren teknika erabiliz ehundura koloretsu eta alaia duen testua eraikitzen da. Gaixotasun larria dutela jakitun diren ume protagonistek mundua ikusteko duten modua, haien amets eta desioak islatzen ditu animazioak. Baina, dokumentaletan ez bezala, ez dago mundu historikoaren edota pertsonaien irudirik; bizi diren ingurunea eta euren buruak aurkezten dituzten erretratuak direla medio ezagutzen ditugu. Diseinuen film laburraren hasieran ikuslea Indian kokatzeko elkarren jarraian azaltzen diren zuri-beltzeko argazkiekin talka egiten dute: ospitaleko unibertsoa bizirik dagoen bitartean, kanpokoa izoztutako mundu hotza da.

Haurren marrazketa eskematikoa nagusi da animazioak tartekatzen dituen bi ataletan: umeen egunerokotasunaren kontaketa eta gaixoen fantasiako narrazioak. Azken horretan oso interesgarria den ezaugarria bereganatzen du testuak: umeak marrazten ari diren bitartean istorioak garatzeko duten modua, alegia. Rhoda Kelloggek umeek marrazkietan irudikapenaren inpultsoen arabera aldatzen den kontakizuna garatzen dutela ikusi zuen; itxierarik ez duen kontakizuna da, istorioek ez dute gertakariak lotzeko kausalitaterik behar eta edozein aldaketa zilegi da unibertso liluragarri horretan. *Bajo la almohada* haur narratzaileen inpultsoen arabera aurrera egiten duen istorio korala da. Hortaz, testuaren formak zein egitura narratiboak umeen hobengabetasuna mantentzen dute. Horren adibide dugu adin horretako haurren marrazteko prozedura ikusgai egiten duen eszena aipagarri bat: bat-batetan etxea itsasontzi bihurtu eta neskatoa hondora eramaten duen atalarena, hain zuzen ere.

Izibene Oñederra, inpultsoen anabasa eremua

Hezurbeltzak, una fosa común artistaren bakarkako animazioaren abiapuntua barne obsesio ilunaren motibo berberak etengabe errepikatzen zituzten Oñederraren marrazki gogorrrak dira. Animazioa eraikitzeko, marrazkiek iradokitzen ziotena jarraitu behar zuen: pertsonaiei gertatzen zitzaiena islatu, errepikatzen ziren motiboen arteko harremana eza-gutu eta diseinuen mugimendua eta horren garapena definitu. Oñederraren diseinuen indarra marrazterakoan duen berezkotasun eta bat-batekotasunean datza: hondo zuriaren gainean inprimatzen diren oso trazu finak dituzten itxura nahaspilatu eta arinak egiten ditu, eta noizean behin tinta orbanak hondoa edota ingeraden gainean erortzen dira.

Animazioaren protagonista gorputzaren zenbait atal moztuta dituen emakumea da, ez du ez besorik ez eta ilerik ere. Itxura androginoa duen gorputz biluztuak tabu diren eraso bortitzak jasaten ditu behin eta berriro istorioan zehar. Animazioan errepikatzen diren motiboez kontatu ezin den tabua iradokitzen dute: figura zentralak eta alboko laukietan agertzen direnek begirada ikuslearengana zuzendu eta isiltzeko keinua egiten diote; letren euriak emakumearen gorputza estali ondoren, baginak letrak iraultzen ditu berriro ere. Tabua animazioaren gai nagusiarekin dago lotua: gorpua moztuta duen emakumeak animalia basati baten, txakur handi baten tankera duen piztiaren sexu eraso zagarra jasaten du. Batzuetan izakiak emakumearen bagina zurruputzen duen mihi luzea du, eta besteetan, berriz, hortzeria zorrotzarekin miazkatzen ditu neskaren genitalak. Baina beti, batean zein bestean, piztiaren eta emakumearen arteko sexu harremana indarkeriaz josita dago. Bortxatu ondoren, emakumearen baginatik gorpuaren barrenera sartzen da animalia. Eraso horien guztien artean azpimarragarriena Mickey Mousek egiten duena da. Marrazki biziduna animazioan agertzen direnen artean emakumearen bortxatzaile bati bortitzena da. Larrua jo ondoren bere sagu

burua emakumearen buruaren lekuan jarri eta neskaren gorputza irensten du.

Hasieran Oñederrak ez zuen soinu bandarik nahi, baina Xabier Erkiziak sortutako pieza erabili zuen: hasieratik amaiera bitartean ziklikoki errepikatzen den mobiolaren soinuak forma eragabeen mugimenduak laguntzen ditu; ikuslearengan urduritasuna eragiteko asmoz, trenaren txistua, trenbidearen triki-traka edota inoiz esan ezin daitezkeen hitzen oihartzunaren hotsak azaltzen dira puntualki hondo horren gainean.

Artearen Historian zehar eta batez ere XIX. mende amaierako pinturan errepikatzen den gai batekin lotu daiteke animazio hau: sexu basakeria, alegia. Biosexismoaren eta pentsamendu korronte misoginoen ikuspegitik, emakumea piztien maila berean dago, batak zein besteak ezin dute natura primitiboaren sena kontrolatu; are gehiago, sexua da izaera irrikatsu horren elementurik adierazgarriena. Pentsamolde misogino horien muturreko eszenetako bat sexu basakeriarena da: emakumea eta animalia larrua bortizki jotzeaz disfrutatzen ari diren irudikapena, alegia. Oñederraren animazioak bortizkeri intentsitate maila ezberdinarekin behin eta berriro errepikatzen diren animalia eta emakume baten arteko sexu harremanak erakusten ditu. Hala eta guztiz ere, artistaren ustez animazioan plazaratzen diren gertaera horiek zalantzakorrak dira. Bere hitzen arabera, «kontaerak badu samurtasun eta maitasun puntu bat, horrek oraindik ere hunkitzen nau».

Edozein kasutan ere, emakumezko pertsonaiaren tratamendua oso gogorra da. Eta ez bakarrik sexu eszena esplizituengatik, baizik eta batez ere bere gorputzaren irudikapenak ondorioztatzen duen norbere burua suntsitzeko joera ikaragarri

Artearen Historian zehar eta batez ere XIX. mende amaieran pinturan errepikatzen den gai batekin lotu daiteke 'Hezurbeltzak, una fosa común' animazioa: sexu basakeria

indartsuagatik. Oñederrak aitortzen duenaren arabera, lan honen atzean ez dago diskurtso kontzienterik. Emakume izateak, noski, protagonistaren tratamendu horretan eragiten du. Bere hitzek adierazten duten moduan:

Badago emakumearen kontrako eraso bat, baina berak ez du ezer egiten, jarrera pasiboa hartzen du. Aldi berean, erasoaren aurrean plazera dago eta horrek ikuslea erabat harritzen duen zerbait da.

Artean interpretazioak subjektibotasunaren arabera sortzen diren moduan, ukaezina da animazioaren forma eta soinuen muntaketa ikuslea hunkitzen duten estimulu kate baten antzera antolatatu direla; lanak barne asaldura pizten du, eta, beraz, nolabait, artistak bere marrazkien aurrean sentitzen zuen ezinegona eragiten du ikuslearengan.

Ondorioak

Animazio esperimentalaren errotuta dago Euskal Herrian. Ibilbide honetan eredu diren bi emakumezko sortzaileen figura ezinbestekoa izan da: Begoña Vicariok, zinema ibilbide profesionala alde batera utzi arren, ezagutzaren igorlearen ezinbesteko funtzioa jokatzen du testuinguru honetan. Isabel Herguerak haurren marrazketa eskematikoaren antzekoa den estilo propioa garatu du, eta bere obran eta Artelekun egiten duen gidaritzari esker artista berrien lanen munduratzeko abiapuntu garrantzitsua da. Izaera sozial eta narratiboaren korrontearen ordezkariak badira ere, ildo berriak sortzeko askatasuna eman diete artista belaunaldi berriei. Halaber, Izibene Oñederrak landutako sormen hutsezko bideak arte kontzeptuala eta animazioa uztartu ditu. Oñederra legez Vicario eta Hergueraren eskoletatik pasako diren gaur eta biharko sortzaileen grinek esperimentazioaren bide berriak zabalduko dituzte. Hori guztia kontuan hartuta, generoak biziraupen hutsa baino etorkizun oparoa bermatuta duela esan daiteke. 🍷

Oharrak

1. Artikulu hau Eusko Ikaskuntzak eskainitako ikerketa beka baten emaitzetatik eratortzen da. Ainhoa Fernandez de Arroyabe eta Nekane E. Zubiaur EHuko 'Mutaciones del Audiovisual Contemporáneo (MAC)' ikerketa taldeko kideak dira.

Bibliografia

- Angulo, Jesús; Rebordinos, José Luis; Santamarina, Antonio. *Breve historia del cortometraje vasco*, Donostia, Euskadiko Filmatagia, 2006.
- Bazin, André. *¿Qué es el cine?*, Madril, Ediciones Rialp, 2004.
- Carmona, Ramón. *Cómo se analiza un texto fílmico*, Madril, Cátedra, 1999.
- De la Rosa, Emilio; Vicario, Begoña. *Euskal animazio-zineari buruzko ikuspegi bat. Esperimentazioa jeneroa denez*, Bilbo, Eusko Jaurlaritza - Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, 1999.
- Herguera, Isabel; Vicario, Begoña. *Mamá, quiero ser artista: entrevistas a mujeres del cine de animación*, Madril, Ocho y Medio, Libros de Cine, 2004.
- Kellogg, Rhoda. *Análisis de la expresión plástica del preescolar*, Madril, Cincel, 1979.

Elkarrizketa sakonak

- 2011ko ekainean Begoña Vicariori egindako elkarrizketa sakona.
- 2012ko abuztuan Isabel Herguerari egindako elkarrizketa sakona.
- 2012ko abuztuan Izibene Oñederrari egindako elkarrizketa sakona.

14ko Gerla, amildegia eta zubi

Eneko Bidegain

Mondragon Unibertsitateko irakaslea eta kazetaria

Mendeurrenak gertakari historikoak gogora ekartzeko baliatu ohi dira, eta hori da Lehen Mundu Gerrarekin (1914-1918) gertatzen ari dena. Ez, ordea, gisa berean, Euskal Herriko alde batean edo bestean. Ipar Euskal Herrian ohi baino ozenago aipatuko dira orduko gertakariak, baina, egia erran, 14ko Gerlaren edo Gerla Handiaren presentzia etengabea izan da orain arte ere, Iparraldeko herritarren memoria kolektiboan.

Hego Euskal Herrian desberdina da gerra harekiko harremana, eta aitortu behar bada ere aurten interes berezia jaritzen ari direla hainbat argitalpen eta komunikabide, funtsean, 100 bezalako zenbaki borobilen ondorio da: 2013 arte, nehor gutxi gogoratzen zen gerra hartaz, zerbait franko lauso bezala zekusatzen, baina Hegoaldeko jendeak aitortzen du oso gutxi dakiela gerra hartaz, oso gutxi irakatsi zaielako, gutxi aipatu delako orain arte. Alabaina, Hego Euskal Herriak ez zuen zuzenean bizi izan gerra hura, eta franko urruneko zerbait bezala sentitu izan du beti. Gauza bera erran liteke Bigarren Mundu Gerraz ere, baina Lehenak ez bezala, Bigarrenak, bederen, presentzia handia izan du zineman eta historia orokorreko orrialdeetan.

Euskal Herrian gerra aipatzen denean, batzuei eta besteei ez zaie gauza bera heldu gogora. Ukaezina da 36ko gerra dela

batez ere gerra hitzarekin lotzen den gertakaria. «Gerrako zauriei begira zaude» gaia jarri zieten behin bertsolariei, Euskal Herriko Txapelketa Nagusiko finalean. Naturaltasun osoz, 36ko gerrari egin zitzaion erreferentzia, baina Ipar Euskal Herriko bertsolari bati gertatu balitzaio gai hura, beharbada beste bat aipatuko zuen, Aljeriakoa, Bigarren Mundu Gerra edo Lehena. Eta Ipar Euskal Herrian, hiru gerra horien artean zauri sakonena utzi zuena, ondorio larrienak izan zituen, duela ehun urte lehertu zen gerra hura zen. Erran daiteke gertakari hura izan dela azken 200 urteetako gertakari historiko nagusia, Ipar Euskal Herriarentzat. Hango jendearentzat 'gerra' ez da 36koa: 14koa da.

Orain arte 'gerra' 36kora mugatzeak eta 14koari agertutako interes eta falta orokorrak agerian uzten du, funtsean, Hegoaldetik zein urrun ikusi izan den Iparraldea. Alta, Ipar Euskal Herriaren eta Hego Euskal Herriaren arteko zenbait desberdintasun sakon ongi ulertzeko ezagutu beharreko gertakari nagusietariko bat da Lehen Mundu Gerra. Ipar Euskal Herriko jendeak gehiago entzun du 36ko gerlaz, batetik, borrokak eta leherketak mendiaren eta ibai edo zubien bestaldean zeudelako (Hendaiatik garbi entzuten zizuten tiroak), bestetik, garai hartan errefuxiatu anitz joan zelako Ipar Euskal Herrira eta han eraiki zutelako familia, eta, azkenik, gerra haren ondorioz indarrean jarri zen diktadurak oihartzuna eta eragina izan zuelako, iraun zuen denbora guztian.

Nahiz eta Euskal Herri osoan aitzakiarik eta mendeurrenik gabe ere jakin behar litzatekeen Lehen Mundu Gerra zer izan zen eta zein ondorio izan zuen Euskal Herriarentzat, zenbaki borobil hau bihur dadila aukera gertakari hartaz gehiago jakin behar dela jabetzeko eta jakintza horren bila joateko.

Nazio kontzientziaren eraikuntza

Ipar Euskal Herriaren nortasun kontzientzian erabakigarria izan zen Lehen Mundu Gerra. Haatik, ez zen faktore bakarra

izan, ez lehena, ez azkena, bai, ordea, garrantzitsuena. Baina gerra hark Ipar Euskal Herriko herritarrak frantses sentiarazteko prozesuan izan zuen eragina ulertzeko, komeni da aitzineko berrogeita hamar urteetako testuingurua azaltzea.

Europa bi bloke nagusitan zatituta zegoen 1914an, herrialde neutralez gain. Ipar Euskal Herriatik begiratuta, etsai nagusiak Alemania eta Frantzia ziren, baina bi herrialde horiek bakoitza bloke handi bateko kide eta lider ziren. Frantziaren lagun nagusiak Erresuma Batua eta Errusia ziren, eta Alemaniarenak Austria-Hungaria eta Otomandar Inperioa. Aliantza horiek aitzineko urte eta hamarkadetan osatu zituzten, baina Frantziaren eta Alemaniaren arteko aiherkundera aspaldikoa zen. Harreman gatazkatsu hartako azken kapitulu odoltsua 1870ean izan zen, Frantziaren eta Prusiaren arteko gerran.

Frantziak umiliazio gisa bizi izan zuen gerra hura galtzea, eta harekin batera Alsazia eta Lorrena eskualdeak Alemaniaren esku uztea. Eta gerra hura galdu zuenetik obsesio bihurtu zitzaion Alemaniaren aurkako hurrengo gerra irabaztea, eta Alsazia eta Lorrena berreskuratzea, ohoreaz gain. 1870 eta 1914 arteko urteetan, erregulariki zetorren mahai gainera Alemaniaren aurkako gerraren aukera.

Giro hark Ipar Euskal Herrian ere izan zuen bere eragina. Hasteko, Ipar Euskal Herriko hainbatek parte hartu zuten 1870eko gerran, eta 84 lagun hil ziren. Gerra hartan parte hartu zuen euskaldun ezagun bat aipatzearen, Jean-Baptiste Elizanburu kantu-egile saratarraz mintzatu behar da: armadako kapitaina zen, eta gerrako azken hilabeteak preso igaro zituen, Alemanian. *Ikusten duzu goizean bertso sortaren egileak Frantziarenganako atxikimendua ere agertu*

Ipar Euskal Herriaren nortasun kontzientzian erabakigarria izan zen Lehen Mundu Gerra. Ez zen faktore bakarra izan, ez lehena, ez azkena, bai, ordea, garrantzitsuena

zuen beste sorta batzuetan, garai hartako Iparraldeko iritzi zabaltzaileen erakusgarri:

Nola guk erran egun, Franzia.
Gu hire haurren alegantzia?
Ama ginian hitan heria
Etsaiek hiltzat utzia;
Hek xurgaturik odol guzia
Apal hindagon eroria;
Xutitu bait haiz orai, Herria,
Biba! Biba! Franzia!

Urte guti du, gau ilhun batez,
Lo zagolarik bere ohatzean,
Arrano bati lotu zirela
Berrehun bele batean.
Bentzutu zuten; ezin atxiki
Hoinbertze etsai beltzen artean.
Hegal bat ere kendurik utzi...
Halare dabil airean.

Frantziak ederki erabili zuen Alsazia eta Lorrenaren kasua, bere herritarren artean Frantzia zaurituarenganako pena, mendekatzeko gogoa eta Frantziarenganako maitasuna errotzeko. Estatu-nazio handiak sendotu ziren garaian izan zen hori, nazionalismoen iratzartzearen garaian. Prusiak gerra irabazi ondoan, Alemaniako inperioa sortu zen, Alemania osatu zuten erresuma eta dukerri guztiak estatu berean bilduta. Frantzia, ustez, estatu handi eta batu bat zen, baina XIX. mendeko bigarren zatian, bere lurraldearen baitako herritarren gehiengoak ez zekien frantsesik. Ez zegoen frantses nazio edota aberriarenganako kontzientziarik. Hori aldatu nahi zuten orduko agintariek.

Garai hartan, jendearen gehiengoak baserrian bizi zen, eta estatua eta nazioa urrun gelditzen zitzaizkien. Bazekiten zein herritakoak ziren, herritartasun haren kontzientzia bazeukaten, baina kontzientzia hori ez zihoan handik urrunago. Frantziako Hirugarren Errepublikako buruzagiek irakatsi nahi izan zieten bazutela aberri bat, aberri hura Frantzia zela, eta Frantziako lurraldean zeuden herrialde edota eskualde

guztiak osagai beraren zati zirela. Eskola eta armada erabili zituzten, nagusiki, kontzientzia horren errotzeko. Hasteko, zazpi eginahalak egin zituzten haur guztiek frantsesa ikas zezaten, eta denak eskolatzera derrigortu zutenean bermatu zuten denek frantses poxi bat (gutxienez) jakitea. Horrez gain, haurrei lurraldetasun ikuspuntu bat irakatsi zieten, *Le Tour de France des deux enfants* liburuaren bitartez. Gisa hartan, euskal nortasuna frantses nortasunaren osagarri zela ikasi zuten, bretoia, korsikarra, okzitaniarra eta beste hainbat bezala. «Zenbat eta euskaldunago izan, orduan eta frantses hobeak izango zarete» bezalako mezuekin errotu zuten kontzeptua zen aberri handiaren eta aberri txikiarena: Euskal Herria zen aberri txikia, eta Frantzia, aldiz, handia; Euskal Herria zen Frantziaren baitako aberri bat. Baina aberri nagusia, eta hortzez eta haginez defendatu behar zena, Frantzia zen.

Eta horretara ere prestatu zituzten haurrak eta gazteak. Noizbait Alemaniaren kontra borrokatu beharko zutela ulertarazi zieten, alemanak etsai higuigarri gisa aurkeztuz. Kiroleko ikasgaian egiten zituzten ariketak, errealitatean, ariketa militarrek ziren: haurrak txikitatik prestatzen zituzten tiro egiten ikasten. Neskak, aldiz, psikologikoki prestatzen zituzten alargun izatera edo semea galtzera, baita ere zaurituak artatu behar izatera. 50 urtez, gizartea ezin hobeki prestatu zuten alemanak gorrotatzeko eta gerrara joateko.

Frantses nazioarenganako identifikazioa hiritartzearekin ere zabaldu zen. XIX. mendearen bukaeran gero eta jende gehiagok utzi zuen baserria, hirira bizitzera joateko. Hirira bizitzera joatea askatasun iturri izan zen askorentzat, besteak beste erlijio kontuetan. Baina baita ere frantsesez mintzatzen hasteko arrazoia ere: iruditzen zitzaien handien hizkuntza, zibilizazioaren hizkuntza, frantsesa zela, eta euskara eta gainerako hizkuntza txikiak baserriko hizkuntzak, herrialde garatu gabeen hizkuntzak zirela. Estatu mailako eztabaida politikoek ere oihartzun handiagoa zeukaten hirian, eta beraz hiritartzea ere izan zen frantsesetaren eragileetariko bat.

Batasun sakratua

Frantziako eztabaida politikoak isla zuzena zeukan Ipar Euskal Herrian ere, baita barnealdean ere. Eztabaidak bereziki bereizten zituen errepublikazale laiko eta sutsuak eta monarkiaren aldekoak. Azken horiek ez zuten onartzen, halaber, estatua eta Eliza bereizi zituen legea, 1905ekoa. Polemika handiak zeuden gai haien inguruan; baina Ipar Euskal Herria ez zen eztabaida hartan sartua zen bakarra, Britainian eta baita Frantzia ere (erdialdean nagusiki) kalapita gaitzak bizi izan zituzten. Baina 1914ko agorril hasieran, zatiketa haiek guztiak izoztu ziren.

Alta, 1914ko uztail bukaera ere ez zen liskarrik gabea izan. Hain zuzen, ekainaren 28an Sarajevoko atentatuak (serbiar batek Austria-Hungariako enperadore-gaia erail zuen) Europa krisi diplomatiko eta politiko larrian jarri zuen, Austria-Hungariak Serbiari ultimatuma jarri eta azkenik gerra deklaratzearaino. Aliantzen sistemaren ondorioz, Europako estatu nagusiak elkarren aurka gerran hasi ziren. Errusiak Serbia lagundu nahi zuen eta gerra deklaratu zion Austria-Hungariari. Sua laster hedatu zen, eta agorrilaren 2an

Bakezaleen eta gerra onartzen zutenen arteko tirabirak berehala gelditu ziren, Alemaniak Frantziari gerra deklaratu zionean

Alemaniak Frantziari deklaratu zion gerra, Belgika inbaditu ondoren. Ordurako, Frantziak 18 eta 49 urte arteko gizon guztiak armadara deitu zituen, euskaldunak barne, uztailaren 31n.

Uztail bukaeran gero eta garbiago ageri zen gerra-mehatxu hark bereizi zituen bakezaleak eta gainerakoak, Europako leku desberdinetan. Internazional Sozialistako kideek ez zuten gerrarik nahi, eta Frantziako CGT sindikatua zen jarrera bakezalearen bozeramaile. Euskal Herrian ere nabaritu zen bakearen aldekoen eta gerra onartzen zutenen arteko kalapita. Baionan manifestazio zalapartatsuak

izan ziren, gerraren aitzineko egunetan. Maurice Elosu medikua zen bakezaleen lider, eta antolatu zituzten mitin eta manifestazioek protesta gogorrek eragin zituzten, gerrara joatearen aldekoak zirenen partetik. Haatik, bakezaleen eta gerra onartzen zutenen arteko tirabirak berehala gelditu ziren, Alemaniak Frantziari gerra deklaratu zionean. Denek bat egin zuten Frantziaren alde, eta Frantziako ezkertiar eta bakezaleek ere sozialismoaren gainetik jarri zuten nazioaren defentsa. ‘Batasun sakratua’ deitu zioten garai hari: denek bat egin zuten, Frantzia defendatzeko.

Hego Euskal Herrian urrunagotik bizi izan zuten hori guztia, ez zutelako gerran parte hartzerik izan. Baina Espainian agertu ziren gogoetek izan zuten oihartzunaz gain, Ipar Euskal Herria, Frantzia eta Erresuma Batua geografikoki hurbil izateak interes berezia piztea eragin zuen. Espainian, karlistak nagusiki, Alemaniaren aldekoak ziren; eta, gainera, Frantziari ez zioten barkatzen laikotasunaren hautua egin izana. Espainiako ezkertiarrek, aldiz, Frantziaren, Erresuma Batuaren eta Errusiaren aldekoak ziren. Dena den, gehienek bat egin zuten Espainiak neutro izan behar zuela erratean, nahiz eta horren harira ere ikuspegi kontrajarriak agertu: Espainiak zein hauturekin zuen galtzeko edo irabazteko aukera handiena?

Eusko Alderdi Jeltzaleko gehienak Frantziaren eta Erresuma Batuaren aldekoak ziren, Ramon de la Sota zela horien ordezkari, eta baita ere *Euzkadi* egunkariko arduraduna zen Kirikiño idazlea ere. Alemanen aldekoa zen, ordea, Luis Arana Goiri. Halaber, Resurreccion Maria Azkue ere germanofiloa zen. Dena den, neutraltasunaren aldekoak ziren, oroz gainetik: *Euzkadi* egunkarian garbi azaldu zuten bezala, gerran sartzeak kalte baizik ez ziokeen ekarriko Euskal Herriari; eta, gainera, anaiak elkarren kontra borrokatzea eragin zezakeen, baldin eta Espainia Alemaniaren alde hasi izan balitz gerran. Orogen buru, Hego Euskal Herria gerratik babestu zen, eta euskaldunek ez zuten elkarren aurka gerra egin beharrik izan. Hala ere, Hego eta Ipar Euskal Herriko herri-tarren zori kontrajarriak areagotu zuen destino desberdina.

Sarraskira bidean

Agorrileko lehen astean, 25.000 soldadu pasatu ziren Baionatik, eta agorrilaren 7an 3.000 soldatutik gora joan ziren desfilean, Baionako geltokira, jendearen txaloen erdian. Gerra laburra izanen zela uste zuten denek, eta Frantziak Alemania airez aire errautsiko zuela. Beren herritik sekula atera ez zirenentzat, bidaiatzeko parada izan zen, abentura. Ez zekiten zer zeukaten zain. Lehen bi asteetan ez zuten tiro bakar bat ere jasan; kilometroak eta kilometroak zeharkatu zituzten oinez, baina alemanik ez zuten ikusi. Ekaitzaren aurreko barealdia.

Agorrilaren 20tik aitzina, haizeak bertze zizturik zeukan. Euskaldunak, frantses askorekin batera, Belgikara igorri zituzten, Charleroiko guduan parte hartzera. Euskaldunen gunea Gozée herriaren ingurua izan zen. Irriak sartu zitzaizkien, ohartu zirenean alemanak ezkututik ari zitzaizkiela tiroka eta obus botaka. Sarraskia ikaragarria izan zen. Agorrileko azken astean 266 euskaldun hil ziren. Gerrako lehen hilabete hura izan zen, euskaldunentzat, hilabete odoltsuena.

Alemaniko armadak Frantziakoa egunez egun gibelera igorri zuen, ia-ia Pariseraino. Azken unean lortu zuen Frantziak Paris babestea, Marneko guduari esker, 1914ko irailean. Ondoren, frontea egonkortu zen, eta gerra bukatu arte, posizio gerra izan zuten: Suitzatik Ipar Itsasora arteko marra batek bereizten zituen Alemaniako eta Frantziako armadak. Euskaldun gehienak toki zehatz batean bildu zituzten, Aisnes departamenduan, Craonne herriaren inguruetan, Andereen Bidearen oinetan.

Hilabeteak egon ziren leku estrategiko hartan, lubakietako egonaldiak eta gibel lerroetakoak txandakatuz. Heriotza arriskua etengabea zen, nahiz eta egun asko ez ziren gudu egunak izaten; orduan lasaiago ibiltzen ziren, tarteka bonba bat edo beste gainera erortzen bazitzaien ere. Frontea zaintzarekin batera, lubakietako higiene ezinago txarrean bizi behar zuten: belaunetaraino lohian eta putzuan sarturik igarotzen zituzten egunak, arratoiak eta zorriak zituzten eguneroko lagun, eta

lagunen gorpuak non-nahi usteltzen ari ziren. Haiek guztiek kutsatzen zuten ura edatea zuten aukera bakarra, ur garbirik ez zutenean. Eta ur garbia gutxitan heltzen zitzairen.

Gerrako lehen hilabeteetan euskaldunak elkarrekin egoten ziren, armadako dibisioak geografikoki antolatuta zirelako.

Euskaldun gehienak Baionako 49. Infanteria Errejimentuan zeuden, baina beste euskaldun andana bat bazegoen Paue, Mont-de-Marsan eta 18. Armada Gorputzaren parte ziren lekuetako errejimentuetan. Andereen Bidearen inguruetan, beraz, euskara anitz entzuten zen, kantatzen zuten, fandango batzuk ematen zituzten, musean aritzen ziren edota pilotan. Sorterria

maiz izaten zuten gogoan, baina horrek ez zuen adierazten aberri kontzientziarik. Frantziako edozein soldaduk bezala zeukaten beren sorterria bihotzean: bazterrak, etxeokak, etxeok janaria... horiek ziren Euskal Herriari lotzeko gaiak. Horrek kontzientzia kulturala islatzen bazuen ere, kontzientzia nazionala bestelakoa zuten.

Gerra luzatu ahala, gero eta gutxiago elkartzen ziren euskaldunak: anitz hil ziren, eta errejimentuak jendez hustu ahala, berriz betetzen zituzten, baina berriz betetzerakoan, edozein lekutako soldaduak ekartzen zituzten. Euskaldunak ere beste lekuetako errejimentuetara igorri zituzten. Mendebaldeko fronteko gudu sonatuenean ere parte hartu zuten, hala nola Verduneko guduan, 1916an. «Infernua» zela idatzi zuten orduko euskaldunek. Hara joatea zuzenean heriotzaren atzaparretara joatea zen. 547 euskaldun gutxienez hil ziren hango tiro eta bonben azpian.

Gerrak lau urte eta lau hilabete iraun zuen, eta epe hartan ia 6.000 euskaldun hil ziren, ia denak Ipar Euskal Herrian

Gerrak lau urte iraun zuen, eta epe hartan 6.000 euskaldun hil ziren, ia denak Ipar Euskal Herrian sortuak. Kopurua ikaragarria zen, biztanleen %3 hil baitzen gerra hartan

sortuak. Kopurua ikaragarria zen, Ipar Euskal Herriko biztanleen %3 hil baitzen gerra hartan. Eta hildakoen ia erdia 28 urtez beherakoa zen. Sekulako odol-hustea izan zen komunitate oso batentzat. Zenbait herrik biztanleen %5 baino gehiago galdu zuten, eta Basusarri (Lapurdi) eta Liginagaren (Zuberoa) kasua izan zen lazgarriena, biztanleen %7tik gora ez baitzen bizirik itzuli. Eta horietatik gehienak ez ziren hilik ere itzuli, gerrako lekutan antolatutako hilerrietan ehortzi zituztelako.

Desertoreak ere bai

Batzuk ez ziren hil, gerrara ez zirelako joan. Milaka euskaldun aspaldi joanak ziren etxetik, gehienak emigrazioaren ondorioz. Haiek soldaduskara ere ez ziren joan, eta intsumitu gisa hartuak ziren. Nahiz eta zenbait lagun Ameriketatik itzuli ziren gerran parte hartzeko, gehienak ez ziren agertu gerrara. Baina gerra hasi ondoan, hainbat lagun desertore bihurtu ziren, aukera izan zutenean ez zirelako frontera itzuli. Alabaina, zenbait hilabeteren buruan, soldaduek izan zuten gerra lekutik aste batez etxera itzultzeko baimena, aldizkatuz. Helburua ez zen atsedean ematea bakarrik, herritarren erreproduzioa bultzatzea ere bilatzen zuten agintariek. Euskal Herrira itzuli ziren anitzek, eta bereziki mendialdean bizi zirenek, Nafarroara igarotzea erabaki zuten. Sarraskiaren erdira itzultzeko eta hiltzeko edo gorputz zati bat galtzeko arriskua hartzea baino nahiago izan zuten ihes egin. Datu ikusgarrienak Baigorriko kantonamenduan ziren, Alduden eta Urepelen bereziki. Desertore eta intsumituak gerrara joan behar zuten guztien %81 ziren Urepelen, eta %87 Alduden.

Nafarroatik hurbil bizi zirenentzat erraza zen ihes egitea, etxean baldin baziren. Gainera, anitzek ahaide edo lagunak bazituzten lana eta aterpea lortu ahal izateko, eta bestela itsasoa zeharkatu eta Ameriketara joaten ziren ihesi. Haatik, hautu hark kritikak eragiten zituen Ipar Euskal Herrian berean. Bistan denez, Frantziako estatuko ordezkariak, Mauloko suprefetak eta Paueko prefetak bereziki, guztiz gogor

jo nahi zuten horren kontra, euskaldunei etxean egonaldia egiteko baimena ukatzeraino joanez. Baina apaiz gehienek eta haien ildoko prentsak ere begi txarrez ikusten zuten bazuk desertore izatea.

Desertoreen inguruko eztabaida ez zen politikoa, are gutxiago nazio edo nortasun kontzientziaren ingurukoa. Gerrerara joateari uko egitea ez zen erabaki kolektibo eta politiko baten ondorioa, baizik eta sufrimendutik ihes egiteko erraztasunaz baliatzearena. Koldarrak eta traidoreak izatea leporatzen zieten lekuko prentsako idazleek. *Eskualduna* astekariak desohore gisa bizi zuen euskaldun anitz desertore izatea, eta behin baino gehiagotan adierazi zien mezu bat, ohartaraziz gerrak ziraueno itzultzen baziren, barkatuko zitzaizela, baina ez baziren berriz agertzen, ontasunak kenduko zizkietela. Halaber, salatzen zuten etxean norbait galdu zutenentzat iraina zela desertore joatea, eta horrek auzoen arteko ezinikusiak sortzen zituela. Hori salatuz, astekari hark etengabe azpimarratzen zuen euskaldunen artean anitzez gehiago zirela soldadu eredugarriak, desertoreak baino.

Frantziarekin bat

Le Journal de Saint-Palais, *Eskualduna* edota *Le Courrier de Bayonne* bezalako astekari eta egunkariak osoki bat egin zuten Frantziarekin eta Frantziako armadarekin. *Eskualduna*-n idazten zuten garai hartako Ipar Euskal Herriko idazle nagusiek: Manex Hiriart-Urruti, Jean Saint-Pierre *Anxuberro*, Jean Elizalde *Zerbitzari*, Jean Etxepare eta Jules Moulier *Oxobi*. Frantziar mintzo zirenean, naturaltasun osoz erabiltzen zuten pluraleko lehen pertsona. Haien hitzetan, Frantzia ia beti bihurtzen zen «gu», edo Frantziako armada, «gure armada». Milaka etxetara zabaltzen zen euskarazko astekari girstinoaren mezu ofiziala Frantziaren parte zirela behin eta berriz azpimarratzea zen, beraz. Txanponaren beste aldea zen alemanak izendatzeko erabiltzen zuten hiztegia: abere, otso, salbai, barbaro...

Frantziaren eta Frantziako armadaren sostengatzaile sutsu gisa agertzen ziren astekari hartan idazten zutenak. Haien arabera, Frantzia beti egoera onean zegoen; huts egiteak ez zituzten aitortzen, beti azpimarratzen zituzten Frantziako armadak eta Frantziaren aliatuek egiten zituzten aitzina-menduak. Alemanen balentriak isilpean gelditzen ziren. Beti eman nahi izaten zuten gerra laster bururatuko zelako itxaropena.

Nahiz eta beti berriak alde baikorretik kontatu, ez zituzten heriotzak ukatzen. Euskal Herriko seme edo aita bat hiltzen zenean, aipatzen zuten. Hil guztien berririk ez zuten ematen, anitz zirelako, baina hainbat lagunen heriotzak iragarri zituzten, herrietako kroniketan. Gerran hiltzea izugarri-

Frantziaren eta
Frantziako armadaren
sostengatzaile
sutsu gisa agertzen
ziren 'Eskualduna'
astekarian idazten
zutenak

keria eta tragedia gisa aipatzeko orde, soldaduen sakrifizioa go-raipatzen zuten: beren bizia «herriarentzat» eman zioten. Bistan denez, 'herri' hitz horren giblean gordetzen zena Frantzia zen. Gisa horretan, heroi gisa aurkeztzen zituzten. Haien heriotzari are balio gehiago ematen zioten, erranez bizia «Jainkoari» eskaini ziotela, eta beraz Jainkoaren

barkamen eta esker guztia segurtatua zutela. Familien sufrimendua bera eztitu nahi zuten, aditzera emanez ahaideek nahiago zutela soldadua gerran hil zela jakin, desertore joan zelako ahalkearekin bizi baino. Zaurituak ere gisa berean ohoratzen zituzten, bereziki azpimarratuz gerrara itzultzeko irrikan egoten zirela, aleman gehiago hil ahal izateko.

Euskaldunak soldadu eredugarriak zirela erakutsi nahi zuten, «gizonak» zirela, eta gogor egin zezaketela, iraun zezaketela. Euskal idazle horiei gustatzen zitzaaien euskaldunen ospea aitzindarien artean zabaltzen zenean; soldadu batek gerrako gurutzea eskuratzen zuenean, *Eskualduna*-ko berri-emaileek ohoratzen zuten. Eta harrotzen ziren Jean

Ibarnegarai diputatu garaztarrak Frantziako Legebiltzarrean hitza hartzen zuenean edo Erresuma Batuko prentsan euskaldunak goraiatzten zituztenean.

Monumentuen funtzioa

Lehen Mundu Gerra ez zen izan Frantzia nazio gisa eraikitze-ko gertakari bakarra, ez lehena eta ez azkena. Bai, ordea, nagusia. Frantzia jakobinoak 1789ko Iraultzan zeuzkan erroak, baina nazio gisa eraikitze faseak mende bat baino gehiago iraun zuen. XIX. mende bukaeran indar handia egin zuten Frantziako lurraldean bizi zirenen baitan Frantziarengana-ko atxikimendua errotzeko. Baina ordu arte teorikoki ikasi zutena, 1914tik 1918ra, odolez bizi izan zuten. Frantziaren alde hil ziren, milaka eta milaka frantsesekin batera. Denek herri bera defendatu zuten elkarrekin, denak herri beraren parte gisa joan ziren gerrara, eta denek etsai bera zeukaten.

Hori bera ez bazen aski Frantziarekiko atxikimendua sendotzeko, Frantziako erakundeek neurriak hartu zituzten sakrifizio hori gogorarazteko. Hildako guztiek ‘Mort pour la France’ aipamena eskuratu zuten, eta beraz Euskal Herrian sortutako 5.322 lagunetik gora daude aipamen hori daukatena. Eta horiek ez ahanzteko, herri bakoitzean hilen monumentuak eraiki zituzten, 1919tik goiti.

Hilen monumentuen helburua ez da bakarrik hilak omentzea. Zerbaitegatik eraiki zituzten herrietako plazetan, eliza aitzinean. Horiekin, egunero oroitarazi nahi dute herri bakoitzak zenbat odol isuri zuen Frantziarentzat. Ez zen gauza bera izanen hilen monumentuak gerrako leketan eraiki izan balituzte. Erakutsi nahi zuten soldadu haiek nazio edo aberri batentzat hil zirela, eta nazio edo aberri hura hurbil sentitzeko bidea zen hil haien omenezko monumentuak herriko plazan bertan eraikitzea. Hilen oroitarriak herriko plazan berean ezarriz, herria eta nazioa uztartu nahi zituzten. Monumentuak fisikoki erakusten zuen herri hori frantses nazioaren parte zela. Frantziaren presentzia egunerokoa da

herriko plaza guztietan, *Morts pour la France* hitzen bitartez, Frantziako banderen bitartez eta azaroaren 11ko urteroko ekitaldien bitartez.

Monumentuak eta hilen omenaldiak ez ziren bide bakar-rak izan jendea Frantziarekin lotzeko. Dirua ere bazegoen tartean. Alargunek, umezurtzek eta larriki zaurituek pentsioak jaso zituzten gerratik landa, eta gisa hartan ere lotzen zituzten gehiago Frantziara.

Horrez gain, aldi hartan, garaile gisa bururatu zuten gerra, eta frantsesekin, bretoiekin, okzitaniarrekin, katalanekin edo korsikarrekin batera, garaile atera ziren, denek 'aberri' bera salbatu zuten. Heriotza zerbait heroikoa bezala ikusten zuten, eta sakrifizioa ohore iturri. Mingarriago izanen zitzaizen onartzea behar gabe eta zuzen kontra hil zirela; eztigarriagoa zen pentsatzea garaile gisa eta justiziaren eta 'zibilizazioaren' alde eta 'barbaroen' kontra hil zirela. Eskolak eta armadak hasi zuten lana odolak amaitu zuen: eskolan teoriaz lotu zitzaizkion Frantziari, odolarekin fisikoki sentitu zuten Frantziarekiko lotura.

Zubi eta amildegi

Hego Euskal Herriak ez zuen harreman bera izan Espainiarekin. Hego Euskal Herriko euskaldunek ez zituzten gerrak egin espainiarrekin, katalanekin edo galiziarrekin batera etsai komun baten aurka. Ipar Euskal Herrikoek hiru gerra egin zituzten Alemaniaren aurka 70 urteko epean. Hego Euskal Herrikoek, aldiz, espainiarren kontra egin zuten gerra. Zapaltzailearekiko harreman guztiz desberdina sortzen du horrek.

Lehen Mundu Gerran, gainera, Ipar Euskal Herriak gorriak pairatu zituen garaian, Hego Euskal Herrian negozioa egiteko aukera izan zuten, Bizkaian bereziki. Bizkaiko portuari loturik, hainbat enpresa ederki aberastu ziren, ontziolak oroz gainetik. Etekinak modu esponenzialean igo ziren, gerrak iraun zuen garaian. Aberastu zenetariko bat Ramon de la Sota izan zen. Bitartean, Ipar Euskal Herrian janaria

eta edaria mugatu zizkieten, eta laborantzarako zein lantegiatarako jendea falta zuten.

Nahiz eta desertoreak zubi izan zitezkeen Hego eta Ipar Euskal Herriaren artean, horrek ez zuen hainbesteko eraginik izan etorkizunean. Errealitatea da Ipar Euskal Herria anitzez gehiago jarri zela Frantziara begira. Gainera, Ipar Euskal Herriaren historiako gertakari nagusi hura ez zen gertakari handia izan Hego Euskal Herrian; eta, beraz, garai hura ere ezin izan zuten partekatu historia kolektiboan. Eta Hegoaldeak Iparraldea ulertzeko aukera ere ez zuen izan, gerra haren urruntasunagatik. 🐼

Bibliografia

- Alcalá Galiano, Alvaro. *España ante el conflicto europeo 1914-1915*. s.n., 1916.
- Altzibar, Xabier. «Zazpiak bat gaia XIX. mendean (The zazpiak bat topic in the XIXth century)». In *Antoine d'Abbadie (1897-1997), Congrès international Eusko Ikaskuntza, Ez ohizko kongresua. Eskualtzaindia. XIV biltzarra*, 663-668. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1998.
- Ansoborlo, Jean. *Histoire militaire de Bayonne: 1789-1940*. Baiona: Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1995.
- Audoin-Rouzeau, Stéphane. *A travers leurs journaux: 14-18, les combattants des tranchées*. Paris: Armand Colin, 1986.
- Bascans, Aline, eta Xipri Arbelbide. «Uztaritzeko seroren eskolen hes-tea». In *Elizak eta Estatua bereizteko legea: ondorioak Euskal Herrian (1905-1906)*, 31-37. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2008.
- Becker, Jean-Jacques. *1914. Comment les Français sont entrés dans la guerre*. Paris: Presses de la Fondation Nationale des Sciences Politiques, 1977.
- Bidegain, Eneko. *Gerla Handia, muga sakona*. Donostia: Utriusque Vasconiae, 2009.
- . «Lehen Mundu Gerra 'Eskualduna' astekarian». [Doktorego tesia. Zuz. Charles Videgain, Josu Chueca]. Bordeaux 3; EHU, 2012.
- Bonnefous, Georges, Édouard Bonnefous, eta André Siegfried. *Histoire politique de la Troisième République. L'avant-guerre (1906-1914)*. [Lehen edizioa: 1956]. Paris: Presses Universitaires de France, 1965.
- Cabanel, Patrick. *1905, la séparation des églises et de l'état*. La Crèche: Geste, 2005.
- . *La question nationale au XIXe siècle*. Paris: La Découverte, 1997.
- Caron, Jean-Claude, eta Michel Vernus. *L'Europe au XIXe siècle: des nations aux nationalismes, 1815-1914*. Paris: A. Colin, 1996.
- Castiella, Manuel. *Un siècle à Bayonne: 1900-2000*. Angelu: Atlantica, 2003.
- Cubero, José Ramon. *La grande guerre et l'arrière (1914-1919)*. Pau: Cairn, 2007.
- Darrigrand, Pierre. «La guerre de 1870-1871 à Bayonne et dans les environs». *Revue d'histoire de Bayonne, du Pays-Basque et du bas-Adour* 154 (1999): 255-302.
- Delaunay, Jean-Marc. «1914 - Les Espagnols et la guerre». In *Les Sociétés européennes et la guerre, 1914-1918. Actes du colloque d'Amiens - Nanterre, 8-11 décembre 1988*, Jean-Jacques Becker eta Stéphane Audoin-Rouzeau, 117-132. Nanterre: Publication de l'Université de Nanterre, 1990.

- Díaz Plaja, Fernando. *Francófilos y germanófilos. Los españoles en la guerra europea*. [Lehen edizioa: 1973]. Madril: Alianza, 1981.
- Duby, Georges, eta Armand Wallon. *Histoire de la France rurale. Apogée et crise de la civilisation paysanne: 1789-1914*. Libk. 3. Paris: Le Seuil, 1976.
- Elias, Norbert. *La civilisation des moeurs*. Pierre Kamnitzer-ek itzulia. [Lehen edizioa: 1973]. Paris: Presses Pocket, 2002.
- Fontana, Jacques. *Les catholiques français pendant la Grande Guerre*. Paris: Cerf, 1990.
- Garat, Jacques. «Insoumissions et désertions en France pendant la Grande Guerre: Le cas des cantons basques». [Tesina-memoria, zuz. Jacques Julliard]. EHESS, 1983.
- Garate Ojanguren, Montserrat, eta Javier Martín Rudi. *Cien años de la vida económica de San Sebastián: 1887-1987*. Donostia: Kutxa Fundazio Sozial eta Kulturala, 1995.
- Girardet, Raoul. *Le nationalisme français. Anthologie 1871-1914*. Paris: Seuil, 1983.
- Histoire de Bayonne*. Univers de la France et des pays francophones. Toulouse: Privat, 1991.
- Historique du 49e régiment d'infanterie pendant la guerre 1914-1918*. Nancy: Berger-Levrault, 1919.
- Jourdan, Jean-Paul. «Noms des morts à la guerre ou des suites au Pays Basque et à Bayonne». *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* (2012).
- Kintana, Jurgi. *Intelektuala nazioa eraikitzen: R. M. Azkueren pentsaera eta obra*. Bilbo: Euskaltzaindia, 2008.
- Laharie, Claude. *Les Basses-Pyrénées pendant la guerre 1914-1918*. Pau: Archives départementales des Pyrénées-Atlantiques, 1982.
- Lezcano, Víctor Morales, Gabriel Cardona, eta Jean-Marc Delaunay. *España y la Primera Guerra Mundial*. s.l.: Grupo 16, 1985.
- Meyer, Jacques. *La vie quotidienne des soldats pendant la Grande Guerre*. Paris: Hachette, 1966.
- Montero, Manuel. *La modernización capitalista: ciclos económicos y desarrollo empresarial de Vizcaya entre 1891 y 1936 a través de la Bolsa de Bilbao*. Historia contemporánea 30. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen zerbitzua, 2005.
- Moulin, Annie. *Les paysans dans la société française. De la Révolution à nos jours*. Paris: Seuil, 1988.
- Pèrès, Hubert. «Identité communale, République et communalisation. À propos des monuments aux morts des villages». *Revue française de science politique* 39/5 (1989): 665-682.
- Rocafort, Joël. *Avant oublié: soldats et civils de la côte basque durant la grande guerre*. Biarritz: Atlantica, 1997.

- Roth, François. *La guerre de 1870*. [Lehen edizioa: 1990]. Paris: Fayard, 1993.
- Ruquet, Miquèl. «Désertions et insoumissions sur la frontière des Pyrénées pendant la guerre de 14-18». In *Mémoire et trauma de la Grande Guerre. Bretagne, Catalogne, Corse, Euskadi, Occitanie*, Gwendal Denis, 65-93. Rennes: Rennes 2 Université Haute Bretagne, 2010.
- . «Insoumis et déserteurs pyrénéens de la Grande Guerre. La force des liens transfrontaliers», d. g.
- Saly, Pierre, Alice Gérard, Céline Gervais, eta Marie-Pierre Rey. *Nations et nationalismes en Europe. 1848-1914*. Paris: Armand Colin, 1996.
- Sarramone, Alberto. *Les cousins basques d'Amérique*. Mirentxu Irigoyen-ek itzulia. Biarritz: J&D Editions, 1997.
- Sohier, Anne. «L'enfant et la guerre à l'école primaire: en Bretagne 1871-1914». In *Mémoire et trauma de la Grande Guerre. Bretagne, Catalogne, Corse, Euskadi, Occitanie*, Gwendal Denis, 11-30. Rennes: Rennes 2 Université Haute Bretagne, 2010.
- Thiesse, Anne-Marie. *Ils apprenaient la France: l'exaltation des régions dans le discours patriotique*. Paris: Éditions de la Maison des sciences de l'homme, 1997.
- Weber, Eugen. *La fin des terroirs, la modernisation de la France rurale, 1870-1914*. Antoine Berman eta Bernard Génies-ek itzulia. [Lehen edizioa: 1983]. Paris: Fayard, 1984.

EGUNEN GURPILEAN

115 Kultura

Eten sekularra

Arratia: hazitegi ezezaguna

Nagore Amondarain

121 Ekonomia

Epe luzeko langabezia

Europar hauteskundeak

Unibertsitatea, krisia eta pobrezia

Joseba Barandiaran

127 Soziolinguistika

Txikira edo handira

Jardunaldi, topaketa eta gisako

elkarguneen ekarpena

Arreta non?

Detailleak ere badu tokia

Dabid Anaut

134 Telepolis

Zer neurtu, hori izan

Tronu Dema etengabea

Ilustrazio berria

Gorka Julio



Kultura

Nagore Amondarain

Eten sekularra

Aldizkari honen garai berrien aurkezpen ekitaldian, Pello Zabalaren irudia datorkit gogora, Jakinen bilakaeraren bideoa ikustean hunkitutakoaren bisaia hura dut gogoan. Pozik seguruenik, etenik gabeko talde berritu bat ageri delako orain gidaritzan. Asko aipatu da etenik gabeko berritze hau eta irudikatu ere egin zen Joxe Azurmendi eta Andoni Olariaga buruz buru jartzean Martin Ugalden. Eta hiru izen aipatzen ditut, herri honetan egon diren hiru ibilbide desberdin izan daitezkeelako; beste hainbat egon daitezke, baina hauek badute bere pisua gure historian: Eliza, sekularizatzea eta belaunaldi agnostikoa.

Kokatu gaitezen katolizismo frankistak agintzen zuen kultura hartan. Galdutako gerra baten ondorengo seme-alabez ari gara berbetan, abertzaletasunaren unibertso sinbolikoa isiltasunean eta beldurrean egon ostean, kalera ateratzen hasten denekoa apurka-apurka. Isildutako hizkuntzaren aintzat hartze bat gertatzen da maila sozial zein politikoan; parte hartzea herri baten funtzio hasten da bihurtzen, bai frankismoaren kontra egiteko, ikastolen bidez hezkuntza propio eta berritzaile baten alde egiteko, zein jatorri aniztasuna eta maila sozialeko aldarrikapenak kaleratzen hasteko. Frankismoaren kritikarako babesgune bat izan zen Eliza. Belaunaldi agnostikoa aipatu dut, gazte belaunaldi hori baikara; baina kultura katolikoaren herentzia txarrena aldean daramagula, orban edo arrasto negatiboenarekin gabiltza, sarritan noraezean. Hortik, Elizak izan duen lekua zenbaterainokoa den eta zenbatean izan zen eraikitzailea jakiteari funtsezkoa deritzot, memoria historikoari leku bat egin diezaiozun. Belaunaldi berrientzat

etenik izan ez dadin, frankismo garaiko eta horren osteko memoria ere berreskuratu beharra baitago. Gizarteko geruza guztietara iristeko gaitasuna zuen Elizak, bere orduko egitura aberatsa medio: apaiztegiak eta hainbat kongregazio ziren gurean: kaputxinoak, frantziskotarrak, sakramentinoak, pasiotarrak, trinitarioak, beneditarrak. Bestetik, euskararen eta euskal kulturaren babesgune handi bat izan zen garai berean.

50eko eta 60ko hamarkadetan, hizkuntza baten molde kultua lantzeko eta garatzeko leku bakarrak seminario eta kongregazioen komentuek ziren. Eta gune horiek, gainera, landa eremuetan zeuden kokatuak, hau da, Elizak baserri eremuan zuen indarririk gehien. Sare intelektual bat josi zuten seminario eta komentuetatik, ia ez baitzegoen sektore intelektualik Elizatik kanpo.

Europatik zetozen Ekintza Katolikoaren molde berriek gazteenak erakartzea zuten helburu, JOC Juventud Obrera Católica edo Legión de María bezalako taldeekin. Jose Miguel Beñaran *Argala*, adibidez, Jokin Apalategiren tesiaren hitzaurrean zioen moduan, talde katoliko bateko kide izan zen, Legión de Mariakoa, hain zuzen. Gutxituenei laguntzen eta gaixoak bisitatzen ibili zen, eta han gertaturiko bizipen batek ekarri omen zuen inflexio puntua bere pentsaeran: bisitaldi horietan harreman estua eginda zuen baliabiderik gabeko haur baten heriotzak, hain zuzen. Krisi erlijioso horretatik atera zuen ondorioetako bat omen zen elkartasun soziala lortzeko sakoneko iraultza kultural bat behar dela, ez dela nahiko borondatearekin.

Eliza herriari begira jartzen den garai horretan, JOC eta Legión de María taldeekin batera Herri Gaztedi mugimendua sortzen da Bizkaian, baserri giro eta herri euskaldunetan. Ander Manterola apaiza izan zen Bizkaiko Herri Gaztediren sortzaileetako bat. Apaiz taldeak eta gazte idealistak izango dira mugimendu horretako osagaiak; ekoiztea eta erreproduzitzea zuten helburu, eta orduan sortu ziren dantza talde, kultur talde zein mendi taldeak herriz herri eta auzoz auzo. Nortasun kolektibo baten sorrera etorriko da.

Klero horrek Elizako hierarkiekin eta Francoren garai-ko egitura politikoarekin izandako talkek Euskal Herrian 70eko hamarkadan gertatutako sekularizazio prozesua estatu mailako handiena izatea lortzen dute. Europatik etorritako pentsamolde berriekin batu behar da fenomeno hori: existentzialismoa, marxismoa, 68ko maiatza... Joera berriekin datoz abangoardiako literaturak ere, eta literatura ere sekularizatzen hasten da. Abertzaletasunaren zentralitate erlijiosotik abertzaletasunaren erakundetze politiko eta intelektualera igarotzen da. Eten bat gertatzen da, beraz, erlijioan eta politikan.

Arratia: hazitegi ezezaguna

Aurretik aipaturiko gertaera sozial eta kulturalak adibide-tzeko, eskualde edo herri-hiri asko aukeratu daitezke. Bartzuetan asko idatzi da eta beste batzuk ezagutu ere ez dira egiten. Orokorrean gutxi ezagutzen den bailara bat da Arratia, Gorbeia mendiaren altzoan kokatua dagoena, Bilbotik hogeita hamar kilometro eskasera. Txikitatik gertu-gertutik entzundakoei eta norbere irudipenei jarraituta, Elizak zein eten sekularrak Arratian zein eragin izan zuten eta Arratiatik kanpo zabaldu zuenari buruz zertzelada batzuk emango ditut, argi utzita adibide bat baino ez dela, Euskal Herriaren zabalean ere eman dena.

Arratiako tranbia XX. mendearen lehen erdian sortu zen, eta horrexek lotu zuen Bilborekin Arratia, orduan landa eremu bat zen Arratia. Zeanurin kokatutako Undurragako zentral hidroelektrikoaren lanak 1947an hasi ziren, eta lanera etorritako atzerritarrekin kultura exotiko bat sortzen da, soilik atzerriko langileentzako txabola guneetara mugatu zena; denetarikoa denda eta zinemak omen zirela esaten da bertan. Baina Arratian ez zuen bestelako eraginik izan horrek, artean ikasi gabeko eskualdea zen gurea. Beraz, Arratian XX. mendearen bigarren erdian hasi zen industrializazioa sartzen

zein Bilbo ingurura bertakoen jarduna zabaltzen, tranbia ardatz izanik laneko joan-etorrietarako: Labe Garaiak Deustun, Basconia eta Firestone Basaurin, Galdakaoko Dinamita... Horrek aldaketa soziala ekarri zuen Arratiara, orduko landa giroko Arratiara, alegia.

Eskualde otzana izan da beti Arratia, harik eta Areatzako sakramentinoen komentuak bertako paisaia kulturala aldatu zuen arte. Gizarte ekintzaren sustatzaile handienak izan ziren bertako sakramentinoak, Arratiako herri batzuetako abadeekin batera 60ko hamarkadan.

Areatzako Sakramentinoen Ikastetxe Nagusia teologia eta filosofia ikastetxea zen, bertan ematen zen beraz prestakuntza intelektuala. Euskal kulturgintzan egun ari den hainbat kide sakramentinoetatik igarotakoa da. Baina Arratia bailarako pastorgintzara emanak ere bazeuden; beraz, herri eta auzoetako elizen ardura zutenek, bertako herritarrekin harreman estua sortu zuten.

Herri Gaztedi elizako gazte mugimendua errotzen ari zen herriz herri 60ko hamarkadaren bigarren erdian. Erakunde horri egokituko zaio, frankismo garaian, erakunde politiko-sindikalen ordezkotza lana egiten hastea. Herrietan gazte taldeak sortzen hasten dira; nire herrian, adibidez, *Arantzazuko Arantzak* izenez biltzen hasten dira gazteak. Gogoan dut etxean *Arantzazuko Arantzak* taldearen orduko pegatinak ikustea; irudi bereizgarri eta dena zuten, hirurehun biztanleko herri txiki baten zabalkunde gogoak edo. Horien jarduna, abadeekin batera, mendi irteerak, kantu saioak, antzerkiak... antolatzea zen. Kohesio sozial itzela ekarri zuen Arratia bailarara garai horrek. Zeregin horretan ibili ziren abadeen artean, Paulo Iztueta (*Aite Paulo*), Juan Jose Camarero-Nuñez (*Aite Juan Jose*), Periko Camarero-Nuñez (*Aite Periko*), Joan Otaegi (*Aite Joan*), Jose Antonio Zabala, Martin Orbe (*Don Martin*)... aipatu behar dira. Arlo soziopolitikoan eta kulturean eragin zutenak, dinamizatzaile izan zirenak.

Jakin barik, seguruenik, antzerki modernoaren aitzindaria zen lan bat zutenik esku artean, *Arantzazuko* gazteek,

Artea-Areatzako Oihartzunak musika taldearekin batera, Pedro Ignazio Barrutiaren *Teatro zaarra. Gabonetako ikuskizuna* (1759) taularatu zuten, Hego Euskal Herrian idatziriko lehen antzerkia. Berori antzezten ibili ziren Euskal Herrian barrena.

Oihartzunak talde gaztea 1967an sortu zen, batez ere *Aite Juan Jose* sakramentinoaren gidaritzarekin, sakramentinoen artean musikarekikoak berari egokituko zitzaizkiolako, agian. Oihartzunak taldeak urte betean ehundik gora kontzertu eman zituen Euskal Herri osoan zehar. Bestetik, apaizek eta apaiz ikasketak egiten zeuden gazteek Bilboko eta inguruetako gazteak erakarri zituzten Arratiara. Euskara ikasten zebiltzan hiriko gazteak ziren denak, eta euskaldun landa giroko gazteekin harremanak sustatu ziren garai horretan. Horretarako bitartekoak aurretik aipaturiko kultur ekintza horiek guztiak ziren, dantza, kantu, mendi txangoak...

60ko hasiera hartan ez zegoen indar abertzaleak elkartuko zituen herri mugimendu antolaturik, eta horrek guztiak nor-tasun kolektibo bat sortu zuen. Arratia lozorrotik esnatzeko gogoia, beraz, abadeek ekarri zuten.

Ordurako, Elizaren babesarekin sortutako gizarte azpiegitura batzuk bideratuta zeuden Arratian. 60ko hamarkadan sortu ziren aurreneko herri mugimenduaren dinamikak. Maila sozioekonomikoan zein kulturalean sortzen dira: Arizmendiarietaren ereduan, BATZ Kooperatiba sortu zen, industria munduan gaur arteko aktibitatea izan duena, CAVA Nekazarien Kooperatiba, Elkar Kooperatiba hezkuntzan, gerora Igorreko Institutua sortzea ekarriko zuena, nekazaritzaren beste molde berri bat ekarri zuen negutegi gune bat Artean eta Zeanurin Zulaibar Lanbide Eskola, lan mundurako prestakuntza teknikoa irakasten zen eskola.

Sumatu daitekeenez, euskal kulturaren loraldi bat ekarri zuen garai horrek Arratian, garai hura bizi izan zutenek ere oroitzen bereziz gordetzen dutelako orduko Arratia. Loraldi eta kohesio horrek ez zuen asko iraun, ordea. Krisi erlijiosoak itzaliko du sakramentinoen komentua, sekularizazioa eta mundu laikora jauzia emango da. Bestetik, abadeetako

batzuek kartzelara eta beste batzuek erbestera alde egin behar izango dute. 1970. urtea beste abagune batean hasten da, beraz. Arinagoko kohesio soziala galduz joango da, herri dinamikak epelduz, kultur mugimendua gutxituz, bi familia politiko aurrez aurre jarriz eta euretako bat gailenduz.

Paradoxikoa ere bada, Arratian izan baitzen EAJren banaketa historiko hura (Arzalluz-Garaikoetxea), Artean alderdiak zuen egoitzan 1984an. Hura izan zen EAJren egoitza nagusia urte luzez, egungo Sabin Etxea lakoa. Beraz, etenez betetako bailara.

Noizbait amestu zen Arratia hura –kultur mugimendu bizia, dinamiken aniztasuna...– kohesio berri batek ekarriko du, abadeek dagoeneko ez baitute ekarriko. 🍷

Epe luzeko langabezia

Ikerlan ekonomikoek nekez izaten dute islarik eguneroko prentsari. Espainiako alderdi sozialistaren *think tank*-arekin lotura zuelako iritsi zen prentsara –eta, hala ere, oihartzun handirik gabe pasa–, Sara de la Rica eta Brindusa Anghel ekonomialarien epe luzeko langabeziari (ELL) buruzko lana (www.falternativas.org/laboratorio/documentos/documentos-de-trabajo/los-parados-de-larga-duracion-en-espana-en-la-crisis-actual). Langabezia den arazo gordinean atalik gordinena da ELL, urtebetetik gora lan bila eta langabezian daraman jendearen kasua. Langabezia hirukoiztu duen krisi honetan, Espainian ELL zazpikoiztu egin da; merezi du fenomeno horren azterketa xeheagoa, hartu beharreko neurriak egoki hausnartze aldera.

Generoak zeresan handia du Europako ELLn: gizonezkoen langabeziaren %45 da ELL; aldiz, emakumezkoenaren %60 da epe luzekoa. Adinak ere badu garrantzia: 50-65 urte aldirako langabeen %55 ELL dira; 25-49 urte aldirako langabeetan %45 dira ELL eta 25 urtez azpikoen %35. Hezkuntzari gagozkiolarik, Espainiako datuetan, ELLen artean bosten batek oinarritzko ikasketak edo txikiagoak ditu, ehuneko berberak unibertsitate edo goi mailako Lanbide Heziketakoek edo gogoragoenak, eta, gainontzekoek, hiru bostenek, bigarren mailako ikasketak dituzte. 2013ko Espainiako datuetan, ELLren iraupenaren gaineko datuak ere gordin askoak dira: bosten batek lau urtetik gora darama lanik gabe, eta bi bostenek bi eta lau urte artean. Horratx, deskribapena.

Teknika ekonometrikoak erabiliz, De la Rica eta Anghelek Espainiarako aztertu duten lehen kontua da langabetuen

artean ELL izateko probabilitatean zenbatean eragiten duen faktore bakoitzak, gainontzeko faktoreak berberak izanik: (2007an esanguratsua ez zen) genero faktorean, kasu, 2013an emakume izateak %27 handitzen du ELL pairatzeko probabilitatea, adin, hezkuntza eta jardun sektore bereko gizonetzkoekiko; 45 urtez gorakoek %50 probabilitate gehiago dute ELL pairatzeko 30 urtez azpikoek baino (eta %30 gehiago, 30-45 urte aldikoek baino); unibertsitate mailako heziketa izateak %70 murrizten du ELL izateko probabilitatea oinarrizko hezkuntza dutenekiko, eta %36 bigarren mailako hezkuntza dutenekiko. Eta eraikuntza sektorean jardundakoek %72 probabilitate handiagoa dute gainontzeko sektoreetakoek baino ELL izateko (kasu guztietan, gainontzeko ezaugarriak berberak izanik).

Bigarren kontu bat ere aztertzen dute bi ekonomialariek. Alegia, ELL izatetik landun izatera pasa direnen ezaugarriak. 2007ko lehen hiruhilekoan ELL izan eta hurrengo hiruhilekoan lana topatu zutenak ELL guztien %24 ziren. Aldiz, 2013ko lehen hiruhilekoan ELL izan eta hurrengo hiruhilekoan lana topatu zutenak %9 baino ez ziren. Trantsizio hori bizi izan duten bi gizatalde horien ezaugarriak alderatzerakoan, ondorio argiak ateratzen dira: 25 urtez azpikoak eta 45 urtez gorakoak azpiordezkatuta daude lana topatzen dutenengan, krisiaren aurretik eta ondoren. Hezkuntzak lana lortzea errazten du, eta 2013an gehiago 2007an baino: lana lortzen duten ELLen artean gainordezkatuta daude unibertsitate mailako ikasketadunak (%32 probabilitate txikiagoa du oinarrizko ikasketadunak lana lortzeko beste ikasketa mailekiko, gainontzeko guztia berdin). Eta, bai, emakumeak ELLtik ateratzeko %26 probabilitate txikiagoa du, ezaugarri bereko gizonak baino.

Baina beste aldagai batek eraman zuen artikulua prentsa ekonomikoaren zenbait lerroburutara: langabezi sari edo laguntzaren bat jasotzeak %85 gutxitzen du ELLtik landun izatera pasatzeko probabilitatea. 2013ko bigarren hiruhilekoan lana topatu zuten ELL guztien artean %5 baino ez ziren langabezi laguntza jasotzen ari.

Finean, egileek hiru ondorio ateratzen dituzte: baga, 25 urtez azpiko oinarritzko ikasketadun eta lehen eraikuntzako lanpostuen aterabidea zutenak hezkuntzara bideratu, euren giza kapitala hobetzeko. Biga, 45 urtez gorakoentzat prestakuntza eta laneratze plan berezituak egin, aparteko zailtasunak izango baitituzte lan mundura itzultzeko. Eta, hirugarrenik, langabezi laguntzen eskema berrikusi, laneratzeko pizgarriak mantentzen daitezten. Alegia, ELLek lan eskaintza egokiak jaso ditzaten eta, ondoren, onar ditzaten (hau da, lanean egotea beti izan dadin hobe langabezi laguntza jasotzen jarraitzea baino).

Alderdi sozialistaren inguruan sortutako analisia izaki, zer pentsa eman lezake, ez baita eskuin politikoko indarrek eginen luketen analisi batetik askorik aldentzen. Langabezi laguntzen beharrezkotasuna zalantzan jarri ez arren, ekonomia politikako proposamen zehatz arrazoituak faltan ditu ikerketa liburuak.

Europar hauteskundeak

Hauteskundeen joko teoriak dio, bi alderdi nagusi lehiatzean, biek zentro politikoa eskuratu behar dutela, 'batez besteko bozemailea' erakarri, bozen gehiengoa lortu ahal izateko. Horren ondorioz gertatu da European, besteak beste, eskuin nahiz ezkerreko deitutako alderdien politiken berdintze handi bat, Frantzian Vallsekin edo Espainian Zapaterorekin, nolabait 'pentsamendu bakarra' edo neoliberalismoa hedatu duena eta zenbait herrialdetan (Austria, Alemania, Grezia...) alderdi nagusien koalizioak eratu dituen. Politika ekonomikoaren ikuspuntutik, zaila da, zinez, eskuma edo ezkerreko omen diren alderdien arteko ezberdintasun esanguratsuak topatzen. Espainiarako bolibartar alternatiba katastrofikatutzat jotzen duen Felipe González bati, kasu, sei milioi langabetuen ilara ez zaio, itxuraz, hain katastrofikoa iruditzen.

Zentzu horretan, euroa txanpon duen Europak ez du lortu herritarren atxikipena sendotzea; kontrara, urruntze bat

sumatzen da Brusela-Frankfurteko botere politiko ekonomi-koarekiko. Moneta politika batu eta bakarra duen Eurogunean, politika fiskalak koordinatzea geroz eta zailago gerta liteke, bozemaileen logika nazionalagatik, indar zentripetoen gorakadagatik eta, oro har, krisiak Europako zenbait lurraldetan utzi duen kaltearen sakonagatik. Kontua da AEBek adierazle makroekonomiko okerragoak dituztela Europak baino (zor eta defizit mailan, urrutira gabe); aldiz, Europaren hauskortasunak bestelako politikak egitera eraman du (troika edo Kontseilua dira nagusi, eta ez gobernu federala edo bi ganberako parlamentu sendoa; inflazioaren aurkako borroka du helburu bakar banku zentralak, eta hazkundearen gaineko kezka izpirik ez; eta abar). Beraz, krisi ekonomiko asimetrikoaz gain (estatu ezberdinetan eragin hagitik ezberdinekoa baita), krisi politiko sakona ere bizi du Europak. 26 milioi langaberi esperantza amiñi bat emango liokeen ikusmolde sozialdun alternatiba supranazional sendo bat eratzeko ezintasuna ere tartean dela.

Bestalde, esker-eskuin ardatzari ardatz nazionala ere gehi dakioke azterketa konplexu eta osoago bat egite aldera. Baina bistan da boza ematen duten erdiek soilik parte hartzen duten hauteskundeetan, zilegitasun arazoez landa, zaila dela jendearen zinezko nahia zein den zehatz interpretatzen. Abstentzioan bertangoxo egin dutenek zeresan handia izan dezakete aurrera begira. Baina, oraingoz, Jon Sarasuak bota duen «hemengo ezkerria eskuina da» horri izango da «hemengo eskuina ezkerria da» kontrajarriko dionik ere.

Unibertitate, krisia eta pobrezia

2007an krisi ekonomikoaren lehen zantzuak agertu zirenetik, ezin da esan ekonomia fakultateetatik jakintza edo eztabai-darako ildo berri askorik zabaldu denik. Salbuespen gutxi batzuk kenduta (Paul Krugman Nobel sariduna, Kataluniako Niño Becerra edo Frantziako Thomas Piketty), ez dira asko

komunikabideetan nabarmendu diren ikertzaile eta akademikoak, indarrean den ikusmolde nagusiari, aldez edo moldez, kontra egiten. Hortaz, euskal herritar gutxi izango dira egun gure unibertsitateetako ekonomia katedradun bakar baten izena aipatzeko gai (non eta familiakoa edo laguna ez duten!); aldiz, borboitarren familiako dozena erdi izen errenkan jaurtiko dizkizu edonork, zer esanik ez futbolarienak.

Unibertsitate ereduaz eztabaida oso hedatua ez dagoen honetan, adierazgarria da www.eldiario.es egunkarian argitaratu den *Zona Crítica* blogeko sarreraren izenburua: «intelektualetatik *paper* egileetara» (www.eldiario.es/zonacritica/Crisis-Universidad-intelectuales-hacedores-papers_6_265683463.html).

Alegia, gizarte eraldakuntza eta pentsaera kritikoa baino, aldizkari espezializatueta artikulua (*paper*-ak) argitaratzeko helburu soila duela, egun, unibertsitatean diharduen askok, artikulua gizartearen benetako arazoaren konponbidean eragin zein ez; eta gizarteari unibertsitate publikotik zor zaion dibulgazio lanari muzin egiten diotela gehienetan, komunikabideetako agerpenei (ohikoei zein blog modukoei) iskin eginez. Hor ere pizgarri sistemaren berrikuspena beharko litzateke. Baina euskal herritarrei hau xe ulertzen lagundu diezaieke: atzerriko unibertsitate entzutetsuetan doktoretzak eta are irakasle lanak egindako ikertzaile askok nolatan ez duten praktikan tokirik egungo gure unibertsitate endogamikoetan.

Ekonomista ikertzaileak *paper*-etara so dauden bitartean, pobrezia gurean ere hedatzen ari dela bistakoa da estatistikei erreparatuz gero. Pobrezia edota ongizaterik eza nola definitu eta neurtu eztabaidaz harago, gurean, Gaindegia, kasu, 115 mila pertsona gehiago kalkulatu ditu pobrezia egoeran (www.gaindegia.org/eu/node/16082). Eustatek berak (www.eustat.es) pobrezia eta ongizaterik eza neurtzen ditu lau urtean behingo lanean (www.eustat.es/elementos/ele0010100/tbl0010130_e.html#axzz33Ubh7JoU), eta 2008-2012ko Eustaten datu argigarriak berrestera etorri da INEren bizi baldintzen gaineko inkesta ere (www.ine.es/prensa/np844.pdf).

Neurketa modu ezberdinak izanik ere, pobreziaren goranzko joera argia da. Eskualdeka erreparatuz gero, aipagarria da pobrezia igoera handiena izan duten bi eskualderen kasua, oraindik ere EA Eren batez bestekotik behera jarraitzen duten Tolosa-Goierri eta (Ibaizabalen) Eskuma Aldearena.

Gutxi asko, populazioaren %18-20 inguru legoke Euskal Herrian oinarritzko beharrak edo gure egungo gizarteari dagozkion gastu arruntak bete ezinda. Hortaz, kohesio sozialetik urrun(ago) gaude. 🍷



Soziolinguistika

Dabid Anaut

Txikira edo handira

Zuzeu orainkari horizontalean (www.zuzeu.com) *Kligeroa*-k sinatutako testu batean, Soziolinguistika Klusterrak 2014an banatu dituen Hausnartu Sariak direla-eta, honakoa irakur daiteke:

Garbi gera bedi, dena dela, lanak gutxiesteko asmorik gabe ari garela honetan, behar-beharrezkoak baitira horiek ere.

Baina besterik da hemen planteatzen dena, lan horien aitzakiarekin bada ere.

Belarririk duenak, beraz, entzun beza!

Lan horiek hautatzean, beste hobeagorik ezean beharbada, soziolinguistika-estilo bateko lanak saritu ditu Klusterrak.

Eta hortik dator kezka.

Zeren eta, suposatzen den bezala, izenburuak bat badatoz lanetan garatu den mamiarekin, haiek irakurri gabe suma daiteke panorama postmoderno horietako baten aurrean egon gaitzkeela Euskal Soziolinguistikaren alorrean ere.

Panorama teknologiko-teknokratikoa, arazoaren erroetan sakontzeko premiarik ez duena, ideologiaren amaiera laudatzen dutenetakoa, konponbide estrukturalak behar dituzten kontuen aurrean partxeok bideratzen dituen...

Kezkatzekoa litzateke, beraz, errealitate soziolinguistikokoaren azaleko gabeziak bakarrik aintzat hartuz jokatzeko hasiak bagina. Ikuspegi politikoetatik ihesean doazen diskurtso eta baliabide aseptikoak garatuz jokatzeko hasiak bagina. Edo hizkuntza eta gizatalde menderatzaileekiko kritikarik gabeko ustezko soluzio neutroak eskaintzen hasiak bagina.

Kezkagarria, egiatan, tokian tokiko ekintzatxoak prestatzera mugatzen diren proiektuak bakarrik sustatzen hasiak bagina: zuk hor lantegian, nik hemen eskolaz kanpoko ekintzetan, hark han mendi-elkartean...

Besterik behar du gure hizkuntzak, normalkuntzarako erreferentzia makroa galdu nahi ez badu behintzat.

Bide okerretik goaz, guztiz okerretik, saguteran harrapatutako sagutxoek eskapatzeko egiten dituzten azken ahalegin alferrika-koak bezala irudikatzen hasten bagara gure lana.

Euskalgintzak egiteko daukan guztia kontuan izanda, bistakoa da arreta –eta indarrak– non jarri behar diren ongi asmatu beharreko kontua dela. Blogariak fokua gaizki jarrita dagoelako susmoa eta kezka adierazi du, ongi ulertu badiogu behintzat, eta gauzak berak ikusi dituen moduan izatera, baliteke kezkatzeko arrazoiak egotea. Hori horrela ote den ebaztea norberak egin beharrekoa izanen da azkenean, baina gai horri begiratu bat emateko ahalegina egin dezakegu, eta halaxe eginen dugu.

Ongi zehaztu behar genuke, nolana ere, egileak «Kezkatzekoa litzateke, beraz, errealitate soziolinguistikoaren azaleko gabeziak bakarrik aintzat hartuz jokatzeko hasiak bagina. Ikuspegi politikoetatik ihesean doazen diskurtso eta baliabide aseptikoak garatuz jokatzeko hasiak bagina» dioenean, nor den *bagina* horren subjektua. Soziolinguistika Klusterra bera duen gogoan –lanak saritu dituen, alegia–, beraren soiltasunean, edo euskalgintzaz oro har ari den. Ez baita gauza bera. Klusterrari egozten zaion ikuspegi hori euskalgintza osoari ere egozten zaio? Eta, egia izatera Klusterrak saritutako lanetan ikuspegi zehatz eta ustez aseptiko eta tekniko huts hori islatzen dela, hori desegokia da ezinbestean? Edo molde horrek ere tokia izan lezake sariketa eta argitalpen jakin horretan?

Soziolinguistika Klusterrak bere edizio jakin batean gisa horretako lanak saritzeari ez diot aitzakia handirik aurkitzen, eta ez nau gehiegi kezkatzen, ez badut ulertzen edo sumatzen euskalgintzaren joera orokor eta sustraitu baten isla dela. Orduan bai, akaso kezkatzeko arrazoi gizenagoak izanen genituzke. Eta hala ote da? Euskalgintza hasi al da bere lana «saguteran harrapatutako sagutxoek eskapatzeko egiten dituzten azken ahalegin alferrikakoak bezala irudikatzen»? Zerk kezkatzen gaituen, zer aztertzen ari garen, zertaz hitz egiten ari garen eta gure gogoeta non dabilen begiratu

beharko genuke auzia pixka bat argitzeko. Zer du euskalgintzak mintzagai, aztergai edo gogoetagai?

Aurkibide ofizialik ez dugu inon aurkituko, baina balia gaitzke eskura samar ditugun datu edo adierazle batzuez: hain zuzen ere soziolinguistikaren alorrean, euskararen normalizazioan edo berreskurapenean, edo euskalgintzaren lan eremuan gogoeta egiteko edo lanerako azken aldian antolatu diren jardunaldiak, topaketak edo gisakoak. Zertaz hitz egin da horietan, zer aztertu da, zertan jarri da arreta? Begiratu horrek erakutsi liezaguke, matematika zehatza ez den arren, gogoeta non daukagun jarrita.

Jardunaldi, topaketa eta gisako elkarguneen ekarpena

Parentesitxo bat, eginen dugun halamoduzko zerrendatze hori ekarri baino lehen. Egin ziren, egiten dira, eta eginen dira jardunaldiak-eta. Eguneroko lanak itotzen gaitu, baina jarraitzen dugu elkarren berri izateko eta elkarrekin hausnarketa egiteko aukerak antolatzen, egun bateko edo bi eguneko formatuan askotan. Jardunaldi edo topaketa deitzen dugun hori, alegia. Horri alergía dionik ere bada, edo deus handirik ematen ez duela uste duenik. Eta sentazio hori izateko arrazoiak ez dira faltako, batzuetan gehiago edo beste batzuetan gutxiago, jardunaldiak berak inertziatik edo konpromiso hutsetik duenaren arabera. Baina egiten jarraitzen dugu, eta izanen dute ziur asko errepikatzen bultzatzen gaituen funtsezko arrazoirik edo osagairik: lankide, tribukide, bidaide edo bestelako kideak berriz ikustea eta egunerokotasunetik ateratzea; besteren gogoetak eta ideiak ikustea –baita haiek goratzeko edo astintzeko aukera ere–; norberarenaz gainera, beste testuinguru, egoera... batzuk ere badaudela ikustea; gogoetarako beste kokaleku bat hartzea; egiten den lana gizarteratzea eta partekatzea; norberaren ontzian arraunean beste batzuk ere ari direla sentitzea; ideiak kritikatzeko; gogoeta

originalak entzutea, bestela agian entzunen ez zenituzkeenak; berrikuntzak ezagutzea; birkokatzea; gurerako ideiak hartzea; harreman pertsonalak lantzea; lanerako kontaktu berriak lortzea; gai jakin batzuei garrantzia ematea.

Arreta non?

Parentesia itxita, agindutakora etorriko gara. Zer du euskalgintzak mintzagai, aztergai edo gogoetagai? Ez dugu zerrenda erabatekorik eginen, baina azkeneko sei hilabeteotan euskalgintzak antolatu dituen jardunaldi eta topaketa batzuen aipamena ekarriko dugu, nolatsuko gaiek kezkatzen eta lotzen gaituzten usaintzen saiatzeko. Honatx:

- *Enpresarean 2013* jardunaldia. 2013-10-31. Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta. Euskaraz lan egiten duten enpresak eta euren produktu edo zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituztenak bildu ziren elkarlanerako bideak aztertu eta negozio bide berriak zabaltzeko asmoz.
- *Euskara Nafarroatik*. Euskaltzaindiaren XVIII. Jagon Jardunaldiak. 2013-11-15. Antolatzaileen hitzetan: «Nafarroan zertan ari garen, nora joan nahi dugun eta Nafarroatik zer ekarpen egiten ari garen eta egin dezakegun euskararen normalizazioan aztertu nahiko genuke bertan».
- *Hizkuntza eta lurraldea. Lurraldea eta hizkuntza* jardunaldia. Gipuzkoako Foru Aldundiak, UEMAk, Kontseiluak eta UEUk antolatuta. 2014-01-16/17. Lurralde-antolamenduak eta hirigintzak hitzun-komunitatearengan duen eragina aztertu zen.
- *Geure ardura pertsonal eta kolektiboa aktibatzen*. Euskaltzaleen Topaguneak antolatuta. 2014-01-30. Motibazioaren inguruko jardunaldia.
- *Guk gEURE kulturaz*. Euskal Herriko hainbat kultur eragilek antolatuta. 2014-02-27. Kulturak Euskal Herrian bizi duen egoera larriari buruz hitz egiteko jardunaldia.

- *Ikasle euskaldun eleaniztunak sortzen jardunaldia*. Sortzenek, Kontseiluak, Elhuyarrek, Aitor ikastolak eta Dima Ugarana herri ikastetxeak antolatuta. 2014-04-04. Ikasle euskaldun eleaniztunak sortzeko proiektua izan zen landutako gaia.
- *Euskoiberismoa*. Euskararen Jatorria Elkarteak antolatuta. 2014-05-10. Euskoiberismoaren inguruko ikerketak eta proposamenak.
- *Erromatarren aurreko baskoien garaitik Nafarroako Erresumara*. Atlantiar Nazioarteko Biltzarra. Jazaurreak antolatuta. 2014-05-16. Euskararen historiaurrea eta historia izan ziren bertako aztergaiak.
- *Euskara erabiltzeko planak: elkarrekin berritzen*. Udaltop Soziolinguistika Jardunaldia. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Lasarte-Oriako Udalak eta Soziolinguistika Klusterrak antolatuta. 2014-05-15/16. Herri erakundeen barruan euskararen erabilera zabaltzeko eta trinkotzeko eratzten diren planetan berrikuntzaren ikusbidea.
- *Euskararen transmisioa mintegia*. Eta kitto elkarteak antolatuta. 2014-05-08. Hizkuntzaren transmisioa eta sozializazioa gogoetagai.

Begiratu azkar honek erakusten digunaren arabera, badi-rudi euskalgintzak funts eta sakontasun handi samarreko gaietan daukala jarrita begirada. Historiarekin lotutako biak besteetatik aldentzen dira, baina azken sei hilabeteotan egindako gainerako jardunaldiak gaurkotasunari lotuta daude, eta erronka sakon eta handiei begira jartzen direla esanen nuke: euskararen erabilera esparru sozioekonomikoan, euskararen garapena Nafarroan, hizkuntza eta lurraldea, motibazioa, euskal kulturgintzaren erronkak eta gorpuztea, hiztun euskaldun eleaniztunak, administrazioaren esparrua euskalduntzeko jarduna, eta euskararen transmisioa eta sozializazioa. Beste gai ezinbesteko eta garrantzitsu batzuk egon litezke, ziur asko egonen dira, baina horiek ere izan badira garrantzitsu eta ezinbesteko.

Detaileak ere badu tokia

Euskalgintzak apustu edo izaera estrategikoaren usaina duten erronkei eta lan ildoiei begira egon behar du, norabide edo zentzurik ez duen dinamika eta jarduera batean ez badu ari nahi. Auzi lodiak izan beharko ditu aztergai, horrenbestez, baina detailerako eta xehetasunerako tokia ere utzi beharko da, ildo nagusia bera azkenean egitasmo eta ekintza xehe ere bihurtzen delako, eta ideia orokorrek ere ez gaituztelako zehaztapenik gabe inora eramane.

Ekintza xehe, mikro mailako eta akaso eragin-eremu meharrekoek ere merezi lezake gure arreta, izan jardunaldi batean edo izan soziolinguistikako argitalpen jakin batean. Gure gogoeta guztia horretara lerratuko balitz oker genbiltzake, baina begirada orokorra baztertu gabe xeheari erreparatzen ere asmatzen badugu, ez gara hain oker ari nire ustez.

Bestalde, eta euskalgintza antolatuaren eremu estutik ateratzea izan litekeen arren, aipa liteke *Bat* aldizkariko 87-88. zenbakian argitaratutako artikulua batek dioena. Hainbat egilek osatutako 'Azken urteetako euskal ikerkuntza soziolinguistikoaren azterketa deskribatzailea' artikuluan, bertako ikerketa soziolinguistikoa azken aldiari zeri begira egon den erakusten saiatu dira. Ikertzaileek, giro akademikoan eta teoriko samarrean ari diren horiek, nolako joera duten erakusten digu deskribaketa horrek, eta honako pasarte hauetan jasotzen da, gutxi gorabehera behintzat, azterlan horren egileek ikusi dutena:

Euskarak gizartean duen egoeraz –status delakoaz– kezka duten ikerlanak nagusitzen dira –lautik hiru– euskal ikerkuntza soziolinguistikoa. Horri lotuta, ikerlan gehien-gehienek, izaera akademikokoak edo aplikatukoak izan, euskarri berean dituzte abiapuntu eta sostengu: euskara normalizatze asmoan, hain zuzen. Izan ere, bai ikergaiak aztertzean, bai ikerlanen bultzagile edo suspertzaileen jatorriari erreparatzean, argi dagoena hauxe da: ez dela hesi garbirik mota akademikoko eta aplikatuko lanen artean. Ez dago jakiterik horietako askoren azken asmoa eremu akademikora mugatzen ote den ala, giro horretan sortuak izan arren, beren azken jomuga dimentsio aplikatukoa ote den.

Badirudi, hortaz, ikertzaileak ere, joera akademizistaz eta jakin-min zientifiko hutsaz gainera, euskararen berreskurapenari begira jarrita daudela eta horrek kezkatzen dituela. Jakintza eta ikerkuntza hori guztia nola kudeatzen den, jakina, beste kontu bat da, agian aztertzea ere mereziko lukeena. 🙌



Telepolis

Gorka Julio

Zer neurtu, hori izan

Chartbeat enpresako buruak eduki bat zabaltzen den aldien eta irakurketen arteko korrelaziorik ez dagoela esan zuen Twitter bidez. Chartbeat, denbora errealean estatistika eta datu azterketa egiten duen enpresa bat izanik, kontuan hartzeko iritzi bat da. Bere eskuetatik pasatzen diren datu kopuru handiak ezagututa, are gehiago.

Baieztapenetik tiraka, azalpenak ere eman behar izan zituzten ondoren. Azalpen horietan, eduki bat zabaltzeko aldien eta bisita kopuruaren arteko harremana noski bazegoela adierazi zuten, baina horrek ez omen du irakurketa ziurtatzen. Hau da, gerta daiteke eduki bat asko zabaldu bai, baina ez gehiegi irakurtzea.

Interneteko sare sozialetan edukia hedatzen dugunean, eduki hori hedatzeaz gain, jendeak irakurtzea (edo ikustea) bilatzen dugu. Helburu berarekin milioika pertsona dago munduan, baina irudiko luke askorentzat Twitterreko eta Facebookeko RT eta *Like* kopuruak markatzen duela eduki baten kalitatea. Neurgailu horiek duten helburua horixe da, atxikimenduan oinarritutako arrakasta neurtzea.

Bada, horrek muga argiak ditu eduki bat irakurria, kalitatezkoa, sakona... den neurtzeko. Neurgailu horiek atxikimendua, hedapena, berehalakotasuna... bezalako ezaugarriak neurtzeko baliagarriak izan daitezke, baina beste gauza askotarako oztopo besterik ez dira.

Horretaz jada jende asko konturatu da, bereziki marketing munduan dabilen jendea. Klik, bisita, orrialde ikusi..., neurgailu horietaz harago atentzioa da neurtu behar dena. Garai berri hauetan, beraz, atentzioa izango da neurtu beharrekoa.

Atentzioaren Webaren garaia da. Horrela deitu nahi izan diote batzuek, beti gertatu den denborarekiko borroka azaltzeko.

Denbora noiz, nola eta zertarako erabiltzen dugun 'neurtu' nahiko dute, pentsa. Neurtzeak ez du berez zentzu negatiborik, baina kasu askotan bezala, honetan ere 'metatu', 'harra-patu' edota 'kapturatu' hitzen sinonimo bezala erabili ohi da. Ondorioz, neurtzen ari zaren hori helburu bihurtzen da, eta horrekin batera baita pertsonak ere: «Zer neurtu, hori izan».

Milioika edukirekin, gure atentzioa bilatuko duten milaka inputso izango ditugu. Arrisku handia dago, beraz, denbora guztian gure atentzioarengatik borrokatzen duten horiez asebeteta edota nekatuta, bakoitzak behar dituen ideiak garatzeko denborarik ere ez izatea. Maila indibidualean hori txarra bada, maila kolektiboan oraindik okerragoa izan daiteke.

Idea sorkuntzarako esan ohi da beharrezkoa dela lasaitasun eta sosegua, denbora 'galtzeko' aukera. Ideiak lantzeko, sortzeko, eztabaidatzeko... espazioak (fisiko edo/eta birtualak) beharrezkoak dira horretarako. Neurgailu egokiak definitu edota aukeratzearekin batera, ezinbestekoa hori ere etorkizun posibleak pentsatzeko.

Hobe ulertzeko, ikusi nola txertatu diren notifikazioak egunero erabiltzen ditugun mugikorretan. Mugikorretako aplikazioak era masiboan erabiltzen hasi ginenetik, notifikazio gehiago jasotzen ditugu mugikorretan. Bada, orain notifikazio oharrek eta horiekin lotuta doazen zenbakiek -2 mezu dituzu irakurtzeko, 5 aldiz zabaldu da zure mezua, bilerera duzu 19:00etan, trafiko arazoak 5 kilometrora...- gure pantailaren zati handiago bat hartuko dute, gure denbora, gure atentzioa, gure...

Tronu Dema etengabea

P2P fitxategi elkartrukea munduan gehien erabiltzen den elkartruke moduetako bat da. P2P elkartruke modua, azken finean bakoitzak bere gailuetan dituen baliabideei esker,

gailuen arteko fitxategi elkartruketa da. Alegia, tartean ez dugu zerbitzaririk behar, fitxategiak ordenagailutik ordenagailura pasatzen direlako zuzenean.

BitTorrent (bittorrent.com) protokoloa erabiltzen duten Vuze, Transmission edota uTorrent programak dira ezagunak. Beste asko daude, baina denen funtzionatzeko era oso antzekoa da. Torrent izeneko fitxategiak jaitsiz edo *magnet* linketan klik eginez programa martxan jarri eta bera arduratzen da fitxategia behar den ordenagailuetatik jaisten.

Elkartrukatzen diren fitxategiak mota askotakoak dira: irudiak, audioak, bideoak, dokumentuak, datu multzo handiak... Azken horiek garrantzi berezia dute, adibidez ikerkuntzan. Kontrakoa uste bada ere, sare horietan dabilen eduki askok ez du inongo *copyright* legerik apurtzen.

Jakina da, halere, sare horietan berez *copyright*-a duten filmak, telesailak, musika eta abar zabaltzen direla. Ezinezkoa da, aipatu dugun P2P banaketa ereduaren ondorioz, jaitsitako edukiak zehazki zenbat izan diren jakitea. Datu fidagarriren bat lortzeko saiakerak egiten dira, horietako bat Tru Optik (truoitik.com) enpresak egindakoak.

Ikerketa horietan ikus daiteke 300 milioi pertsonen munduan era horretako tresnak erabiltzen dituztela fitxategiak elkartrukatzeko. Pentsa daiteke beharbada baliabide horietara beste era batera atzipenik ez duten pertsonen erabiltzen dituztela, baina herrialde sailkapen gehienetan (filmak, telesailak, musika, jokoak eta softwarea) AEBak agertzen dira lehen postuan. Bakarrean, jokoan kategorian, Brasil eta Errusiaren ondoren agertzen da hirugarren postuan.

P2P trafikoa ohiko zerbitzuekin alderatuz gero, Facebook eta YouTuberen ondoren hurrengoa litzateke, Twitter, SoundCloud, Instagram, Spotify... zerbitzu ezagunak baino garrantzitsuagoa. Hori gutxi balitz, jaisten diren telesail eta filmak bakarrik kontuan hartuz gero, horiek Amazon, iTunes eta Google Playen batera jaitsitakoak baino gehiago dira.

Azken finean, jendeak berarentzako eskuragarri dituen bideak erabiltzen ditu nahi duen edukira iristeko. Prezioa,

erraztasuna, erosotasuna..., faktore askoren konbinazioa izan ohi da erabaki horren atzean dagoena.

Azken aldian industriak Spotify (musika entzuteko zerbitzua) edota Netflix (film eta telesailak ikusteko zerbitzua) bidez jendeari esperientzia hobe bat eskaini eta kontsumoa hortik bideratu nahi izan du. Bi kasuak arrakastatsuak direla esan daiteke, bakoitza bere alorrean. Bada, P2Pari dagokionez, badirudi Spotifyk eragina izan duela eta era horretan musika gutxiago elkartrukutzen dela orain. Aldiz, Netflixek ez du eragin handirik sortu P2P sareetan trukutzen diren bideo kopuruan.

Tronu Dema bat balitz bezala, Popcorn Time (get-popcorn.com) bezalako tresnak jaiotzen hasi dira testuinguru honetan: atzetik P2P elkartruketa erabili arren, erabiltzailearentzako edozein bideo zerbitzu bezain errazak diren tresna ikusgarriak. Bi munduen gauza hoberenak biltzen ditu Popcorn Timek adibidez, eta gainera mugikorrentzako bertsioak ere atera ditu orain.

Ereduen arteko etengabeko tronu dema horretan, seguru zuetako askok entzun duela *Tronu Dema* dela historian gehien jaitsitako telesaila. Bada, inork ezin du hori ziurtatu, P2P trafikoa neurtzeko zailtasunak direla eta. Tru Optik enpresaren datuei so egiten badiegu, aldiz, datu hori egiazkotzat jo dezakegu.

BitTorrent protokoloaren sortzaileek afera hau aztertu zutenean (<http://blog.bittorrent.com/2013/06/25/the-real-king-of-bittorrent>), adierazi zuten, beraien datuak aztertuz, egileak bere kasa igotako *Epic Meal Time* saioa zela jaitsiena, *Tronu Dema*-ren deskarga bikoitzekin. Titular handietan aurkeztu zituztena telesail enpresa handien saioen arteko tronu dema zen, ez beste ezer. Errealitatea bestelakoa da, askoz ere anitzagoa.

Ilustrazio berria

Informazio eta ezagutzaren gizartean bizi gara. Informazioa eskuratzeko eta hedatzeko inoiz baino aukera gehiago dugu,

alde batetik; eta, bestetik, informazio horretan oinarrituz ezagutza sortzeko gaitasuna ematen duten baliabideak ere eskuragarri ditugu. Balio horiek erdigunean kokatzen dituen jendarte honetan, aldiz, balio horien aurka doazen ekimen eta praktika ugari ere aurki daitezke, gertu gainera.

Inprentak eta Ilustrazioak ekarritako ezagutzaren demokratizazio prozesuak ez du etenik izan. Orain, Internet eta teknologiei esker, informazioa eskuratu, erabili, berrerabili eta horrekin ezagutza sortzea gero eta errazago bihurtu da. Bada, orain badira printzipio horiekin hautsi eta teknologiak posible egiten duena oztopatzeko bideak jarri nahi dituztenak.

Horien aurrean, aipatutako idealekin bat egin edo horiek zabaltzeko jarrera dutenak ere agertzen dira. Ere mu oso zabala bada ere, ezagutzaren inguruan kokatzen diren hezkuntzan eta liburugintzan bakarrik jarriko dugu arreta orain. Beti edukien bueltan, eta ahal den kasuetan gertuko adibideak ekarriz.

Hezkuntzaren alorrean gero eta ohikoagoa da eduki libreeko jarrera positiboa. E-learning ikastaroetatik hasi eta unibertsitate materialetara hedatzen ari da eredu librea. Guztiz zentzuduna da, ezagutza ahalik eta gehien zabaltzea bada helburu.

Garrantzi berezia hartzen dute horretan hezkuntza prozesuaren hasierako urteetako materialek. Arlo horretan, muga handiak daude oraindik. Kasu askotan, beren izaera egokitu ez duten edota ezin izan duten editorial pribatuaren esku dago eduki horren jabetza eta kontrola. Gurean ere ez gaude arazo honetatik gorderik.

Aldiz, arlo ezberdinetatik hezkuntzarekin lotutako zenbait ekimen interesgarri ere badira: UEUK eta Asmozek (mooc.asmoz.org) bigarren MOOC online ikastaro ireki masiboa antolatu izana, adibidez. EHU unibertsitate publikoan ere, irakasgai askotako material ugari sarean dago eskuragarri Open Course Ware atarian (ocw.ehu.es).

Liburugintzaren arloan, oraindik ere eduki libreen aldeko jarrera xumea da, nahiz eta gero eta gehiago diren eduki

libreetan argitaratzen duten egileak. Euskarriak garrantzia du oraindik, baina digitalizazioarekin batera eztabaida gero eta nabariagoa da.

Industria, bide horretan, aurreko ereduarekin jarraitzeko saiakera egiten dabil, DRMa (giltzarrapo digitala) erabiliz batez ere. Giltzarrapo horrekin, liburu digitala ohikoa beharko lukeen kopiatzeko aukera murrizten dute. Hau da, liburu digitala liburu fisiko bilakatzea bilatzen dute. Eusko Jaurlaritzak liburutegi publikoetan jarrera hori sustatu du, liburutegiek beti izan duten izaeraren kontra, eremu pertsonalean larria dena jendarte osora hedatuz.

Badira kontrako zentzuan igeri ari direnak ere. Traficantes de sueños argitaletxeak, adibidez, lizentzia libreetan publikatzen ditu bere liburu digital eta fisiko gehienak. Gurean Susa argitaletxeak horixe bera egiteaz gain, liburu digitalen kasuan ordainketa sisteman ere egilearekiko ordainketa zuzena bilatzen duen eredu bat lantzen dihardu.

Oraindik aldaketa gertatu ez bada ere, argi dago jada eredu batzuekin amaitu eta beste batzuk ezarri behar direla. Egin ezean, euskararen egoera kontuan hartuz, atzean gelditzeko arrisku larria litzateke. 🐞